

# Goienkaria

2006ko urriaren 27a > Egubakoitza > VI. urtea > 262. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Herritarren inplikazioa bilatu gura dugu presoen eskubideak lortzeko"

Gaizka Azkarate  
Presoen aldeko baraualdikoa > 09



**G2a**

Dorretxeak, historiaren lekuko isilak > 43


**SINDIKATUAK**  
Komiteak aukeratuko dituzte enpresa gehienek azaroan > 05

**GIZARTEA**  
Garuneko hartutako kaltetuen elkartearen kirol jaialdia > 06

**ENPRESA**  
Bergarako Lazpiur enpresak prebentzio saria irabazi du > 24

## Ordu aldaketa

Neguko ordutegia estreinatuko dugu domekan: goizeko hiruretan, ordu biak izango dira. Ez ahaztu!



**KOMUNIKAZIOA** > TOKIKO TELEBISTA DIGITALEN GAINEKO DEKRETUA ONARTU DUTE

## Euskarazko kateak, tokiko telebisten dekretuaren aurrean

**IRITZI ONA** Goiena eta GOITBko arduradunek diote positiboki diskriminatzen dituela dekretuak euskarazko kateak

**LIZENTZIA** Ibarrean lau tokiko telebista egongo dira, gehienez ere, eta lizentzia bat lortzeko lehiaketan egongo da Goiena

**HAMAIKA** Tokiko telebisten Hamaika enpresa "aukera" moduan ikusten dute Goienako arduradunek > 02-03

**GIZARTEA** > SARIA

## Gipuzkoako Urrezko Domina

Itziar Astiazaran Farmazia irakasle aretxabaletarra da sarituetako bat > 06

**POLITIKA** > MIAKETA

## Lau herriko tabernaren miaketa

Arrasate, Aretxabaleta, Oñate eta Bergarako herriko tabernak miatu zituen Ertzaintzak joan den martitzenean, horien inbentarioa egiteko, Auzitegi Gorenak agindu bezala. Protesta egiteko kale agerraldiak eta bilkurak egon ziren. > 06



BISITA Arrasateko udal ordezkariak eta beste eragile batzuetakoei bisita gidatua eman zieten eguaztenean.

ANABEL DOMINGUEZ

## Arrasateko kultura etxe berria bisitatu dute Udal orezkari eta eragileek

Arrasateko kultura etxe berria zelakoa den ikusteko bisita izan zuten udal agintariak eguaztenean. Eraikina eraberritu eta kultura etxe bihurtzeko ardura izan duen Juan Jose Ugarte arkitektoak gidatuta ikusi zuten zinegotzi, alkate eta bestelako gon-

bidatuek eraikin berria. Esparru bakoitzak izango duen erabilera azaldu zieten.

Udal ordezkarien bisitaren ostean, orain herritarrek dute kultura etxea ikuseko, bisita gidatu eta guzti. Txanda Biztanleen Arreta Zerbitzuan eskatu behar da. > 18

## AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08  
Elkarrizketa > 09  
Iritzia > 10-11  
Gutunak > 12  
Herriak > 15-39  
Kirola > 40-41  
Kultura > 45  
Sailekuak > 46  
Eskelak > 47  
Denbora-pasa > 48  
Gazteak > 50  
Telebista-Irratia > 51  
Komunikazioa > 52  
Non-zer > 54-55



**MEMESA**  
INDUSTRIA HORNIDURAK

ARRASATE  
TEL.: 943 712 425  
FAXA: 943 712 298

ARETXABALETAKO  
TEL.: 943 712 411  
FAXA: 943 712 004

OÑATE  
TEL.: 943 718 080  
FAXA: 943 718 045



**SEIN**  
GRUPOTAIDEA

Euskadiko erreferente nagusia  
industria horniduran



**Chevrolet Captiva**

Captiva gama  
**23.330€-tik**  
hasita.



**Giauto** 902 345 225

Otaola etorbidea, 27. EIBAR. Tel.: 943 70 08 41  
Karobi Industrialdea z/g. OLABERRIA. Tel.: 943 88 51 50  
clientes@giauto.es

www.chevrolet.es Chevrolet gehiago da

KOMUNIKAZIOA &gt; LEKUKO TELEBISTA DIGITALEN GAINKO DEKRETUA ONARTU DU JAURLARITZAK

# Tokiko telebisten dekretua euskarazko kateendako ona da, Goienaren esanetan

**AUKERA** Goienak ondo baloratzen du Lakuaren dekretua, izan ere, aukerak zabaltzen ditu euskara hutsezko telebistendako

**HAMAIKA** GOITB Hamaika tokiko telebista sustatzeko enpresaren sorreran egon da, eta enpresako kide izateko eskaera egiteko asmoa du

**LEHIAKETA** Debagoiengan uhin bidezko tokiko lau telebista digital egongo dira 2008tik aurrera, eta lizentzia lortzeko lehiaketan egongo da Goiena

LEIRE KORTABARRIA &gt; BERGARA

Tokiko telebistak albiste dira azkenaldian. Izan ere, bi berri-tsun garrantzitsu dago arlo horretan. Batetik, garrantzitsuena, Eusko Jaurlaritzak joan den astean onartu du uhin bidezko tokiko telebista digitala garatzeko dekretua. Horrek orain arte asmoak eta usteak zirenak behin betiko zelan izango diren finkatzen du; eta, Goienako Zuzendari Nagusiak, Inazio Arregik, esaten duenez, GOITB Debagoiengo telebistarendako eta, oro har, euskarazko tokiko telebistendako modu onean. Eta, bestetik, bere ibilera hasi berri du komunikazio enpresa batek, Hamaika enpresak, Euskal Herri osoa euskarazko tokiko telebistaz hornitzeko helburuarekin. Honen sorrera ere GOITBrendako "aukera" moduan ikusten du Goienako Zuzendari Nagusiak.

Biak ere etorkizunean argitzen joango diren aukerak dira, eta orain, hasieran daudenean, marraz daiteke etorkizun hori izan daitekeenaren ikuspegi orokor bat.

**DEKRETUAREN ABANTAILAK**

Uhinez hedatzen den tokiko telebista digitalen gaineko dekretua onartu da; orain, lehiaketarako bidea zabaltzen da, eta hori udazkenaren barruan egin nahi du Jaurlaritzak.

Lehiaketa beharrezkoa da finkatu diren telebista-barrutietako kanalak esleitzeko. Dekretuak EAE 15 barrutitan edo eskualdeetan banatzen du, eta bakoitzean lau telebistarako lekua dago. Debagoiena "Arrasate" izeneko barrutia da. Udalek lehentasuna dute kateak eskuratzeko.

Bestetik, dekretuak euskararen gaineko gutxiengo neurri

**Hamaikak Tokiko elkarteak aintzat hartu behar lukeela dio Goienako Inazio Arregik: "Tokikok daki zelan egin telebista"**

batzuk dakartza, euskarazko emisioa bultzatzeko. Hala, esaterako, zuzenean udalek kudeatutako kateetan emisioaren erdiak euskaraz izan beharko du; erakunde pribatuek kudeatutakoetan, emisioaren %20k izan behar du euskaraz, baina gutxiengo hori handituz joango da eskualdearen euskara erabilera mailaren arabera. Dekretuak ez du inongo mugarik jartzen; hala, euskara hutsean emititzea aukeraketa bat da.

Inazio Arregik, Goienako Zuzendari Nagusiak, ondo baloratzen du dekretua. Tokikok, euskarazko zazpi lekuko telebista batzen dituen elkarteak, GOITB barne, euskara hutsean emititzearen gaineko neurriak eskatu zituzten, eta ez dira jasotzen; baina bestelako neurriak aipatzen ditu, adibidez, edozein kasutan lehentasuna izango dute



DIGITALA Sistema digitalarekin lan egiten du dagoen

gutxienez erdia euskaraz ematen dutenek, eta aukera dago kateak eman gabe uzteko, gutxieneoak betetzen ez badira. Arregik esaten duenez, helburuak ez betetzearen "erruak" ezin zaizkio legeri egotzi: "Legeak aukera guztiak ematen ditu; adibidez, aukera dago euskara hutseko lau tokiko telebista egiteko. Baina betetzen ez badira, eragileak ez daudelako da".

Arregiren esanetan, "euskarazko kateenganako diskrimina-

## MILAR ELKORO

Eta orain ere... **SUKALDE ALTZARIAKI!**

- Eskatu aurrekontuak konpromiso barik.
- Neurri egindako finantzaketa.



Milar Elkoro Olarte, 1 ARRASATE Tel.: 943 79 18 86



TDT SINTONIZATZAILEA BARNE DU  
HD READY

TV LCD 40"  
SAMSUNG  
LE-40S73

1.659 €

TV LCD 32"  
SAMSUNG  
LE-32S73

999 €



Bolumena: 17 litro  
Potentzia: 700 W  
6 potentzia maila  
Plater biratzailea eta barne argia

MIKROUHIN-LABEA  
ORBEGOZO MI1710

49 €



neko GOITBk, eta emisioa bera formatu digitalean izango da 2008tik aurrera.

GOIENKARIA

zio positiboa dago: kanonetan laguntzak, ekoizpena hainbaten artekoa izateko aukera..." Azken neurri hori garrantzitsua da, izan ere, egunero, gutxienez norberak ekoiztutako lau ordu eman behar dituzte telebistok, eta horiek sindikatuak izan daitezke.

Modu batera edo bestera, Arregik esaten duenez, Goiena "katea lortzeko lehiaketara aurkeztuko da". 2008rako, formatu digitalean emitituko du uhinez ere.

#### GOIENA ETA HAMAIIKA ENPRESA

Hamaika enpresaren sorrerak berbagai bihurtu du berririo euskarazko tokiko telebisten gaia. Enpresa hori honakoek osatzen dute: Euskaltel, Baintet ekoizpen etxea, Elkar argitaletxea eta EKHE (*Gara*), EKT (*Berria*) eta CMN (*Noticias de Gipuzkoa, Deia*) talde editorialek.

Gaur egun, Goiena ez da Hamaikako kide, nahiz eta sortze aurreko bidean asko parte hartu zuen. Azkenean, baina, "eurek

erabaki zuten enpresa eurek bakarrik sortzea", dio Inazio Arregik. "Pena eta min handia hartu zuen Goienak", gaineratzen du.

Goiena beste talde bateko kide eta sortzaile da: Tokiko, euskarazko lekuko telebisten elkarte. Zarautz, Goierri, Tolosaldea, Urdaibai, Baztan eta Bortzirietako telebistak dira beste kideak. Horren bidez, telebista horiek produktuak elkarrekin trukatzeko dituzte, eta honela, kalitate

#### GOITB-KO ARDURADUN BERRIAK

### Zuzendari eta erredaktore buru berriak GOITBn

Arduradun berriak ditu GOITBk. Hala, aurrerantzean Iban Arantzabal (Elgeta, 31 urte) izango da Goienako Ikus-Entzunezkoen burua; barnean dago GOITB, baina baita Arrasate Irratia eta Goiena.net webgunea, orain arte ere Arantzabalen ardurapean egon dena. Oihane Agirre aretxabalearrari hartzen dio Arantzabalek GOITBko zuzendari lekukoa. Honakoa dio: "Telebista sozialagoa egingo dugu. Familietan berba egiten diren gaiak ekarriko ditugu telebistara. Programazioan ere badatzo aldaketak."

Goiatz Arana kazetaria (Ormaiztegi, 27 urte) da GOITBko erredaktore buru berria, albiste-gietako aurkezlea izateaz gain. Egun batzuk daramatza kargu berrian, eta "gustura" hartu duela diosku. Hauek dira bere asmoetako batzuk: "prentsurrekoen hainbesteko jarraipena ez egitea, eta gutxienez Bergara eta Oñatiko osoko bilkuretara heltzea".



Iban Arantzabal.

GOIENKARIA



Goiatz Arana.

GOIENKARIA

oneko programak ditu telebista bakoitzak, kostuak handitu gabe. Horrek mesede egingo dio Goienari, programa horiek derrigorrezko ekoizpen propioko portzentajearen egongo direlako.

Tokiko eta Hamaika elkar osatzen duten kalitateen jabe dira, Inazio Arregik dioskun moduan: "Tokikok daki telebista zela egin, hor dago telebistaren historia. Hamaikako kideek, ordea, ez dute sekula telebista egin". Horregatik, Arregik dio Hamaikaren eta Tokikoren artean harremana egon, badagoela, eta Goienak "Hamaikan sartzeko eskaera" egingo duela.

Hamaika "aukera" bezala ikusten du Arregik, eta Hamaikak eskualde guztietan egon nahi duenez, telebistak badauden eskualdeetan eragile horiekin hitz egingo dutela ere gaineratzen du.

### Oraingoz, Arrasaten ikusten da bakarrik

Lurreko Telebista Digitala (LTD) aurrera doan proiektua da, baina bere abantailak 2008tik aurrera ikusi beharko ditugu, batik bat, Debagoienean.

Orain arte erakundeek jarraitzen duten politika da LTDa eremu bakoitzeko herri populatuenetara ezartzea. Arrasaten, ETB ez beste kate orokorrek modu digitalean ikusten dira, eta telebistak eta deskodetzaileak "nahiko ondo" saltzen ari dira, Elkoro dendan esaten dutenez.

Alderantziz, Debagoieneko beste herrietan ez dute seinale digitala jasotzeko azpiegitura ipini eta, Bergarako Santos dendan dioskutenez, "auskalo noiz" egingo duten hori.

**Sistemas Prados**

Otolora lizentziatua 12, behea  
**ARRASATE**  
943 79 83 07  
e-maila: [mondragon@sistemasprados.com](mailto:mondragon@sistemasprados.com)  
[www.sistemasprados.com](http://www.sistemasprados.com)

**ZABALDU BERRIA!!!**



**ZERBITZU TEKNIKOA**

#### Informatika-Hardware Banaketa, muntaketa eta ekipo informatikoen zerbitzu teknikoa

- Ekipo informatikoak
- Ordenagailu eramangarriak
- Pantailak
- Inprimagailuak
- Sareak, komunikazioak eta interneta
- Hari gabeko sistemak
- Aholkularitza informatikoa
- Mantentze-kontratuak

#### Informatika- Software Gestiorako softwarea: enpresak, ostalaritza eta komertzioa

- Biruskontrakoak
- Sistema eragileak
- Neurria egindako programazioak
- Laguntza eta mantentzea

#### Osagarriak

- Kontsumigarriak
- Faxak
- Paper-biribilkiak
- Inprimagailurako tintak
- Etiketak

#### Kutxa erregistratzaileak Edozein negozioarako kutxa erregistratzaileak

#### Gestiorako ekipoak

- TPV-ak
- Ukimen-ekipoak
- Ukimen-pantailak
- Tiket-imprimagailuak, sukaldarako imprimagailuak
- Barra-kode irakurgailuak
- Txanponak gordetzeko kaxak
- Bisoreak
- Etiketagailuak
- Baskulak
- Fakturagailuak



Aste honetan eta datorrenean egitekoak zituzten epaiketak atzeratu egin dituzte grebagarentik

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Epaitegietako langileek martitzenean hasi zuten mugagabeko greba CCOO, CSICFI, ELA, LAB eta UGTk deituta. ELAko justizia arloko arduradun Iñaki Latorrek esan bezala, Bergarako epai-

JUSTIZIA > GREBA MUGAGABEAN DAUDE JUSTIZIAKO LANGILEAK

## Bergarako epaitegian %90eko jarraipena du langileen grebak

tegian %90eko jarraipena izan du grebak. "Lau sala daude Bergaran eta bigarrenen egiten dute lana bakarrik, besteek gutxieneko zerbitzuak eskaintzen dituzte soilik martitzen, eguzten eta eguenetan", zehaztu du Latorrek.

Euren lan baldintzak administrazioko langileenekin parekatzea eskatzen dute.

### ATZERAPENAK

Aste honetan Bergarako epaitegian egitekoak ziren epaiketak

atzeratu egin dituzte eta baita datorren asteekoak ere. ELA-  
k esan du Jaurlaritzako justizia sailarekin bilera bat egiteko zain dardela sindikatuak eta ordura arte, behintzat, grebak jarraitu egingo duela.

( KUTXA BIZITZA-ASEGURUA )

ZU BIZI ONDOREN ERE BIZIA DAGOELAKO.

Gure laguntza osoa duzu  
maiteen dituzunak  
babesteko.

Zuretzat eta zure familiarentzat etxe baten jabe izatea, horra ahalegin handiz bete duzun ametsa. Zure familiari etxe horretaz gozatzeko eskubidea du noski, eta ezerk ez luke eragotzi behar hori. Izan ere, **Kutxa Bizitza-Asegurua** duzu hori bermatzeko modurik errazena.

Guretzat ere zure familia baita garrantzitsua.



"Biharko Vida y Pensiones, S.A."-rekin kontratatutako Kutxa Bizitza-Asegurua. **Kutxa** da bere erregistroan 02 zk.az ageri den aseguru agentziaren sozietate

www.kutxa.net

 **kutxa**  
zer nahi duzu bihar?

> DEBAGOIENA

### Fagorren Renove planak jarraipena du gaurtik, egubakoitza

Fagorrek Renove planarekin jarraituko du gaurtik, egubakoitza, aurrera. Hilaren 18an bukatu zen orain arteko plana, baina beste dirulaguntza bat jaso dute Energiaren Euskal Erakundetik eta planak azaroaren 18a arte jarraituko du. Fagorren Renove planak arrakasta izan du orain arte eta herritar askok erosi du etxetresna berria, zaharra botata. Gehienek gama altuko etxetresna erosteko aprobetxatu dute plana.

> ELGETA

### Inguruak garbitzeko irteera egingo dute etzi, domeka

Elgetako inguruak garbitzeko irteera egingo dute domekan Elgetako ingurumen taldeak, Mayak, deituta. Zaborrak eta jendeak utzitako hondakinak jasoko dituzte Asentziora eta Eguarbitzan. Familia osoarendako irteera da; umeak ere joan daitezke.

Hurrengo egunean, aldiz, errausketaren aurkako plataformako kideek hitzaldia egingo dute Espaloia kafe antzokian, 19:30ean.

> DEBAGOIENA

### Gazteendako iragarki taula digitala sartu dute Interneten

Gazteendako iragarki taula digitala sareratu dute Gipuzkoako Gazteendako Informazio Sarearen ekimenez. Hau da helbidea: [www.zureiragarkiak.net](http://www.zureiragarkiak.net). Helbide horretan sartu eta gazteek aukera dute euren interesekoak diren iragarkiak sartzeko edo irakurtzeko, adibidez: bizilagunak bilatu, etxebizitza alokatu, lana aurkitu edo harremanak egin. Iragarkiak hilabetez egongo dira sarean besterik adierazi ezean.

> ARRASATE

### MU eta Finlandiako unibertsitate bat elkarlanean dabilta

Mondragon Unibertsitatea eta Finlandiako Team Academy unibertsitatea elkarlanean dabilta ingeniaria ikasleak ekintzaileak izan daitezke. Finlandiako hainbat ikasle Arrasatera etorri dira MUko ordezkari, irakasle eta ikasleekin ekintzaile izateari buruzko esperientziak eta ezagutzek trukatzeko. Mendeberri proiektuak hain zuzen horixe du helburu, teoriagain, ekintzaile izateko gaitasuna izatea ikasleak.

LANA > HAUTESKUNDE SINDIKALAK

# Datozen asteotan erabakiko da Debagoieneko mapa sindikal berria

Ibarreko enpresa handi gehienek azaroan aukeratuko dituzte komiteak

Orain arte, 50 langile arteko enpresetan ordezkariak aukeratu dituzte bozketan

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Hauteskunde politikoen zaratarik gabe, sindikatuen hauteskundeak egiteko sasoa hemen da. Datozen asteotan izango da aktibitate handiena, izan ere, bi motako hauteskundeak daude: ordezkariena -enpresa eta lantegi txikietan- eta komiteena -enpresa handietan egiten dena. Hauteskunde sindikalak, batik bat, urritik abendura edo urte hasierara bitartean egiten dira, baina enpresa txikiak urria bitartean egiten dituzte, eta handi gehienek, azaroan. Orain lau urteko hauteskundeetan, honako ordezkariak lortu zuten sindikatuek: ELAk, %41; LABek, %29; CCOOk, %19, UGTk, %9 eta gainerako %2 beste batzuen artean banatu zen.

Orain arteko emaitzen balorazioa egiten dute Debagoieneko sindikatuek, baina duten garrantzia emanda. Hala, esaterako, ibarreko sindikatu nagusiak, ELAk, hauxe dio: "Orain arteko

emaitzak oso onak dira eta gure ordezkariak berritzea lortu dugu. Esaterako, astelehen eta martitzenean egin ziren bozketatan 33 ordezkari berritu genituen. Oso aurreikuspen onak ditugu Zahorren, Garagartzan, Labegaraetan... Gure erronka da orain arteko ordezkariak portzentajeari, %41-42, eustea eta enpresa txiki gehiagotan sartzea", dio ELAko Egoitz Iturbe kideak.

LABek, ibarreko bigarren sindikatuak, Elgetako emaitzak jakinarazi ditu: bost ordezkari gehiago lortu ditu han. Hazkundeak "itxaropenez beteriko etorkizuna ikusteko aukera irekitzen digu", dira Elgetako LABen hitzak. Edozelan ere, oraindik gehiago esateko goiz dela gogorarazten dute ibarreko arduradunek.

CCOOk arduradunek esaten dute "batik bat metalaren sektorean, emaitza onak" izan dituztela: esaterako, JOMAKo hiru ordezkariak lortu dituzte; Omycoko hirutik bi; Kateako bos-

tetik hiru... Arduradunen esanetan, "azaro bukaeran jakingo da, gutxi gorabehera, zelakoa den errealitatea".

UGTk dioenez, orain arte euren emaitzak "egonkorrak" izan dira, eta sektore batzuetan hazi egin dira. Euren esanetan, "UGTren emaitzak orain arteko antzekoak izango dira".

ESK sindikatuak ere jakinarazi du emaitza bat: Stadler lantegian, orain arte bost ordezkariak ELAkoak izan dira, eta orain, ESKe, 15 botorekin, ordezkari bat atera du.

#### EGUTEGIA

Hemendik aurrera bozkatuko dute enpresa gehienek, komiteak osatzen dituztenak, hau da, araudiaren arabera, 50 langile edo gehiago dituztenak.

Hona hemen data batzuk: Alza, Ezkurra eta Tesa lantegiak azaroaren 10ean edo 11n egingo dituzte; Polmetasak ere azaroan egingo ditu; Arrasateko Udalak eta Oñatiko Udalak ere azaroan egingo dituzte; Bergarakoak, berriz, abenduan. Arcelorrek azaroaren 9an egingo ditu; Oñatin, Garaik, 13an egingo ditu, eta Zahorrek, 20an.

Beste lantegi askok oraindik ez dute datarik finkatuta: hori da Candy edo Elay enpresen kasua. Badira urtarril edo otsailan egingo dituztenen kasua, eta azkenik, enpresa batzuek ez dituzte egingo: izan ere, arauak dio 10 langile arte dituzten enpresak ez daudela behartuta, eta 6 eta 10 artekoak, langileen gehiengoak egitea erabakitzen badu bakarrik.

#### LABUR

#### > GARAIA

Lau urtean behin egiten dira hauteskunde sindikalak, baina ez dago egun bakarra. Ibarreko enpresen %65ek irailetik urtarrilera bitartean egiten dituzte.

#### > NON EGIN DAITEZKE?

Gutxienez sei langile dituzten enpresek egin ditzakete. 50 langile baino gutxiago dituzten lantegiak ordezkariak izango dituzte; 50 edo gehiago dituztenek, enpresa-komiteak.

#### > HAUTESLEAK ETA HAUTAGAIK

Hautesle dira 16 urtetik gora eta bozkatzeko orduan gutxienez hilabeteko antzintasuna duten langile guztiak. Hautagai dira 18 urtetik gorako eta kandidatura aurkezteko unean gutxienez 6 hileko antzintasuna dutenak.

#### > KOOPERATIBATAN

Elkarte kooperatiboetan, langile soldatapekoek, bazkide ez direnek, izan daitezke hautesle eta hautagai.

#### > PROZESUA

Normalean, enpresan gehiengo duen sindikatuak bultzatzen du hauteskundeak. Jaurlaritzako Lan sailari eta enpresari jakinarazi behar die. Gutxienez, hauteskundeak egin baino hilabete lehenago jakinarazi behar dio enpresari.

#### > DEBAGOIENEAN

Ordezkariak aukeratzeko dituzten enpresek irail eta urrian egiten dituzte hauteskundeak; gainerako gehienek, azaroan.

## Ezker abertzaleak botoa LABendako eskatu zuten

Debagoieneko Ezker Abertzaleko hainbat kide publikoan agertu ziren joan den martitzenean hauteskunde sindikal hauetan botoa LABendako eskatzeko, eta horretarako dei egin zioten "ezkertiar eta abertzale orori".

Batutakoaren iritziz, "Euskal Herriak fase politiko berri batean sartzeko aukera handia dauka. Aukera honetan langile mugimendua berebiziko garrantzia dauka. Langile mugimendua subjektu klabea da Euskal Herrian aldatzeko politiko eta sozialerako". Gaineratu zuten, "apustu hori koherentzia eta azpajokorik gabe defendatzen duen bakarra LAB da". "LABen proiektua indartzea sozialismorantz aurrerapausoak egiteko eta langileria benetan defendatzeko modu bakarra da".

LABen beste zeregina ere gogoratu zuten: "Ezin dugu ahaztu



Aitor Arantzabal eta Jose Ramon Kortabarría izan ziren hizlariak. A. LASAGABASTER

ezker abertzaleak hainbat urtetan bultzatu duen aldatzeko sozialaren barruan berebiziko garrantzia duela neoliberalismoari erantzun sendoa ematea".

Taldearen izenean hitz egin zuten Aitor Arantzabal Mahai Nazionaleko kideak eta Jose Ramon Kortabarría LABeko ordezkariak.



Omega Elevator, s.a.

- Irogailuen instalazioa etxebizitza zaharretan
- Gremioen koordinazioa
- Arkitektura-oztopoen kentze lanak

Jundizko industrialdea 29 GASTEIZ  
Tel.: 945 29 03 08 / Faxe: 945 29 04 96  
omegalelevator@omegalelevator.com

30 URTEURRENA



Ford Focus Trend TDCi 115 ZP 150 €-gatik hilean\*, 36 kuotatan.  
Sarrera: 3.462,69 €. Azken kuota: 9.002,40 €. UTB %6,70 (Prever Plana barne).

**MUGARRI AUTOAK**  
Araba Etorbidea, z/g  
ARRASATE



**Servimasa**

Sukalderako altzariendako osagarriak

**FAGOR**



etxetresna elektrikoak

- Kooperatibistentzako banatzaile espezializatua
- Baldintza ezin hobekak

Tel.: 943 76 19 95  
BERGARA



ARETXABALETA Martitzenean, 17:30 aldera iritsi zen Ertzaintza Urbaltz tabernara.

MIRARI ALTUBE

MIAKETAK &gt; MARTITZENEAN EGIN ZITUEN ERTZAINZAK DEBAGOIENEN MIAKETA GUZTIAK

## Debagoieneko lau herriko taberna miatu ditu Ertzaintzak

Arrasate, Oñati, Aretxabaleta eta Bergarako herriko tabernak miatu zituen Ertzaintzak, Euskal Herriko beste hainbat bezala

AINTZANE IRIZAR &gt; BERGARA

Herriko tabernen inbentarioa egiteko agindu du Auzitegi Goreneko 61. Sala Bereziak. Agindu horri erantzunez, astelehenean Guardia Zibilak hasitako miaketak Ertzaintzak jarraitu ditu martitzenean eta eguaztenean. Inbentario honen aurrekariak honakoak dira: 2003ko martxoan, Auzitegi Gorenak legez kanporatu egin zituen Batasuna, Herri

Batasuna eta Euskal Herritarrok. Erabaki hartan, "ondasunen kitatze prozesua abiatzea" agindu zuen. Horrekin lotuta daude oraingo miaketak, herriko tabernak Batasunaren menpe zeudelakoan.

ARRASATEKO IRATIN HASI ZIREN

Ertzaintza izan da Debagoieneko izan diren lau miaketak egin dituen. Arrasateko Irati taber-

na miatu zuten lehendabizi; 11:45ean iritsi zen Ertzaintza hara, eta epailea, 12:30 aldera. 16:00etan amaitu zuten miaketa. Ondoren, Oñatiko Arrano tabernako inbentarioa egin zuten. 16:00etan iritsi ziren ertzainak hara. Aurrerago, Aretxabaletako Urbaltz tabernan sartu ziren ertzainak eta epailea. 18:00ak aldera, berriz, Bergarako Arrano taberna miatzeari ekin zioten.

Aipatzekoa da hainbat protesta ekitaldi egin dituztela miaketak salatzen. Arrasaten, manifestazioa egin zuten 200 bat lagunek; Aretxabaletan, berriz, elkarretaratzea.

KIROL JAIALDIA &gt; ARRASATEKO UARKAPEN, BIHAR

## ATECE elkarteak dirua batzeko jaialdia Arrasaten

Hartutako Kalte Zerebralaren kaltetuen elkartearen Debagoieneko delegazioak antolatatu du kirol jaialdia

AINTZANE IRIZAR &gt; ARRASATE

ATECE-Bithon izena jarri diote bihar, zapatua, Uarkape frontoian izango dugun jaialdiari. Kirol eta dantza ikuskizun ugari izango ditugu, goizez eta arratsaldez. Helburua da elkartearendako dirua lortzea.

ATECE Gipuzkoa osoko elkarte da, baina Arrasaten du delegazio bat. Debagoieneko gaixo eta senitartekoen ardura izan da delegazio hori eta euren antolatutako jaialdia.

EGUN OSOKO EGITARAUA

Goizean goiz hasiko dituzte ekitaldiak: 09:30ean, karate erakustaldia izango dugu; ondoren, 10:45ean, Tai-chi eta Chi-Kung erakustaldiaren txanda izango da. 11:45ean, berriz, kickboxing, full contact eta muay thai kirolak ezagutzeko aukera izango dugu.

Arratsaldeko ekitaldiak 16:00etan hasiko dira; ordu horretan, Arrasate Musikalekoen eskutik, balet saioa ikusteko aukera izango dugu. 17:30ean, Aerobithon saioa hasiko da eta 19:30ean, latindar saloiko dantzen erakustaldia. 20:00etan, bukatzeko, aerobithon saioan parte hartu dutenei sariak banatuko dizkiete. Jon Andueza izango da ekitaldiko aurkezlea.

Esan bezala, dirua batzea da elkartearen helburua eta sarre-hiru eurokoa izango da; aerobithon saioan parte hartzea nahi dutenek, berriz, sei euro ordaindu beharko dute.

EGUNEN ZENTROA ARRASATEN

ATECE elkarteak 1994. urtean sortu zuten eta bere helburua da Hartutako Kalte Zerebrala dutenei eta euren senitartekoei laguntzea. Horretarako, besteak beste, eguneko zentro bat dute Arrasaten. Debagoiena osoko gaixoei ematen die zerbitzua zentro horrek. Momentu honetan, 12 lagun joaten dira bertara -laster beste lau lagun hastekoak dira- eta hainbat alorretako zazpi profesional dituzte euren zerbitzura.

Eguneko zentroan fisioterapia, logopedia eta psikologia zerbitzuak jasotzen dituzte gaixoei; bestalde, aisialdiko jarduerak ere antolatzen dituzte. Senitartekoei dagokionez, berriz, auto-laguntza taldeak antolatzen dabiltza, euren artean harremana izan dezaten.

Gipuzkoan 460 bazkide ditu elkarteak: horietatik 115 lagun kaltetuak dira, gaixoak; gainerakoak, berriz, senitartekoak eta bazkide laguntzaileak.

Karmele Barrutia Arrasateko eguneko zentroko psikologoak zera adierazi digu: "Finantzazio arazo larriak ditugu, diru behar handia dugu eta antolatzen ditugun ekitaldi gehienak dira, gaixotasuna ezagutzera ematez gain, dirua batzeko".

Azkenik, ATECE-bithoia ahalbidetzeko enpresa askok lagundu diotela gaineratzen du ATECEk, eta horiei eskerrak ematen dizkiete.



# LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

SARIA > GIPUZKOAKO URREZKO DOMINA

# Itziar Astiazarani Gipuzkoako Urrezko Domina emango diote

Astiazaranek ikerkuntza arloan egindako lana goraipatu dute

Pedro Migel Etxenike eta Andoni Egaña ere saritu dituzte



Itziar Astiazaran.

## ELIKADURA GAIETAN ADITUA

Astiazaranen ibilbide akademiko eta eguneroko ahalegina azpimarratu dituzte, "irakaskuntza, ikerkuntza eta kudeaketa elkar loturik eramaten jakiteagatik". Elikaduraren, dietetikaren eta elikagaien osasun nahiz segurtasunaren esparruan egin ditu ikerketak, eta baita hauek aldizkari ospetsuenetan argitaratu ere. Europako ikerketa proiektuetan eta hartu du parte. "Bere jardura profesionalaren bitartez elkartasuneko balioak sustatzea, talde lana eta ikertzaile gazteen trebakuntza dira bere dohainak".

Sari banaketa abenduaren 16an izango da.

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Nafarroako Unibertsitateko Farmazia fakultateko dekanoa Itziar Astiazaran Aretxabaletarrari Gipuzkoako urrezko domina emango dio Foru Aldundiak. "Gipuzkoa

berrikuntza erkidego izateko helburu estrategikoa gauzatzeko egindako ekarpenarengatik" sarituko dute. Pedro Migel Etxenike, fisika katedradunarekin eta Andoni Egaña bertsolariarekin batera.

## Ingurumen karabana Arrasatera heldu zen egunean

Eusko Jaurlaritzaren eta Arrasateko Ingurugiro Eskolaren eskutik Ingurumen Karabana Arrasatera iritsi zen egunean. Agenda 21 proiektuko ekintza honetan lehen hezkuntzako 700 bat ikaslek hartu zuten parte. Goizean barrena ingurumenarekin lotutako jolasak egin zituzten. Ikasleek hiru urte daramatzate ingurumenaren gaineko gaiak lantzen: zaborra, ura eta energia batik bat. Ingurumen karabanak, gainera, luxuzko gonbidatuak izan zituen: *Betizu* eta Euskal Telebistako aurkezleak.



TXOMIN MADINA

## euskara plazara

DEBAGUNE-REN BULETINA



Iaz Bergaran euskara ikasten jardun zuten etorkin batzuek. GOIENKARIA

## Etorkinek euskara ikasteko aukera dute ibarreko euskaltegietan

DEBAGUNE > DEBAGOIENA

Urtetik urtera atzerritik gero eta jende gehiago etortzen da gurera. Etorkin kopurua hazteak besteak beste euskararen normalizazioan izan dezake eragina. Jakina da atzerritik lanera datorrenak euskaraz ez duela tutik ere ulertzen hasieran bederen. Zer egin horren aurrean? Gehienek gaztelania ikasten dute (dagoeneko ez badakite). Hau ikusita, atzerritarrek benetako beharra nabaritu dute euskara ikasteko? Elebiduna den gizarte honetan gaztelania bakarrik hitz egiten erraz molda daiteke edonor, baina euskara hutsez berba eginda, oztopo ugari topa daiteke. Hala ere, badira etorkinak euskara ikastera animatzen direnak.

### Aisa ikastaroan 32 etorkinek eman dute izena euskara ikasteko

Aurtengo ikasturtean Bergarako Udal Euskaltegiko Aisa ikastaroan 32 etorkinek eman dute izena eta Oñatin 20k. Arrasaten eta Leintz euskaltegian ez dago etorkinen talde berezirik, baina hasierako urratsetan bada ikasle etorkinik. Bestalde, ume eta gazteen kasuan etorkinendako euskara erretortzu eskolak ematen dituzte. Bergarako Jardun euskara elkartearen baitan, esaterako aurtun 44 ume eta gazte daude; Oñatiko Udal Euskaltegian iaz 22 haur eta gazte ibili ziren; eta Arrasatekoan 25 umek dihardute aurtun. Debagunek txalotu nahi ditu euskara ikastera animatu diren guztiak.



**AYLA**

Erdiko kale 42  
Arrasate  
943 79 23 04

Ireki berria



## gure artekoak

**ANBOTOSTE JATETXE BEGETARIANO** > Orain dela urte eta erdi zabaldu zuten Jesus eta Vanesa Romero anai-arrebek Anbotoste jatetxea. Euren nahia da elikadura natural eta osasungarria ezagutaraztea herrian.

Jesus Romero

## "Hirietan, ilarak egoten dira jatetxe begetarianoetan"

AINTZANE IRIZAR &gt; ARRASATE

Beste era batera bazkaldu edo afaltzeko aukera eskaintzen digute Anbotoste jatetxeko Jesus eta Vanesa anai-arrebek.

### Zergatik jatetxe begetarianoa?

Nire asmoa zen jendeak beste era bateko elikadura probatzea eta ezagutaraztea zer den elikadura natural eta osasungarria.

### Zer erantzun jaso duzue?

Negozia zela doan esateko oraindik oso goiz da, urte eta erdi bakarrik daramagu eta. Gure eskaintza oso ezberdina da, eta eskaintza ezberdinek denbora gehiago behar dute arrakasta izateko. Dena dela, hiriburu eta hiri handietan, ilarak egoten dira jatetxe begetarianoetan sartzeko, eta gu ere pozik gaude jasotako erantzunarekin.

### Zelako produktuak erabiltzen dituzue?

Barazki eta fruta ekologikoak erabiltzen ditugu, sasoiari sasoikoak, betiere. Arrasaten, gainera, barazki eta fruten azoka oso ona dugu.

Bidezko Merkataritzako produktuak erabiltzen ditugu: kafea, marmeladak, rona... Bestalde, ogia eta postreak geuk egiten ditugu, lehengai ekologikoekin.



Vanesa eta Jesus, jatetxeko sukaldariak.

A.I.

## FITXA TEKNIKOAK

#### > AUKERA ZABALA

Dastatzeko menuak, entsalada aukera handia, plater bereziak, ogitartekoak, pizzak...

#### > BAZKARIAK ETA AFARIAK

Bazkariak martitzenetik egubakoi-tzera ematen dituzte; afariak, berriz, eguenetik zapatuta.

#### > IKASTAROAK

Sasoiari sasoiko barazki eta gainerako produktuak oinarritutako elikaduraren gaineko ikastaroak ematen ditu Jesusek.

#### Gaur egun, geroago eta garrantzia handiagoa ematen zaio elikadura zaintzeari, ezta?

Bai; dena dela, oraindik informazio falta handia dago. Oro har, jendeak ez du janari begetarianoa baloratzen, ez duelako ezagutzen.

#### Erraza al da begetarianoa izatea gaur egun?

Bai; gure elikaduran alde batera lagatzen ditugun elikagai bakarrak dira arraina eta haragia. Hortaz, barazkiak, frutak, lekaleak... ia denetarik jaten dugu.

## begi-bistan



### Miru gorria tiroz hilda agertu da (Urkulu) 2006/10/21

Argazkia: Aintzane Irizar.  
Testua: Aintzane Irizar.

Aretxabaletar batek topatu zuen honako miru gorria Urkulun, tiroz hilda. Interes bereziko hegazti izendatuta dago, baina ehiztariren batek ezin izan zion eutsi tiro egiteko gogoari.

#### Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

## etxeko leihotik



Eneko Azkarate &gt; GOIENKARIAko zuzendaria

## Txabarriren lana ezingo dute berretsi hautesleek

Txabarri ez da berriro aurkeztuko oraingo kargurako. Alderdiak ez dio aukera hori emango. Eskuin-zentroko euskal abertzale baten ikuspegitik, kudeaketa lan ona egiten dihardu Txabarrik. Hortaz, logikoena litzateke herri-tarrei aukera ematea egindakoa berresteko. Ezingo dute.

Egibarrek beste hautagai bat proposatu du. Eskubide osoa du hori egiteko. Mendeku hitza erabili da jokaldia deskribatzeko. Txabarri Imazen aldekoa da, baina Gipuzkoan Egibar da nagusi. Akaso, egongo da hortik zerbait, baina logikoa iruditzen zait Egibarren argumenta: egoera berria bizi dugu, hauteskunde ostean alderdien artean ados jarri beharko dira gobernatzeko, beste modu bateko itunak egin daitezke...

Imaz sozialistekin lan egitearen aldekoa da. Egibarrek nahiago du abertzaleekin. Gipuzkoan abertzaleak dira nagusi. Hortaz, bizi dugun momentu berezi eta erabakigarri honetan, Egibarrek bere aldekoak ipintzea logikoa da. Imazek dauka azken hitza akordioak norekin egin erabakitzeko, baina Bizkaian dauka bakarrik nagusitasuna. Egibarrek karta hobek izango ditu, aldeko Diputatu Nagusigaiak baditu Gipuzkoan eta Araban.

**"Egibarrek karta hobek izango ditu, aldeko Diputatu Nagusigaiak baditu"**

> **Debagoiengan** ere Egibarren aldekoak dira Uri Batzarrak herri guztietan, bitan izan ezik: Oñatin eta Antzuolan. Pentsatzekoa da ibarrean, oro har, begi onez hartu dutela GBBren erabakia.

> **Reala** barregarri dabil. Astiazaran zen txarra; Fuentes elkarte salbatzera zetorren; Bakerok aspaldiko garra berreskuratu behar zuen (dirutza gastatuta), DV-ren bedeinkapenekin. Hondo-hondoan, barregarri.

## izen propioak



**Paddy Rekalde**

IDAZLEA

Nobela berria, bigarrena, eman du argitarara Paddy Rekalde idazle bilbotarrak: *Ragga-ragga dator gaua*. Galizian bizi den Bilboko boxeolari ohi baten ibilerak kontatzen ditu eleberriak.

Angiozarko eskolako irakaslea da Paddy azkeneko urteotan.



**Antonio Palacios**

POLITIKARIA

Arrasateko PPko zinegotzi Antonio Palacios bere dimisioa aurkeztu berri du, nahiz eta oraindik ez den gautatu. Azaldu duenez, lan arrazoiak daude Palaciosen dimisioaren atzean.

Hamaika urte egin ditu Arrasaten PPko zinegotzi Antonio Palacios.



**Gerardo Markuleta**

IDAZLEA

Poesia liburu berria emango du argitarara Gerardo Markuleta idazle oñatiarrak, Alberdania etxearen eskutik. *Ezjakintasunak* izenburuaren pean argitaratu du. Orain dela urtebete Arabako Diputazioaren Ernestina de Champourcin saria jaso zuen lan horrek.



Presoen aldeko nazio baraualdia hasi dute astean Arrasateko Uarkapen. Elkarretaratzeak eta gizarte eragileekin batzarrak ere egin dituzte, presoen egoera gizarteratzea delako helburua. Gaur, egubakoitza, kale agerraldia egingo dute herri guztietan 19:30ean, eta bihar, manifestazioa 18:00etan Uarkapetik hasita. Eskualde osora zabaldu dute deia.

Gaizka Azkarate > Presoen aldeko baraua egin du

# "Euskal herritarren inplikazioa bilatu gura dugu presoen eskubideak lortzeko"

OIHANA ELORTZA > OÑATI

Debagoiena ordezkatzan duten 12 lagun daude presoen aldeko baraualdia egiten Arrasateko Uarkapen. Ur botilak, liburuak, ordenagailu bat, lo egiteko koltxoak eta baraualdia egiteko arrazoi nagusi bi dituzte: euskal preso politikoek eskubideak aldarrikatzea eta egoera gizarteratzea. Eskualdeko egingo dute baraualdia abenduaren 16a arte. Debagoienak Lea Artibairi emango dio erreleboa bihar.

## Zeintzuk dira baraualdia egiteko arrazoiak, helburuak?

Gaixotasun larria edo zigorra beteta duten presoak askatzea eta preso guztiak Euskal Herrira ekartzea.

## Zergatik hasi duzue baraualdia Debagoiengan?

Presoen eskubideen aldeko ekimena da, eta eskualde honetan hiru eskubide nagusietako adibideak ditugu. Gaixotasun sendaezinak dituzten presoak askatzeko aldarrikatzen dugunean, Jon Agirre eta *Eperra*-ren egoerak aipatu ditzakegu; bestalde, Jon Agirre bera, Unai Parot eta Gaztañaga bizi osoko espetxe zigorrera zigortuta daude, zigorra bete arren espetxean jarraitzen dute eta oraindik. Gainera, hemengo preso guztiak sakabanatuta daude.

## Diozue presoek Euskal Herrian egon behar dutela, ez bakarrik legeak dioelako, baita estatus politikoa izan behar dutelako ere. Ze garrantzia dute prozesu politikoan?

Prozesu politikoko beste agente edo eragile bat dira presoak, eta kolektiboak eskubidea du prozesuan parte hartzeko. Euren artean eta beste eragile batzuekin hitz egin behar dute, eta hori ezin daiteke egin sakabanatuta baldin badaude.

## Zertan egin du okerrera presoen egoerak?

Espetxeetako bizi baldintzek, adibidez, nabarmen egin dute okerrera: isolamendu neurriak gogortu dituzte, espetxe batzuetan presoek ez dute elkar ikusten; funtzionarioen aldetik jasotzen dituzten mehatxuak eta jipoiak ere lehen baino sarriago gertatzen dira; eguneroko bizitza okertu egin da; dispersioak bere horretan jarraitzen du oraindik... Bestalde, gobernuak trikimailuak erabili ditu presoek oraindik espetxeetan jarraitzeko.



Arrasatearra da Gaizka Azkarate, eta beste 11 lagunekin batera ari da presoen aldeko baraualdia egiten.

O.E.

inplikazioa bilatu gura dugu. Beraz, asmoa da gizarte eragileekin eta jendearekin hitz egitea, presoen egoera zein den aztertzea eta denon artean lortzea jarri ditugun hiru helburu edo arrazoi horiek betetzea.

## Hainbat eragilerekin hitz egin duzue. Ze erantzun jaso duzue?

Sindikatuarekin berba egin dugu, adibidez, eta eurak prest daude gauzak egiteko, baina bakoitzak bere esparruan egin behar du lan, eta sindikatuei ere horixe esan diegu. Esparru guztiak batuta helburuak lortzea da asmoa. Alderdiekin, euskalgintzarekin eta zinegotziekin ere egotekoak gara.

## Europako parlamentura eraman dute astean bake prozesua. Zer iruditzen zaizu?

Euskal Herrian arazo politiko bat dago, eta ondo iruditzen zait hemengo arazoaz Europako parlamentuan hitz egitea. Ondo dago Europak jakitea Euskal Herrian ze arazo dugun, eta aztertzea zein den gatazka konpontzeko denon artean hartu beharreko irtenbidea.

## Presoek izan behar dute bake prozesuarekin zerikusirik?

Ez dakit ze asmo duen gobernuak presoekiko; orain arte, behintzat, jokaldi zikinetan ibili da. Garbi dagoena da presoek eskubidea dutela hemen egoteko eta prozesuan parte hartzeko.

## Maiatzean dira udal eta foru hauteskundeak. Presoen gaia hauteskunde gai zerrendan sartuko dute alderdiek?

Edozer gauza erabiltzen dute alderdi politikoek botoak lortzeko, eta presoen gaia ere beti egoten da zerrendan. Euren onerako erabiltzen ahalegintzen dira. Gu presoek babesa ematen saiatzen gara, egoera gizarteratzen eta eskubideak aldarrikatzen. Bide batez, EAJri eskatu gura dugu dispersioaren alde jarri zuen indar bera jartzeko orain dispersioa bukarazteko.

## Zein mezu zabaldu gura diezu herritarrei?

Euskal Herriaren eta euskal herritarren babesa gura dugu aipatutako helburuak lortzeko, gobernu joko zikinean ari da eta. Lana eta borroka egiten lortzen dira gauzak, eta jendea animatu gura dugu, denon artean helburuak lortuko ditugu eta.

### EUROPA

**"Europak jakin behar du hemen arazo politikoa dugula; denok bilatu behar dugu irtenbidea"**

### Bisitak normaldu dira?

Oztopoek jarraitzen dute. Adibidez, 10 laguneko zerrendaren sistema jarri zuten orain dela denbora bat: espetxe batzuetan, 10 laguneko bisita izan dezakete bakarrik presoek sei hilabeteetan. Bestalde, *vis-a-vis* bisitetan, bikoitekideen senideak sartzeko ozto-

### HAUTESKUNDEAK

**"Alderdi guztiek sartzen dute presoen gaia hauteskundeetako gai zerrendan"**

poak jartzen dituzte ezkondu barik egonez gero.

### Nork eta ze pauso eman behar dituzte egoera hobetzeko?

Garbi dago gobernuak eman behar dituela urratsak. Gu eskatzen ari garen hiru puntuak legeak jasotzen ditu, euren legeak.

### BAKE PROZESUA

**"Euskal Herrian egoteko eta prozesuan parte hartzeko eskubidea dute presoek"**

Orain arte ez dute ezer egin, baina hiru eskubide horiek lortu gura ditugu, eta horregatik ari gara ekimen hau egiten.

### Nola lortu gura dituzue helburu horiek?

Ekimena martxan jartzearekin batera, euskal herritarren



zabalik

Edu Mendibil &gt; www.goiena.net/blogak/edu

## Negu hotza eta luzea

Udazken Kulturalaren programazioa hasi zen aurreko aste bukaeran Bergaran. Egia esateko, egitaraua ez da oso erakargarria. Kultura arduradunek betetze lana egin dutela dirudi eta erretiratuen kultur hamabostaldiko ekitaldiak gehitu dituzte Udazken Kulturalako programan. Baita Udal Musika Bandak joan den domekan Valtierra emandako kontzertua ere. Inauguratu berria den Agorrosin kirolgunea dela eta, antza ez dago diru askorik kultur ekitaldietarako... Orain dela urte batzuk abian jarritako Justo Garate Bekaren arrastorik ez aspaldi eta auditorio famatuaren zain auskalo noiztik. Antzerkiarekin eta zinemarekin jai daukagu. Arrasate, Elorrio, Eibar edo Elgetako kultur egitarauarekin alderatuz gauza gutxi eskaintzeko. Lehengo asteburuan, esaterako, Eibarren liburu azoka zuten: Bergaran hori ere ez. Gauzak horrela, giroa gero eta motelagoa. Negu hotza eta luzea bizi dugu kultura aldetik.

Kontuak kontu, Orfeoiaren *Seussen mundua* musikala izango da aurtengo emanaldi nagusia: azaroaren 11n ekarriko du Bergarako Orfeoiak urtarilean Bilboko Euskalduna jauregian estreinatuta zuten ikuskizuna. Kritika bikainak jaso zituzten orduan eta orain herrian gozatu ahal izango dugu, Udal Pilotalekuan bada ere.

Udazken Kulturala baino kirol udazkena daukagu: Agorrosin kirolgune *olimpikoak* 2.000tik gora bazkide berri egin ditu irailetik. Udal arduradunek badituzte pozik egoteko motiboak. Ea orain hurrengo urterako prezioak, lanak eta programa zehazten dituzten. Era berean, ondo egongo litzateke Udalaren aldizkari dotorean, alkateak hain gustuko duen aurrekontu xehatua argitaratzea, zehatz-mehatz zenbat diru kostatu izan duen jakin dezagun.

Bien bitartean, lasai egon gaitezke: Udazken Kulturalako egitarauan zehazten denez, abenduaren 13an Gabonetako argiak piztuko dituzte. Hasi Olentzerorendako gutuna idazten.

**"Agorrosin kirolgunea dela eta, antza, ez dago diru askorik kultur ekitaldietarako"**

**"Udazken Kulturala baino, Agorrosinekin kirol udazkena daukagu"**

## herritarrak galdezka

OÑATIKO ETXEBIZITZAK  
DIRELA-ETA

Joan den astean argitaratu genuen etxebizitzengaineko gehigarriaren harira, oñatiar batek argibide gehiago jakin guran, galdetu digu ea posible den informazio gehiago eskuratzeko Oñatin eraiki behar dituzten etxebizitzengainean (Ugarkalde, San Martin eta Kanpantxon). Horrez gainera, jakin nahi du, besteak beste, urte bukaerarako agindu zuten zozketa noiz egingo duten.

Oñatiko Udaleko Hirigintza Sailera jo dugu. Hala, han esan digutenez, agindutako zozketa hori egiteko asmoa izan badute, baina ezin dute zehaztu noiz izango den hori. San Martingo etxebizitzengainean, berriz, esan digute proiektu hori tramitazioan dagoela. Eta Kanpantxonko etxebizitzengainean, berriz, gogorazi digute etxebizitza horiek ekimen pribatukoak direla, beraz, Udalak ez duela zerkusirik.

PUBLIZITATEA BIDALI AHAL  
IZATEKO DATUAK, NONDIK?  
Ama izan berri den irakurle batek kontatu digu umea izan eta bere-

hala hasi zaizkiola etxera bere izenean ume jaioberrien gaineko publizitate mordo bidaltzen. Hala, jakin nahi du nondik jasotzen dituzten bera ama izan denaren datuak. Erregistro zibiletik?

Erregistro Zibilean galdetu dugu eta han esan digute handik datu horiek eskuratzeko ezinezkoa dela, ez telefonoz eskatuta ezta norbera bertara joanda ere. Argitu digute orain dela urte batzuk

### Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguz galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoiokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

ematen zituztela datu horiek, baina dagoeneko debekatuta dagoela. Beraz, beste bideren bat erabiliko dute datu horiek lortzeko. Eta, zoritxarrez, aukerak ugarriak dira. Eta ez bakarrik ume jaioberrien kasuan, baizik eta beste edozein kasutan gauza bera gertatzen da. Adibidez, gai jakin baten gaineko aldizkariaren batean harpidetuz gero edo gai jakin baten gaineko erosketaren bat txartelarekin ordainduz gero, sarri, norberaren datu horiei bestelako erabilera komertziala ematen dizkiete bestelako enpresek.

### ORDU ALDAKETA

**Asteburuan ordua aldatu behar dutela-eta, irakurle batek jakin gura du hori egiteko arrazoa zein den; berarendako, ez dela-eta bat ere eroso eta erabilgarria ere.**

Neurri hori 1973ko petrolio krisiaren ondoren hasi ziren aplikatzen. Helburua, berriz, argindarra aurrezteko izan zen, eguzki energia hobeto aprobetxatzen delakoan. Harrezkero, Europa osoan aplikatzen dute ordu aldaketa hori.

## marrakiz

Unai Busturia



## Goienkaria

Argiraratzaila Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE  
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Leire Kortabarria Saiiletako arduradunak Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Alex Azkarate (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea) Erredaktzioa Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar, Irati Agirreazaldegi Oinarritzko diseinua Goio Arana Maketazioa Alex Azkarate, Kepa Martelo Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziorza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berebizar Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizar, Iratxe Bengoa

### EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

### ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxia • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaeta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93  
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 19.155 ale • Difusioa: 18.629 ale.

Goiena

OID erakundeak  
ikuskatutako astekaria

### LAGUNTZAILEAK

Eusko  
JauriaritzaGipuzkoako  
Foru AldundiaArrasateko  
UdalaBergarako  
UdalaOñatiko  
UdalaAretxabaletako  
UdalaEskoriatzako  
UdalaAntzuolako  
UdalaAramaioko  
UdalaElgetako  
UdalaLeintz Gatzagako  
Udala

## MusikHerria, gauzak beste modu batean egin daitezkeelako

Asel Luzarraga  
www.goiena.net/blogak/asel

MusikHerria, gauzak beste modu batean egin daitezkeelako

Urtebete joan da EHko musikaren paisaia aldatzeko MusikHerria jaio zenetik. Urtebete orain arteko eredu

ozenki zalantzan hasi zenetik. Ez lehenago inork ez zuelako euskal industria zalantzan ipini, gorpila aspaldian asmatu zen eta merkatu basatiaren ereduari bizkarra emanda bizi diren kolektiboak ez dira jendeak pentsa dezakeen bezain murriztak. Baina iazko urrian MusikHerriak bere aurkezpen publikoa egin zuenetik gero eta argiago geratu da zerbait ari dela mugitzen gure gizartean, eta musika beti izan da aitzindaria holako aldaketetan. Euskal musikari askok ahaztu nahi izan badute ere, SGAE edo SACEMen itzalpean goxo-goxo bizitzeko.

Orduan ideia lanbrotua izan zen, gogo handia gauzak egiteko baina handia ere antolatzen hasi beharrekoaren tamaina. Urtea joan da, eta esan behar dut ni neu harrirituta nagoela ikusita zenbat gauza egin diren hain baliabide gutxiarekin. Zenbat profesional dagoen musikaren munduan printzipio batzuei eusteko gertu. Utopiari abesteaz gain, utopia bizi gura duen jendea. Ideiak indargabetzen joan barik, hazi, gorpuztu, biderkatu egin dira, eta badirudi helburu argi bat dagoela: musikan ere beste mundu bat posible dela erakustea. Aldarrikatu bai, baina batez

plazara

Azken egunotako gertaerak eta, batez ere, PSOEn jokabidea salatu eta kritikatu ditu artikulua eregi-leak, Batasuneko mahaikideak:

"Azken hilabete luzeetan ikusi ahal izan denez, Estatu espainolak, Zapatero eta PSOE buru duelarik, ez du bide errepresiboaren aldeko apus-

tua baztertu", dio. Aurrerantzean ere borrokatzen segituko dutela dio eta amaitzen du esanez, "Itxaropenak, Euskal Herria duela izena".

Aitor Arantzabal \*

# Errepresioa ez da bidea, EHk autodeterminazioa

ETA erakundeak su eten iraunkorra martxan jarri zuenetik zazpi hilabete pasatu diren honetan, Estatu espainolak erasoaldi berri bati ekin dio: Espainiako indar armatuek Herrikoen miaketa eta lapurretari ekin diote; amnistiaren aldeko mugimenduko bi kide auzitegi nazionalera deituak izan dira; Batasunaren kontrako prozesamendua berretsi dute; eta hurrengo astean ere, beste hiru mahaikide auzitegi nazionalera deituak izan dira.

- Azken hilabete luzeetan ikusi ahal izan denez, Estatu espainolak, Zapatero eta PSOE buru duelarik, ez du bide errepresiboaren aldeko apustua baztertu. Areagotu baizik.

- Ezker Abertzaleak ofentsiba politikoa bati ekin dio kurtso politikoa hasieran: irekitako prozesuak zeri erantzun behar dion argitzeko; prozesuaren helburua izan behar duen autodeterminazioa kalean aldarrikatuz; herri honen hitza eta erabakian oinarrituriko marko politikoa berri bat jokoan dagoela argituz; euskal presoan eskubideen errespetua eztabaida politikoa erdian jarritz; eta finean, baketze prozesu bat baino herri eta herritarren eskubideetan oinarrituriko prozesua izan behar duela adieraziz.

- Urte luzeetan Ezker Abertzaleak, besteak beste, eginiko lanaren ondorioz, Europako Parlamentuan, Strasburgon, Euskal Herriko aferaz eztabaidatuko da. Eta ez da kasualitatea ere, une garrantzitsu honen



MIKEL ARROIABE

atarian horrelako erasoaldia eman izana, azken finean eta nahiz eta ukatzen saiatuko diren gatazkaren izaera politikoa eta, beraz, bere baitan irtenbide politikoa alderatu. Honen guztiaren baitan ulertu behar dira erasoaldi berri honen arrazoiak eta unea bera.

- Argi eta garbi, eta ozen esan nahi dugu erasoaldi larri honen arduradun nagusia PSOE eta Zapatero bera direla. Euskal Herrian ireki den prozesuak aurrera egin dezan baldintza demokratikoak sortu ez eta, alderantziz, eraso eraso ildo errepresibo antzu baten aldeko apustuarekin jarraitzen

**"PSOE erratuta dago: baldintza demokratiko minimorik gabeko prozesurik ezin da garatu"**

**"Pertsona bakarrek proiektuak ez du balio. Herriarena da hitza eta erabakia. Itxaropenak, Euskal Herria du izena"**

dute, herri eta herritarren eskubideak iraunkorki zapaltzen dituen Espainiako zuzenbide estatuaren apologia eginez.

- PSOE orain artean erratu egin da eta erratzen ari da. Baldintza demokratiko minimorik gabeko prozesurik ezin da garatu. Norabide horretan erabaki eta urrats zehatzak emateko garaia iritsi zaio PSOeri egoera gehiago usteldu eta irekitako aukera bere horretan galbidean jarri nahi ez badu, behintzat.

- Horrelako erasoekin ezker abertzale ahuldu eta herriz herri eta nazio mailan burutzen ari garen autodeterminazioaren aldeko aldarri eta oihua isili arazi nahi dute. Eta ez dute lortuko. Orain artean eta urteetan egin dako lan eta borroka eskergak ekarri gaitu hona eta, aurrerantzean ere, borroka eta egunero lanak ekarriko dizkigu emaitza eta fruitu berriak.

- Aurreko astean sail berdinean PNV-ren iritzia irakurri genuen. Aste honetan beraien polizia politikoa etorri da gorenaren epaia betearaztera eta gure bailarako Herrikoak miatzera. Hau al da prozesuari egiten dioten ekarpena?.

- Ibarretxe=itxaropena? Herri honen etorkizuna eta itxaropena ezin da pertsona baten gainean utzi, are eta gutxiago bere izena jarri. Pertsona bakarrek proiektuak ez du balio. Herriarena da hitza eta erabakia; herritarrena da egin beharra ere. Itxaropenak, beraz, Euskal Herria du izena.

\* Aitor Arantzabal, Batasuneko Mahaikidea da

zer deritzo zu?

www.goiena.net

Gustatu zaizu Agorrosin gune berria?

BAI	%66
EZ	%34

> OSO ONDO DAGO

Asteburuetan joaten naiz igerilekura eta oso ondo dago. Aldagelak justu samarrekoak, batez ere familia osoarendakoak. Patxi

> EDERRAK

Ederrak dira piszinak eta gimnasioak eta taberna ere bai. Hala ere, nire ustez falta zaio kanpoko igerilekua udarako. Iñaki E.

> KANPOKOAK NOIZKO?

Bai, egin dutena ondo dago, baina kanpoko igerilekuak noizko. Samu

> GEHIAGO ESPERO NUEN

Horrenbeste denbora igerileku barik egoteko, gehiago espero nuen. Gauza batzuk ondo daude, baina asko geratzen da oraindik egiteko eta ez dakit dirurik egongo den egiteko, kanpoko aldea urbanizatu belardiarekin eta abar, futbol zelaiak, kanpoko igerilekua... Kimi

**DATORREN ASTEKOA: EAJK Txabarri ez aurkeztea, Ondo?**

Eman zure iritzia [www.goiena.net](http://www.goiena.net) atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

ere aldarrikapen hori egunero egia bihurtu.

Aurrerantzean argiago ikusiko da gure herrian zer defendatzen duen benetan bakoitzak, bandera gorri askoren atzean urrearen gorria baino ez baitago. Copyleft, Creative Commons, EzGAE, SACEMeZ, Copy is right..., gutxienekoa da utopiaren bidean erabiltzen den bitartekoa edo etiketa, kasu honetan guztiak esan gura dute gauza bera: kultura libre, guztiona eta guztiontzat. Duintasuna bai, diruzalekeria ez. Aurrera, neska-mutilak, hasi besterik ez dugu egin!

## Euskalful vs. Orange

Unai Moraza  
[www.eibar.org/blogak/telezaborra](http://www.eibar.org/blogak/telezaborra)

gandean ETB2ko Teleberri albistegian Euskaltel vs. Orange aferari buruz hitz egin zuten. Euskalteleko ordezkari bat elkarrizketatu zuten. Orangeko inor ez.

Atzo Euskadi Irratiko Mezularia albistegian Euskaltel vs. Orange aferari buruz hitz egin zuten. Euskalteleko ordezkari bat elkarrizketatu zuten. Orangeko inor ez.

Nik informazio guztia nahi nuke, neure iritzia sortu ahal izateko. Baina EiTBkoentzat nahikoa omen da Euskaltelek zer esaten duen entzutea.

ERANTZUNA

Atzoko Mezularia saioaren bukaeran entzuleen mezu bi irakurri zituzten eta horietako batek zuk diozuna komentatzen zuten. Baita Euskalteleko Zuzendari Orokorriari egindako galderak paktatuta edo zerbait arraroa zutela ere.

Maite Artolak esan zuen Euskaltelekoak euskararekin arazoak zituela eta aurrez grabatu zutela, eta Orangerekin harremanetan jarri zirela baina ez zutela inorekin hitz egiterik lortu.

Erral

koplak

Irati Agirreazaldegia

## Tiro hotsa nonahi, denek usoa nahi

Asko ta ondo usoak hegan hori egia ote da? Usorik ez da guretik pasa ehiztarien arabera.

Ehiztari txarrak eskopetari botatzen ei dio kulpa. Ehiza postuan egon ostean, besoak gurutzatuta.

Inguruetan hasten denean airean uso pasea. Tiro hotsa ta kartutxo hutsak, mendian ze desfasea.

Nahiz eta inoiz tiro bakarrez norbaitek bi txori bota. Gehienak esku hutsikan buelta sarri mila tiro jota.

Tiro kontuan izanagatik ehiztari fin ta abila. Alperrik dabil joan ezean txakurra presaren bila.

Txakurra baldin iristen bada garaiz txoria heltzera, ehiztariarentzat bueltarik ez du beraz agudo eltzera.

## Elebide, Hizkuntz Eskubideak bermatzeko zerbitzua

**Patxi Baztarrika** (Hizkuntza Politikarako sailburuordea) Donostia

Zerbitzu publiko berri bat jarri du abian Eusko Jaurlaritzak: Elebide, Hizkuntz Eskubideak bermatzeko zerbitzua. Herritarren hizkuntz eskubideen gaineko aholkularitza eta babesa emango dituen zerbitzua.

Izena eta izana bat datoz zerbitzu berriaren kasuan. Elebide izenak *elea* aipatzen du alde batetik, hitza, hizkuntza alegia. Beste aldetik, *elebitasunaren* balorea ere badu, elebitasunari egiten dio erreferentzia. Hirugarrenik, *bide* hitza du bere baitan, herritarren kezak, kontsultak eta iradokizunak bideratuko baititu zerbitzu berriak. Elebide izenak elebitasunerako bidea iradokitzen du, hizkuntz normalizaziorako bidea.

Elebakartasuna, edozein hizkuntzatarako delarik ere, berdin dio gaztelania ala euskara izan, ezinezkoa da, baina gainera ez da desiragarria, ez dugu elebakartasuna helburu, elebitasuna baizik. Helburua, beraz, ez da bakarrik euskararen erabilera areagotu eta normalizatzea: helburua da, gainera, bi hizkuntzen arteko elkarbizitza baketsu, orekatu eta aberasgarria eraikitzea. Hizkuntza eskubideak bermatuz ez da ezer inposatzen; hizkuntza eskubideak bermatuz gizarte justuagoa, solidarioagoa eta berdintasun handiagoa eraiki dezakegu, demokrazia osasuntsuagoa duen gizarte.

Euskararen normalizaziorako, eta euskararen eta gaztelaniaren arteko elkarbizitza baketsu eta aberasgarri-rako, lan handia egin du euskal gizarteak azken hogeitau eta bost urteotan, eta nabarmenak dira egindako aurrerapausoak. Aurrera goaz ez bairik gabe, baina bide luzea geratzen zaigu oraindik ere bi hizkuntza ofizialen arteko berdintasun sozialera iristeko.

Euskara eta gaztelania ez daude egoera berdinean, jakina. Gure gizarte euskara oraindik ere ahula da gaztelaniaren aurrean, eta elebitasunean benetan sinesten baldin badugu, bistakoa da euskararen erabilera bermatzearren

## Euskadi Irratia Aramaixon

**Txipi Ormaetxea** > Gasteiz

**A**urreko barikuen, urriek 20, Euskadi Irratia egon zan Aramaixon, bertatik bertara Aramaixoko barri emuteko. Nik ez dakit, egixe esan, Aramaixoko jente askok jakin auen horren barri. Asko ez zirela enterau esango neuke. Baiñe biherbada oker nabil. Edozein moduten, arraro egin jaten Goiena.net-en horren informaziñorik ez emutie. Eta ez jat txarto pentsetan, esate baterako, Gipuzkoako odol-emailiek jaso dauen sarixen barri emutie, edo eztaikit zer arraindegik bloga daukela jakin eragittie, baiñe behin Euskadi Irratia Aramaixora etorriko eta jentie horren jakiñaren gaiñien ez jartie ez jat normala pentsetan.

Ni Gasteiztik juen nintzen Aramaixora, zuzenien bertako euskerien gaiñien berba egittera. Baiñe astirik ez nen euki ixte ezer esateko. Eta esan nen apurre ez zan izen oso baikorra: kritiko agertu nintzen Aramaixon euskeriek dauken erabilleriagaz. Eta, siñistu egidazue, beste gauza batzuk be esan gure nittuen: Aramaixoko euskerie oso ona dala (Gotzon Garatek askotan aldarrikatu dauen moduen), neure ikerketetarako izen dittuten lekukuek oso jator eta maitagarriek direla, euskerie zaharrenetatik gaztietara aldaketan doiel, eta abar eta abar. Baiñe alkarrizketie hasi orduko amaittu egin zan (badakitue, *radix*-ko kontuek).

Eta erabilleraren konture bueltatuz, barikuen esandakua nago: euskararen ezagutzie haundixe bada be Aramaixon (% 87 inguru), ebal ez da asko egitten nire gustureko (2003en egindako kale-neurketan % 62ra ez zan aillegetan, eta helduen artien –hau da, herrixen indder haundixena daukienen artien–, % 45ekue zan). Ez dakit konturaketan garen geure hizkuntzie, euskerie, dala daukagun armarik inddertsuenetarikue. Euskera barik zer gara, ba, euskaldunok? Eta zer Euskal Herrixe?

aldeko lana dela batez ere eta nagusiki egin beharrekoa.

Gaztelania ere geurea da, bistakoa da hori. Gaztelania ere maite dugu, nola ez. Baina onar dezagun ez dela gaztelania gaur eta hemen babes beharrean dagoena; euskara dela babesa eta bultzada behar dituen, berdintasun izango badugu. Euskararen normalkuntzaren aldeko jarduna ez da gaztelaniaren aurkako borroka, ezta hurrik eman ere. Euskararen normalkuntzaren alde jardutea elebitasunaren eta berdintasun sozialaren alde aritzea da.

Hemen herritar guztiok dugu euskaraz edo gaztelaniaz nahi dugun hizkuntzan bizitzeko eskubidea, baina guztiok aitortu beharko genuke hemen berak aukeraturiko hizkuntzan bizitzeko zailtasunak dituen euskaraz bizitzeko hautua egiten duena dela. Euskara gaztelania baino egoera kaxkarragoan dago, eta ondorioz euskal hiztunen hizkuntz eskubideak dira urratu ohi direnak. Horregatik du euskarazko izena zerbitzuak, batez ere euskal hiztunei zuzenduta dagoelako. Edonola ere, herritar guztien hizkuntz eskubideak bermatzera dator Elebide, eta zabalik dago

herritar ororen mota guztietako kezak eta iradokizunak jasotzeko.

Gizakiok giza-eskubideak ditugun bezalaxe, denok konturatu behar gara hizkuntz eskubideak ere baditugula. Hizkuntz eskubideak ez dira aski ezagunak gizartearen, baina horiek gizarteratzeaz gain, erakundeek babestu eta gizarteak begirunez zaindu behar dituzte. Herri-aginteen obligazioa da, obligazio saihestezina gainera, legea betetzea eta betearaztea, herritarren eskubidek bermatzea. Daukagun obligazio hori betetzeko tresna izango da Elebide.

Adierazi behar da herritarren hizkuntz eskubideak bermatzea Eusko Jaurlaritza osoaren zeregina dela. Horregatik, Elebide Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren ekimena bada ere, zerbitzu berria gainerako Sailekin lankidetzan arituko da, haiei zuzendutako kezak bideratuz, eta hizkuntza eskubideak bermatzeko neurriak bultzatuz. Era berean, gainerako herri administrazioekiko elkarlana ere bilatuko du Elebide, euren jarduerari buruzko kezak jasotzen direnean erantzun egokia eman ahal izateko.

Elebide zerbitzu aktiboa

izango da. Ez da kezak eta iradokizunak jasotzera mugatuko, baizik eta kasu bakoitzaren jarraipen zehatza egingo du, jasotzen duen keza edo iradokizun bakoitzak bere eragina, isla, konponbidea izan dezan.

Elebidek eraginkortasuna bilatzen du, eta horretarako: hizkuntz eskubideetan adituak direnek eskainiko dute zerbitzua, batetik; eta bestetik, herritarren keza eta iradokizunak jaso ez ezik, salatua izan den entitatearekin jarriko gara harremanetan, kasuari konponbidea emateko laguntza eta baliabideak eskainiz.

Elebitasun benetakoa, euskararen eta gaztelaniaren berdintasun soziala eta herritarren hizkuntza aukera-berdintasuna lortzeko bidean beharrezkoa dugun tresna izango da Elebide. Herritarrei aitortutako hizkuntza eskubideak benetan errespetatu daitezen beharrezkoa dugun tresna izango da Elebide

Hau ez da ezereen edo inoren kontrako zerbitzua. Arazoak detektatu eta konponbidean jartzeko zerbitzua da. Hizkuntz eskubideen aldarrikapen hutsa eta haien urraketa salaketa soila baino areago, hizkuntza eskubideak babestu eta bermatzea, konponbideak aurkitzea izango da Elebidearen helburua. Hau ez da inori koloreak ateratzeko edo inori errieta egiteko zerbitzua. Espero eta desio dugu euskararen eta herritarren eskubideen aldekoa den zerbitzu honen kontra inor ez dela egongo eta denak egongo direla alde, denok gaudelako euskararen alde.

## Elgetan LAB indartsu

**Sebas Arantzabal**  
(LABeko ordezkaria)  
Elgeta

Lau urtero legez, aurten ere, hauteskunde sindikal garaian murgilduta gaude. Nahiz udazkenean izango den hauteskunde bolada nagusia, aurretik ere hasita dago langileen ordezkariak aukeratzeko kanpaina.

Garaia da Elgetara begira ere lehen balantzea egiteko. Esan behar da LAB bezala oso pozik gaudela orain arteko emaitzekin. Lehen ordezkari-tza genuen lantegietan, gure presentzia handitu dugu: Alfa-Deco lantegian, lehen bat, orain hiru; Recyde-n, lehen bat, orain bi. Gainera, ordezkariarik ez genuen

tokietan, lortu dugu lehen aldiz delegatuak, Anjace-n eta EVE-n.

Datozen erronkei aurre egiteko indarra ematen digute lortutako emaitzek: 5 ordezkari gehiago. Lan handia daukagu gure aurrean, lantegi askotako lan baldintzak nahiko kaxkarrak direlako. Hori aldatzeko bidean, langile denon bultzada beharrezkoa izango da lantegi kanpotik eta barrutik bultzatzea eginez.

Badugu, baita ere, ordezkari-tza sindikalik ez duten enpresa ugari herrian. Gure lana izango da langile horiei, lan sindikal egoki baten emaitzetaz jabearaztea.

LAB ezkerreko abertzalearen sindikatuak, Elgetan izan duen hazkundeak, itxaropenez beteriko etorkizuna ikusteko aukera irekitzen digu, beti ere, Elgetako langileen lan baldintzak hobetzeko bidean.

## Epaiketa politikoei ez, Lehendakariaren alde!

**Joseba Antxustegi** (EGI)  
Donostia

Euzko Gaztedi-EGIKo Aberri Kontseilua, Lehendakariaren aurkako kasu irekian autokulpatzen da. Batasuneko kide ezberdinekin batzeagatik, Euskal Herriko Epaitegi Nagusiak emandako eta Lehendakaria inputatzen duen autoaren aurrean, EGIKo Aberri Kontseilua berriro ere aktibitate politikoak askatasunean jarduteko oinarriko eskubideen aurka doan epaiketa politiko baten aurrean gaudela salatu nahi du.

Euzko Gazteditik ez da honelako inputaziorik uler-tzen, eta are gutxiago orain, euskal gizarte gatazka konpontzeko elkarriketa oinarri printzipala duen bake prozesu batean murgilduta dagoenean. Onartezina iruditzen zaigu pertsona bat auzitara eroatea bakea elkarriketaren bidetik bilatzeagatik.

EGIKo Aberri Batzordeak Ibarretxe lehendakariari bere elkartasun guztia adierazi nahi dio eta horregatik kide oro autoinkulpatuko da kausa honetan. Honez gain, EGIKo kide, alderdi inguruko gazte eta orokorrean Euskadiko hainbat gazte batu gara Euskal Herriko Epaitegi Nagusiaren aurrean, autoinkulpazio idazkia aurkeztuz.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33  
20570 BERGARA



Telefonoa:  
943 25 05 01



Faxa:  
943 25 05 13



Posta elektronikoa:  
goienkaria@goiena.com



*Gipuzkoar batek ilargira  
oinez joateko  
asmoa izan zuen.*

*Eta urratsez urrats iritsi da maila gorenera.  
Gaur, gipuzkoarrok kirol  
azpiegiturak ari gara eraikitzen,  
denok gailurrera  
iritsi gaitezen.*

*Gipuzkoarrok asmoak  
eraikitzen ditugu.*



Aparteko Inbertsio  
plana 2004-2007

#

Plan extraordinario  
de Inversiones 2004-2007



Gipuzkoako Foru Aldundia  
gero eta hurbilago!

Eskaintza honek urriaren 26tik azaroaren 11ra balioko du janari-edarrietan eta drogerian, eta baita 2. alea salneurri erdian sustapenean ere. Gainerako artikuluk, azaroaren 18ra arte.

# 2. alea

## SALNEURRI ERDIAN

Aipatzen diren produktuetan



Atun argia, **CALVO**,  
3x120 g-ko packa

2.  
alea

Pack 1 erosiz gero

**2,39 €**

**1,19 €**  
198 Pta



 **EROSKI**

Erosten jakin

# Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 30-33 Eskoriatza > 34-35 Antzuola > 36 Elgeta > 37 Aramaio > 38 Leintz Gatzaga > 39



> **BERGARA**  
Bandaren historia batuko du Juan Luis Bikuñak liburu baten > 26



> **ARETXABALETA**  
Zirkulazio aldaketa handiak egongo dira lanek iraun artean > 31



> **ELGETA**  
Ozkarrik elkarteak erabaki du erretiratuei dirua eskatzea > 37



> **ARAMAIO**  
Erretiratuen Eguneko azokan 20 saltokitik gora izango dira > 38

ESKORIATZA > KAPARETASUNA

## Eskoriatzako zazpi kapareren gaineko ikerketa lana egin du aretxabaletar batek

Hector Prietok 23 urte ditu; Historia ikasketak bukatzen dabil eta unibertsitaterako lan moduan aurkeztu du, baina baliteke etorkizunean bestelako erabileraren bat ematea ikerketa lan horri

UBANE MADERA > ESKORIATZA

Eskoriatzar askoren arbasoen gainekoa da Hector Prieto aretxabaletarrak egin duen ikerketa lana. Izan ere, "gaur egun Eskoriatzan bertan oinordekoak dituzten kaparetasunak aukeratu nituen nire lana egiteko", argitu digu berak. Zera ere gaineratu digu: "Aretxabaletaren gaineko lana egin gura nuen, baina herriko artxiboa Galartza jauregian dago, eta niretako zailtasun handia da haraino igotzea; gainera, Galartzara bertara joan arren, artxiboa ez dago nik erabiltzeko moduan". Horrexegatik jo zuen Eskoriatzara: "Eskoriatzan, berriz, erraztasun askoz ere handiagoak eman dizkirate".

Hain justu ere, kaparetasun unibertsala oinarri hartuta, XVII-XVIII. mendeetan murgildu zen. Hala, Eskoriatzako antzinako paperak arakatzan hasi zen Hector Prieto urtarrilean, eta uda aurretik unibertsitatean aurkeztu zuen ikerketa lana: "Oso pozik nago emaitzarekin; egin dudana lanik onena da. Gainera, oso nota ona ipini zidaten: 9 bat".

**ZAZPI KAPARETASUN**

Lan horretan, Eskoriatzako zazpi kaparetasunen gainean idatzi du: Aranburuzabala, Madinabeitia, Bengoa, Herrarte, Zubizarreta, Arrese eta Zalbidegoitia. Hain zuzen ere, zera egin du: "Ahal zirenei egin diet zuhaitz genealogikoa. Baina batez ere egin dudana da alde legala analizatu; hau da, kaparetasuna frogatzeko erabili zuten bide legala aztertu dut: fiskal baten aurrean dokumentuak aurkeztu behar zituzten eta lekukoak era-



HISTORIA Unibertsitate ikasketak egiteko Historia aukeratu zuen Hector Prietok, barru-barruan bizi ditu-eta Historiarekin lotutakoak.

U.M.

man norberaren jatorria frogatzeko. Aukeratu nituen abizenen artean, bakarrik Zalbidegoitia abizena ez da existitzen gaur egun. Baina familia horrek garrantzi handia izan zuen. Esaterako,

Mexikora bidaiatu zuten eta handik dirua bidali zuten Eskoriatzako parrokia eta gaur egun kultura etxea den eraikina eraikitzeko. Parrokiaren bada plaka bat bere izenarekin. Horrez gainera, margo-

lan bat ere bidali zuten, parrokiaren dago hori ere. Bestalde, Aranburuzabala abizena aztertuz gero, gaur egun Coronita garagardoa- ren jabearenganaino iritsiko gara: Eskoriatzako jatorria du hark".

**BI ALTOR TXIKI**

Ikerketa lana egiten zegoela, gainera, altxor txiki bi aurkitu ditu Hectorrek Eskoriatzako artxibon: "Anekdotak horixe da, bi armak aurkitu nituela, koloretan: bata Herrarterena eta bestea Zalbidegoitiarena. Oso-oso ez ohikoa da data horretako gauzak koloretan azaltzea".

DATU HISTORIKO BATZUK

### Kaparetasuna eta kaparetasun unibertsala

Kaparetasuna zen nobleziaren mailarik baxuena. Kapare izateko, leinu-etxea eduki behar zen. Estatuan ez bezala, Gipuzkoan, Bizkaian eta Aiarako haranean, kaparetasun unibertsala ezarri zuten. Horren bitartez, aipatutako lurralde guztietako bizilagunak juridikoki berdinak ziren, hau da, guztiak kapare ziren, nobleak. Kapare horien leinu-etxeak ziren Gipuzkoa, Bizkaia eta Araia.

**KAPAREEN PRIBILEGIOAK**

Hala, kapare izateari esker ez zituzten zergak ordaindu behar, eta are garrantzitsuagoa zena: administrazioan kargu publikoak izan zitzaizketen (alkatetzak...). Era berean, marinela, soldaduak (kargu altuak) eta gorteko kideak ere izan zitezkeen. Horregatik Historian izan dira horrenbeste marinela, soldadu... euskaldun.



ZALBIDEGOITIA Aurkitutako koloretako armak bat.

H.P.

**ETORKIZUNERAKO ASMOAK**

Hector Prietok egin du ikerketa lana. Bere ikasketekin lotutakoa da, baina akaso beste zerbait egiteko aprobetxatuko dutela esan digu: "Zerbait egitea pentsatuta badaukagu Eskoriatzako Udalarerekin, baina oraindik ez dugu erabaki zer".

Bestalde, bukatu aurretik, Hector Prietok eskerrak eman gura dizkie lana egiten lagundu diotenei: "Eskoriatzako Udalareri eta, bereziki, Juan Carlos Bengoa alkateari; eta Aitor Antxiari, hark asko lagundu dit-eta; eurak barik ia ezinezkoa litzateke nire lana".

## zerbitzuak

## GUARDIAKO FARMAZIAK

## ARRASATE

Zapatua, 28	Azkoaga	Ferrerias	943 79 15 15
Domeka, 29	Azkoaga	Iturriotz 17	943 79 79 99
Astelehena, 30	Corcuera	Maisu Aranbarri	943 79 22 26
Martitzena, 31	Irizar	Erguin 11	943 79 12 39
Eguaztena, 1	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Eguena, 2	Español	Araba etorbidea 14	943 79 18 65
Egubakoitza, 3	Ruiz	Maala 31	943 79 14 09

## BERGARA

Zapatua, 28	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Domeka, 29	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Astelehena, 30	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Martitzena, 31	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Eguaztena, 1	Camacho	Oxirondo 4	943 76 11 74
Eguena, 2	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87
Egubakoitza, 3	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05

## OÑATI

Zapatua, 28	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Domeka, 29	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Astelehena, 30	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Martitzena, 31	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Eguaztena, 1	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguena, 2	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Egubakoitza, 3	Anduaga	San Lorenzo 3	943 78 21 16

## ARETXABALETA

Zapatua, 28	Iturralde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Domeka, 29	Iturralde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Astelehena, 30	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Martitzena, 31	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Eguaztena, 1	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Eguena, 2	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Egubakoitza, 3	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99

## TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))  
SOS DEIAK**

## OSASUNA ETA LARRIALDIK

Osakidetza (Larrialdia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramaio.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 03 54 30
Udalzaingoak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

## GARRAIOAK

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramaio.....	945 44 50 33
Aretxabaleta.....	943 77 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Oñati.....	943 78 03 65

## DEBAGOIENA

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 44 42
Oñati.....	943 78 36 67
Kiroldegia	
Aramaio.....	945 44 53 35
Arrasate.....	943 77 16 77
Aretxabaleta.....	943 71 26 28
Bergara.....	943 76 56 41
Elgeta.....	943 76 82 84
Eskoriatza.....	943 71 53 28
Oñati.....	943 71 63 75

Kultura Etxeak	
Antzuola.....	943 76 60 65
Aramaio.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05
Aretxabaleta.....	943 71 10 27
Bergara.....	943 77 91 58
Eskoriatza.....	943 71 46 88
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Aramaio.....	945 44 50 16
Arrasate.....	943 79 09 00
Aretxabaleta.....	943 71 18 62
Bergara.....	943 77 91 00
Elgeta.....	943 76 80 22
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

## URBANOAK

## ARRASATE

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.  
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obreiro, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**  
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obreiro, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**  
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.  
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

## BERGARA

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**  
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Sorluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarretetik irteerak**  
07:20, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolioa (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

## ARAMAIOKO AUTOBUSA

Arrasate	Aramaio	Gasteiz
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	19:30
19:00	19:15	
21:10	21:25**	
<b>Gasteiz</b>	<b>Aramaio</b>	<b>Arrasate</b>
08:30	07:50	08:05
	09:00	09:15
	10:15	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:45	14:10
16:20	17:00	17:20
	17:35	17:50
	19:15	19:30
19:30	20:10	20:25

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoeta-koendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

## eguraldia

## DEBAGOIENEAN



## Zapatua, 28

Bezperako ekialdeko haize gozoarekin segituko dugu zapatuan, antizikloiaren eraginez. Haize leuna izango da eta eguraldi dotorea utziko digu.




## Domeka, 29

Ez da aldaketarik izango. Goizeko tenperaturak apur bat freskoak izango dira, baina eguzkiaren eraginez, tenperatura gozora iritsiko dira.

## EUSKAL HERRIAN

Egun dotoreak izango ditugu Domu Santu osterara arte. Orain arteko hego haize zaka-rra baretu egingo da eta lekua utziko dio ekialdeko haize leun gozoari. Hari esker, tenperatura gozoein segituko dugu eta egun eguzkitsuak garantizatuta izango ditugu datozen egunotan.



## oharrak eta deialdiak

## ESKORIATZA

## &gt; 'Asteburu bat Euskal Herrian' ikastaroa

Asteburu bat Euskal Herrian delako Interneteko ikastaroa emango dute gaur, egubakoitza, KZgunean, 11:00-13:00.

## ARAMAIO

## &gt; AHTren aurkako kale agerraldia

Kale agerraldia egingo dute gaur, egubakoitza, Herriko plazan, 19:00etan, eta sindurak batzen ari dira.

## BERGARA

## &gt; 1946an jaiotakoek batera afalduko dute

1946an jaiotakoek batera afalduko dute azaroaren 18an Tartufo jatetxean. Izena emateko, deitu lehenbailehen jatetxera: 943 76 35 51 da zenbakia.

## BERGARA

## &gt; 1930ean jaiotakoek ospakizuna egingo dute

Batera bazkaltzeko batuko dira 1930ean jaiotakoak azaroaren 11n. Zumelagan bazkalduko dute. Izena emateko, deitu honako zenbakietara: 943 76 15 88 edo 943 76 22 22.

## BERGARA

## &gt; Elosuko ferriko zozketan zenbaki saritua

Elosuko ferriko zozketan, urriaren 12an, zozketa egin zuten, eta honako zenbakia saritu dute: 3244. Saria da Euskal Herriko landetxe baten asteburu bat. Hilabete dago saria eskatzeko.

## BERGARA

## &gt; 1933an jaiotakoek ospakizuna egingo dute

33an jaiotakoek batera bazkalduko dute Zumelaga jatetxean azaroaren 12an. Izenematea zabalik dago Intxor-ta tabernan. 6 euro aurreratu behar dira.

## BERGARA

## &gt; 1955eko kintoek ospakizuna egingo dute

1955eko kintoek, 1934an jaiotakoek, ospakizuna egingo dute azaroaren 25ean. 14:00etan, txikiteoa, argazkiak... egingo dituzte, eta gero, bazkaria Sirimirin. Izenematea zabalik dago jatetxe horretan.

## BERGARA

## &gt; Nikaraguako egoeraren gaineko berbaldia

Nikaraguako egoera politikoaz eta hango emakumeen eskubideez berba egingo du Ruth Marina nikaraguarrak astelehenean, urriaren 30ean, kultura etxean, 19:30ean.

## OÑATI

## &gt; Guraso Eskolan izena emateko aukera dute 2-16 urte bitarteko aita-amek

Guraso Eskola antolatu du Udal Prebentzio sailak. Bi talde daude: 2-9 urte artekoen aita-amena, eta 10-16 urte artekoena. Izenematea zabalik dago azaroaren 10a arte 943 03 77 00 telefonoan. Besteak beste, honako gaiak landuko dituzte: mugak eta zigorrak, umeen beldurrak, elikadura nahasteak...

943 25 05 01

goienkaria@goiena.com

## TENPERATURAK

## MINIMOA

Martitzena, 24

8 °C

## MAXIMOA

Eguena, 19

25 °C

## ASTEKO

EURIA (l/m²)

8,4 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 18	24 °C	12 °C	0,9 l/m²
Eguena, 19	25 °C	13 °C	3,2 l/m²
Egubakoitza, 20	20 °C	12 °C	0,7 l/m²
Zapatua, 21	24 °C	12 °C	3,6 l/m²
Domeka, 22	22 °C	15 °C	- l/m²
Astelehena, 23	23 °C	16 °C	- l/m²
Martitzena, 24	23 °C	8 °C	- l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

## ILARGIA URRIAN

Ilbehera  
14Ilberri  
22Ilgora  
30Ilbete  
7

## ARRASATE

## &gt; Eraikuntzako lan bertikal ikastaroa

Eraikuntzan lan bertikalak egiteko gaitzeko ikastaroa antolatu du Arizmendik. Azaroaren 4tik abenduaren 3ra artean izango da, asteburuetan. Izena emateko, deitu 943 77 20 25 telefonora.

## BERGARA

## &gt; 1935ean jaiotakoek batera bazkalduko dute

Zumelaga jatetxean bazkalduko dute azaroaren 5ean. Izenematea zabalik dago Euskadiko Kutxan urriaren 31ra arte.

## BERGARA

## &gt; 1944an jaiotakoek batera afalduko dute

1944an jaiotakoek batera afalduko dute azaroaren 25ean. Izenematea zabalik dago honako telefono zenbakietan: 943 76 13 61 edo 943 76 23 70.

## BERGARA

## &gt; Pertxa Elkarteak anaitasun eguna egingo du

Azaroaren leian, aurreko urteetako kilometroen ibilaldia egingo dute. Aranzadi ikastolako patioan batuko dira 10:00etan.

## ELGETA

## &gt; Pirinioetara irteera antolatu du Egokik

Hoz de Jaca, Midi d'Ossau eta Pantikosara mendi irteera antolatu du Egokik. Izenematea zabalik dago udal-letxean.



kale inkesta

## Zer iruditzen zaizu zenbait errepidetan ordainsaria jartzea?



**Iñaki Arana**  
Langilea  
Bergara



**Alberto Gomez**  
Langilea  
Bergara



**Igor Setien**  
Langilea  
Bergara



**Pili Gorostegi**  
Langilea  
Bergara



**Ana Arrizabalaga**  
Langilea  
Bergara

Profesionalek ordaindu beharko lukete baina partikularrek ez. Erabiltzen duenak ordaindu behar duela esaten dute, baina garraioagatik kobratzen dutenek ordaindu beharko lukete bakarrik.

Betikoa. Dirua ateratze-ko beste bide bat da. Dena da dirua. Gasteizera edo Zumarragara joateko ere ordaindu egin beharko dugu. Hemendik aurrera, etxea erosi eta hantxe gelditu beharko gara.

Horixe bakarrik falta genuen! Aurretik ere prezio handia ordaindu behar dugu gure mendiak apurtzearen. Guk, ordaintzen jarraitu behar dugu eta beste batzuk, poltsikoak betetzen.

Gaizki iruditzen zait. Errepidearen mantenerako dela diote, baina denborarekin beti igotzen dituzte prezioak. Hemendik Ermura, adibidez, prezioa igo egin dute hasieratik hona.

Guztiok erabiltzen ditugu eta ordainsaria ondo legoke baldin eta prezioa parekatzen bada mantenu lanekin. Baina proportzioa larregikoa da. Prezioak merketu egin beharko lituzkete.

txaloak eta txistuak



LEIRE KORTABARRIA

## Aparkalekuko seinaleak, alderantziz



Oñatiko Eroskiko aparkalekuan, bidearen seinaleak alderantziz daude ipinita. Eta horren ondorioz, nahasmena sortzen da gidarien artean. Irakurle batek esan digu gehienek bide erditik gidatzen dutela eta beste askok komeni zaiena egiten dutela, tirabirak eraginez.

ustek uste

Oihana Elortza

## Plastikozko edalontziekin lagundu

**H**erriarren partehartzearekin antolatu gura du Aranzadi Ikastolak datorren urteko Kilometroak eta jendeak lanerako izena ematea nahi dute. Egun, gauza gutxi egiten dira muxu truk, baina euskaldunok militante sena dugulako edo, ikusten da jendearen aportazioa horrelako ekitaldietan. Berako Nafarroa Oinezan egon nintzen beste hiru lagunekin batera eta lauroi iruditu zitzaigun gauzak ondo antolatuta zituztela. Jende asko ginen egun-pasa joandakoak, baina beste pila bat lanera joandakoak zeuden, oñatiarrak tartean; edatekoak edo bokatak eskatzeko arazorik ez genuen izan. Kafea hartzeko bakarrik; ura ezin berotu ibili ziren gune baten eta hurrengoan hartu genuen, esnerik gabe, bukatu egin zitzaielako.

Egunean bertan ere beharko dute laguntza Aranzadikoek eguneko martxa eramateko, baina antolatutakoa herriak antolatua izatea gura dute. Bergararrek duten *señorito* edo *mokolo* fama ezta oztopo izango laguntzeko, ezta? Portzieto, Beran erabili zituzten plastiko gogorreko edalontziak gustatu zitzaizkidan eta helburua inguruak garbiago egotea baldin bazen, lortu zuten, plastiko gutxiago zegoen lurrian.

5 galdera...

## Odei Guridi

Erraldoi eta kilikien konpartsa Arrasate

### 1. Edozeinek egin dezake dantza erraldoiekin edo ezaugarri bereziren bat behar da?

Ezaugarri berezirik ez da behar. Badirudi pisu handia dutela, baina gogoa duen edozeinek hartu eta eraman ditzake. Oreka kontua da. Egingo dugun ikastarorako izena gazte bulegoan eman behar da, azaroaren 4a baino lehen; eskolak zapatu goizetan izango dira, hiru hilean, doan. Iruñeko konpartsaok etorriko dira erakustera. Ea jendea animatzen den.

### 2. Zeintzuk dira erraldoiek dituzten neurri orokorrrak?

Altueran lau metro inguru eta kiloetan aldea dago: neskek dute 60-65 kilo eta gizonezkoek, berriz, 65-70 kilo. Kapa eta jantzi desberdinak dituztelako da hori.

### 3. Nafarroan indar handia dute erraldoiek; handik dator ohitura?

Ba egia esan, ez dakit. Iruñekoak dute ehun urtetik gorako esperientzia eta gehiago errota dago. Arrasaten, 20 urteko esperientzia dugu.

### 4. Erraldoiek dantzatzen dituzten erritmoak erakutsiko dituzue; zein erritmo dira horiek; leku guztietan dira igualak?

Konpartsa guztiek egiten dituzte dantza berak: baltsak, polkak, kalejirak eta polonesak. Baina, Iruñekoek bestelako pausok egiten dituzte, baltsa korrika egiten dute, esaterako. Iruñeako konpartsan jendea egoten da zazpi urtean itxaroten. Urtean birritan irteten dute, baina jendetza izugarria elkartzen da ikustera.

### 5. Debagoienean, berriz, badago zaletasuna, edo galtzen doa?

Zaletasuna badago, baina jendea ez da animatzen-edo. Orain 15 bat gaude konpartsan, eta dezente jende gehiago beharko genuke, askotan irteeretan txar-to ibiltzen gara-eta elkarri txandak emateko. Egia da sakrifizioa dela jaietan ateratzea, baina poztasun handiak ematen ditu.



asteko datua

# 70

1936ko urriaren 24ko gauean, Jose Joakin Arin Arrasateko parrokoa, Joseba Markiegi apaiz debatarra (Arrasaten zegoen) eta Leonardo Guridi apaiz oñatiarra, tiroz hil zituzten frankistek, Oiartzunen. 70 urte badira, beraz.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

ZERBITZUAK &gt; DOMU SANTU EGUNERAKO

# Zerbitzu bereziak Domu Santu egunerako

Hilerrria egun osoan zabalik izango da urriaren 31n eta azaroaren 1ean, 08:30etik 20:30ak arte

UBANE MADERA &gt; ARRASATE

Domu Santu eguna badatorrela eta, Udala badabil zerbitzu bereziak prestatzen. Hala, jakinarazi digutenez, azken urteotan moduan, urbanoak ibilbide berezia egingo du Domu Santu egunera begira: bai bezperan, urriaren 31n, baita azaroaren 1ean ere, San Kristobal hilerriraino iritsiko da-eta. Urbanoaren prezioari dagokionez, berriz, egunero ko prezioa kobratuko dute.

Bestalde, hilerriri dagokionez, esan digute egun osoan zabalduko dutela; ordutegi bera izango du martitzenean zein eguaztenean: 08:30etik 20:30ak arte.

Hilerrriaren azken urteotako erabileraren gaineko zenbait

datu ere helarazi dizkigute. Esandakoaren arabera, jendearen ohi-turak aldatzen doaz, eta orain, gehienek nahiago dute gorpua erraustea ehorztea baino. Segu-

ru aski prezioak izango du zeresana ohitura aldaketa horretan, esaterako, nitxoan ehorztea 624 euro kostatzen da eta erraustea, berriz, 240 euro arrasatekoendako eta 280, kanpokoendako (eguneratutako prezioak dira). Esan digute, baita ere, beilatoki zerbitzua ez dela ia ezer erabiltzen.

URBANOAREN ZERBITZU BEREZIA

## Bezperan eta Domu Santu egunean bertan hilerrirako urbano zerbitzua izango da

Goizean, 10:00etan aterako da urbanoa hilerrira, eta orduo izango da. Honako ibilbidea egingo du: Gorostiza-Erguin-San Viator txiki-San Andres-Garibai-Maala-San Frantzisko-Legarre-Musakola-Joan Bengoa-Santa Teresa-Cristo Obrero-Obenerreka-Makatzena eta kanposantua. 12:00etan da goizeko azkena martitzenean, eta 13:00etan, Domu Santu egunean. Arratsaldeetan, berriz, martitzenean, 15:00etan aterako da urbanoa, 18:00ak bitartean; eta eguaztenean, berriz, 15:30etik 18:30ak arte. Bueltatzeko ibilbidea bera izango da, baina kontrako noranzkoan.



TXOMIN MADINA

## Iturbide egoitza berritzeko hitzarmena

Atzo, eguna, gauzatu zen Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Arrasateko Udalaren arteko hitzarmena, Iturbide zaharren egoitza eraberritzeko. Hain justu ere, hitzarmena sinatu zuten Gizarte Politikarako Diputatu Esther Larrañagak eta Inazio Lakuntza alkateak. Hala, obra horien kostua 3.170.742 eurokoa bada, Diputazioak emango dizkio Udalarari 2.285.371 euro; gainontzeko 885.371 euroak Udalak ordainduko ditu.



AGINTARIAK Argazkian, kultura etxeako esparruak ikusten.

TXOMIN MADINA

ZERBITZUAK &gt; KULTURA ETXEA

## Kultura etxearekin gustura geratu ziren agintariak

Edozelan ere, alderdi batzuk eraberritze horrek izan duen kostua kritikatu zuten

izango duen erabilera ere esplikatzen.

Bisitaren amaieran, oro har, gustura geratu ziren ikusitakoarekin. Hori bai, kultura etxe berriaren "larregiko kostua" ere salatu zuten zenbait alderditako ordezkariak.

T.M./U.M. &gt; ARRASATE

Eraberritzeko proiektuaren ardura izan duen Juan Jose Ugarte arkitektoak gidatuta ikusi zuten udal agintariak eta bestelako bisitariak kultura etxe berria. Esparru bakoitzak

Kontuak kontu, agintarien bisitak atek zabaldu dizkie kultura etxea bisitatu gura duten herritarrei. Biztanleen Arreta Zerbitzuan txandak emango dituzte horretarako.

ZERBITZUAK &gt; NORTASUN AGIRIAK EGIN EDO BERRITZEKO

## Nortasun Agiriak berritzeko txanda sistema berria

Biztanleen Arreta Zerbitzuan emango dituzte aurrerantzean orduak

Hala, orain arte udaltzaingoan eman dituzte zerbitzu hori erabiltzeko txandak. Baina Udalak jakinarazi duenez, aurrerantzean, Biztanleen Arreta Zerbitzuan emango dituzte. Horrenbestez, txanda behar duenak eska dezake 09:30etik 13:30era edo 16:00etatik 19:00etara.

U.M. &gt; ARRASATE

Berez, Nortasun Agiriak egin edo berritzeko, interesdunarengandik gertuen dagoen komisariara jo behar du herritarrek. Baina Arrasaten, hilean behin talde ibiltaria izaten da lan hori betetzen.

Nortasun Agiriak egiteko txandak joan den astelehenean eman zituzten azkeneko aldiz. Uda aurretik talde ibiltaria etorri barik dago, eta horren ondorioz, ilara luzea sortu zen.

ad **Ibabe****IBABE GARAJEA****MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**


Gesalibar auzoa z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

**ZUBIZARRETA  
LANTEGIAK**Gipuzkoa etorbidea 22  
ARRASATE

Tel.: 943 79 15 65

Garagardo ona, giro hobea

**TXIRRITA**

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35



**FAMILIA UGARIAK** Hiru seme-alabatik gora izanez gero, hobaria eskura daiteke Ondasun Higiezin Zergan. **IKER BARANDIARAN**

**EKONOMIA > UDAL ORDENANTZA FISKALAK**

# Datorren urteko zergak bi botoko aldearekin onartu dituzte

Oro har, %4 igoko dira 2007ko zergak; bestalde, hobarietan zenbait aldaketa eta hobari berriak aplikatuko dituzte urtariletik aurrera

**UBANE MADERA > BERGARA**

EAJ eta EAren aldeko botoekin (8), PSE-EE eta Talde Mistoaren kontrakoekin (6) eta Ezker Batuaren eta Aralarren abstentzioekin (4) onartu dituzte 2007rako ordenantza fiskalak. PPko ordezkariak ez ziren batzarrean izan.

Ezker Batuak lau emendakin aurkeztu zizkion Barne Kudeaketa eta Kalitateko Batzordearen proposamenari, baina bozketa egin eta ez zituzten onartu.

**KONTRAKO ARRAZOIAK**

PSE-EEkoen esanetan, zergak isla dute udalaren aurrekontuetan. Eta hortaz, udal politikaren isla dira. Hala, eurak ados ez daudenez politika horrekin, bereziki, kontu urbanistikoei dagokienez, ordenantza fiskalen kontra bozkatu zuten.

Talde Mistoko Ines Aldaik, berriz, aditzera eman zuen zergetak dirua udal proiektuetarako dela, baina proiektuak aukeratze-

ko orduan, gehiengoak ez duela zeresanik. Herritarrengandik ateratzea beste leku batzuetatik atera ahal dena ez dela bidezkoa ere esan zuen. Eta proposatu zuen urtebetez izoztea zergen igoera.

EBk, berriz, esan zuen Barne Kudeaketa Sailean eurek egindako zenbait proposamenek aurrera egin dutela, eta nabarmendu zuten batzordeko presidentek negoziatorako jarrera positiboa izan duela. Bestalde, oro har, "politika fiskal progresiboa eta udalen autonomia handiagoa" gura dute.

Eta Aralarrek proposatu zuen landa-eremuan dabilzan motorrei zerga berezia ipintzea, betiere, lanerako erabiltzen ez direnean.

**ZERGAK ETA HOBARIAK**

**> OROKORREAN, %4**

Udal zerbitzu gehienak %4 igoko dira: ur eta zaborraren zergak, kiroldegia (AUKEA), hilerria eta Iturbide Egoitza, esaterako. Berriz, jarduera ekonomikoaren gaineko zerga %7 igoko dute, EBk hala proposatuta.

**> HOBARIAK: FAMILIA UGARIAK**

Familia ugariei hobaria aplikatuko diete Ondasun Higiezin Zergan: %50 hiru seme-alaba badituzte, %70 lau badituzte eta %90 bost edo hortik gora badituzte; betiere, ez badute 153.000 euro baino gehiagoko jabetzarik.


**> BESTELAKO HOBARIAK**

Higiezin zergan, Biziguneko etxebizitzek eta eguzki energia aprobetxatzeko sistemak ipintzen dituztenek; %100eko hobaria obren zergan, fatxada margotzeagatik; eta GKEek %90eko hobaria izango dute jarduera hasteko lizentzian.

**> AZPIEGITURAK**

## Tranbiari aurkeztutako alegazioetan, Aralarrek eskatu du ospitale aurrean geralekua izatea

Tranbiaren gaineko proiektua idazten hasi direla-eta, Aralarrek helegiteak aurkeztu dizkio: "Tramitazioa larregi luzatuko zela-eta, helegiteak proiektu fasean proiektugileari helarazteko eskatu zigiten", argitu du Joxe Etxeberria zinegotziak. Hori horrela, oraingo astean bost aldaketa proposatu dituzte. Esaterako, gura dute tranbiak geralekua izatea, Musakolako autobus geltokian barik, kiroldegitik gertuago; eta beste bat Kabia altzariak saltokiaren parean. Proposatu dute tranbiak hortik behera segitzea ibilbidea, erreka gurutzatu, ospitaleraino iristea eta han geralekua izatea. Hain justu ere, horixe da garrantzitsua Aralarrendako, "gainera, Zerrajera gunean etxebizitza gunek garrantzitsu bat sortuko da aurki".



**RAMON LOPEZ**

## Oñatira joan zen sari nagusia

Javier Puerto eta Felipe Otamendik irabazi zuten I. Sekulako Mus Txapelketa (txapela dutenak). Bigarrenak, berriz, arrasatearrak izan ziren, Jose Mari Aramendia eta Rafael Andres, hain justu ere (albo bietan daudenak). Parte-hartze handia izan zuen Sampry tabernan jokatu zuten txapelketak: 64 bikote, tartean, Altsasu, Beasain eta Errenteriatik etorritakoak ere izan ziren. Juan Jose Primoyk babestu zuen mus lehiaketa (argazkian, erdian).

**S. CARRASCAL S.L.**

**Guk egindakoak:**

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

**Erakusketa berria**

Ekutio kalea pab. 14-15  
Urizarri auzoa 4  
Tel. faxa: 943 79 01 82

**MADINA ZURAK**

Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontraxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegi osoagarriak

Urizarri auzoa B-2 B S3 sektorea • Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE  
e-posta: mz@madinazurak.com

**ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
osagaiak**

San Andres Auzoa 10. pabilioia  
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

**UGARTE**

**Industria hornidurak**

San Andres auzoa 2. 5-6 Pab.  
Tel.: 943-71 21 41  
Faxa: 943 - 71 21 40

**UGARAN jatetxea**

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
**ARRASATE**



**Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Ogitarteko  
hotz eta beroak**

Arrasate pasealekua 33  
**ARRASATE Tel.: 943 79 67 76**

KULTURA ELKARTEA &gt; ARTE, TAILAGINEN ELKARTEA

# Taila lantzen 23 urte daramatzate Erguinen

ARTEkoek kezka dute egiten duten zeregin 'zaratatsu'rako Erguingo lokala egokia ez delako eta itxaron zerrendan lagun dezente dituztelako

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE  
ARTEk (Arrasateko Tailaginen Elkartea) 23 urte bete ditu. 1983an eratu zuten elkartea eta Udalak Erguinen utzitako lokal baten lanean hasi ziren.

Gaur egun elkarteak 28 bazkide ditu, eta horietatik hamar erretiratuak dira. Elkarteko lagunek jakinarazi digute erretiratuendako oso irtenbide egokia dela tai-

la egitea, eta egunero ibiltzen direla langintza horretan.

**ITXARON ZERRENDAN, BESTE ASKO**  
Are gehiago, taldea sortu zutenetik urtero hainbat lagun izaten dituzte itxaron zerrendan. "Guretzat ezintasun handia da, baina daukagun lokalean ez gara guztiok sartzen. Hala ere, arazo horri irtenbidea eman beharko liokete.

Pena da zaletasun bat daukan jendeak hori ezin garatu izana".

Lokalarekin lotuta badute beste kezka bat. "Gainean etxebizitzak daudenez, ordutegi oso mugatua daukagu, eta askotan ezin gara taila egitera etorri. Udalarari askotan esan diogu irtenbidea bilatzeko, beste lokal bat uzteko, izan ere gure aktibitatea zarat egitea da, kolpeak ematea".

#### URTERO BI IKASTARO

Urtero bi ikastaro egiten dituzte: bata, hastapeneko, 30 ordukoa; eta bestea, bigarren mailakoa urritik aurrera.



AISIALDIRAKO AUKERA ARTEk aukera ezin hobe ematen die hainbat laguni zaletasun hori garatzeko.

IKER BARANDIARAN

## Arrasatearrak 'El diario de la nostalgia'-n

Donostian *El diario de la nostalgia* liburua aurkeztu dute. Txalapartak argitaratu du, Donostiako Udalarren laguntzarekin. Maria Asuncion Amilibia Matxinbarrenak idatzi du, eta Errepublikara garaiaren bizitakoa jaso du. Haurtzarora eta gaztarora eten zizkieten hainbat lagunen bizipena da.

Amilibiak eta bere sendiak harreman estua izan zuten Arrasateko errepublikazaleekin. Horregatik, liburuaren hitzurrea Arrasateko Juan Ramon Garaik eta Julia Mongek idatzi dute.



URKAN

### euskalgintzaren txokoa



URMENETA Argazkian, motibazio saio bat Asiskorekin.

ARREPE

EUSKARA &gt; EUSKALGINTZAREN MINTEGIA

## Plan estrategiko berria prestatzen hasiko dira bihar

2002 eta 2006 urteen bitartean garatu beharreko plana bukatzeaz dago eta helburuak birplanteatuko dituzte

I.B. &gt; ARRASATE

Bihar, zapatua, Arrasateko Euskalgintzak mintegia egingo du Udalako Ingurugiro Eskolan 09:00etatik 13:00etara bitartean. Arrasateko Euskalgintza osatzen duten herriko 14 elkarteetako ordezkariak batuko dira mahaiaren bueltan.

Orain dela 4 urte, 14 elkarte horiek batu egin ziren, euskararen normalizazioaren aldeko lana berrindartzeko beharra ikusi zutelako. Horren harira, helburu hori lortzeko, plan estrategiko bat diseinatu zuten, 2002 eta 2006 artean garatu beharrekoa.

#### PLAN ESTRATEGIKO BERRIA

Uda aurretik Arrasateko Euskalgintza osatzen duten taldeak batu egin ziren eta bukatzeaz dagoen plan estrategikoaren gaineko balorazioa egin zuten. Egingandako lanaren eta lortutako helburuen balantze ona egin zuten, hain zuzen ere.

Horrez gainera, aho batez erabaki zuten talde guztiak helburu baten alde batuta lan eraginkorra egi-

ten dutela, eta emaitzak begi bistan daudela. Horregatik, beste plan estrategiko bat diseinatzea erabaki zuten.

#### LEHENTASUNAK

Zapatuan egingo duten mintegian Arrasateko Euskalgintzaren helburuak, funtzionamendua eta egitura birplanteatuko dituzte. Zer bere horretan mantendu eta zertzuk aldatu.

Hain zuzen ere, 2002an zehaztutako helburuak hauek dira: Euskalgintza gorpuztu eta artikulatu; arlo estrategikoak euskalduntzeko plana egin; euskararen ezagutza bermatu eta erabilera sustatu; eta euskararekiko pentsaera, jarrera eta jokaera baikorra eta aktiboa indartu.

#### 18 LAN-TALDE

18 lan-talde dabilta ekimekin abiarazten. Besteak beste, gurasoendako sei ikastaro, gazteendako bost motibazio saio, euskaraz jarduten laguntzeko kanpainak, lau matrikulazio kanpaina, *Egunkaria*-ren aldeko batzordea eta beste hainbat.



Arrasateko  
euskalgintza

arrasatekoEuskalgintza.org



# Bergara Piel

*Larruzko arropetan  
zure konfiantzazko denda*

*Double face-n aukera zabala*

Neurri handiak

Espoloia 6 Bergara Tel.: 943 76 20 70



3 megako Banda Zabala



Deiak Telefono Finkoetara  
24 Orduz  
hileko telefono-kuota barne



Proba ezazu etxean 3 hilabetez

hilean

**1€**

ordainduta\*

Eta, gainera, proba ezazu TB Digital Osoa hilean beste 10 € bakarrik ordaintuta.

ROUTER  
COMUNICACIONES, S.L

Errebal, 15  
Eibar  
☎ 943700369

Maalako Errebala, 8  
Arrasate  
☎ 943712781

Euskaltel

-en Banatzaile Ofiziala

\*Sustapen honek 2006ko abenduaren 31ra arteko kontratazioentzat balio du. Sustapenaren epea amaitu ondoren, produktu guztiek kontratatutasegitukodute, bezeroak besterik jakinarazten ez badu. Telefono finkoetara 24 ordutan egindako deiak, Ahots Tarifa Finkoaren baldintzen arabera. Ez dira sartzen nazioarteko deiak, tarifa gehigarrikoak, sare adimenduna eta mugikorak. Gehienez, hilean 5.000 minutu. Epea amaitu ondoren, produktuen prezioak hauek izango dira: kuota 15 €, Ahots Tarifa Finkoa 13 € eta Internet 3 Mega 39 €. Zeharkako zergak ez daude sartuta. Sustapen honek lehen hiru hilabeteetan balio du. Kontsultatu sustapen honen baldintzak.

&gt; ERRUGBIA

**Zarautzen zuzendu behar du Arrasatek liga hasiera makala**

Lehenengo bi jardunaldietan Arrasatek ez du benetako maila erakutsi, eta Zarautzen izango du oraingo asteburuan hasiera oker hori zuzentzeko abagunea.

Sailkapenean partidu bat irabazita egoera hobean dago Zarautz. Bi talde horiek ondo ezagutzen dute elkar, parean egongo dira indarrak, beraz.

&gt; ESKUBALOIA

**Ford Mugarri Arrasate Barakaldon lehiatuko da**

Bigarren postuan dagoen Barakaldo izango da, domekan, Ford Mugarriren kontrarioa. Arrasateko taldeak Romoren kontra izandako estropezua ahaztu gura du, kontrario gogorraren kantuan, baina. 12:30ean jokatuko dute partidua.

MENDIKO BIZIKLETA &gt; IRTEERA

# Datorren asteburuan Urbasara joateko irteera antolatu du Besaidek

Horrekin batera, Gipuzkoako Mendi Federazioak oraingo domekarako antolatu du Gipuzkoako Beteranoen martxa. Ordizian egingo dute mendi irteera

X.U. &gt; ARRASATE

Joan den asteburuko irteera atzeratu eta gero, datorren azaroaren 4ko eta 5eko astebururako antolatu du Besaide MTB taldeak

mendiko bizikleta irteera. Hala, urteko azkeneko irteeran Urbasara aukeratu dute asteburua igarotzeko. Zapatu goizean abiatuko dira Nafarroa aldera. Urbasara iritsitakoan egingo dute lehenengo mendi bizikleta irteera, eta domeka goizean egingo dute bigarrena.

Urbasako irteerak antzekotasun gutxi izango du urtean zehar egin dituzten irteerekin, oraingoa askoz ere lasaiagoa izango da eta. Hala, bizikletan horrenbeste ibili ez direnak ere lasai anima daitezke. Asmoa da 30-35 kilometroko bi irteera egitea, lasai, malda handirik ez dagoen ibilbidean. Hala, Urbasako kanpineko

aterpetxean igaroko dute zapatu gaua eta domeka arratsaldean itzuliko dira. Datorren astelehena eta martitzena dira irteera horretan izena emateko egunak. 19:30etik 20:30era arte egongo dira izenak hartzen. Jakin, derrigorrezkoa izango dela kaskoa eramatea eta komeni dela bizikletak egoera onean eramatea.

**BETERANOEN MARTXA, DOMEKAN**

Bestalde, Gipuzkoako Mendi Federazioak antolatuta domekan egingo dute beteranoen martxa. Ordizian elkartuko dira mendizaleak, eta antolatzaileek aurreikusi dute lau ordu inguruko mendi zeharkaldia egingo dutela.

**futbitoa zaldibar****PARTIDUAK**

Urriak 28, zapatua	Epaileak
10:50 AT Celaya-Lasagabaster	Iriztu Tab
12:00 Mc Awen Dauen-Iriztu Tab	At Celaya
13:00 Cicatrus-Dublin Irish Pub	Mc Awen
15:50 Billy & The-Iturriotz Tab.	Equus
17:00 HLB 108-Egus	Billy & The Cowboys
18:00 Abokajarro-Iluntz	HLB 108
Urriak 29, domeka	Epaileak
11:50 Betrayer-Manh.Pippol	Dribling
13:00 Saukelu Abian-Dribling	Betrayer

**17 talde lehiatuko dira bihar hasiko duten Zaldibarko areto futbol txapelketan**

Joan den urtean baino hiru talde gutxiago izango ditu aurtengo Zaldibarko txapelketak. Hala, honako talde hauek utzi dute txapelketa: AC Surcos, Aurrera Bolie TMT, Berdes Bremen, Txoponbeixek, Arrano taberna eta Tomahawk. Horrekin batera, baina, hiru talde berrik eman dute izena: Cicatrus, Mc Awen Dauen eta Equus, hain zuzen ere. Eta amaitzeko, Fuxxion taldeak izena aldatu du, eta aurrerantzean talde hori Iturriotz taberna izango da.

Guztira 17 talde daudenez, astean talde batek atsedean hartuko du. Dena dela, antolatzaileek beste astebete eman dute izena eman gura duen talderen bat berandu ibili bada, aukera hori izan dezan.


Antolatzaileek, baina, aurreko urteotan baino lan handiagoa egin dute txapelketa hasieran. Dagoeneko bai ligako eta baita kopako egutegiak ere egin dituzte eta taldeen artean banatuko dituzte. Gogoratu [www.zaldibarkofutbitotxapelketa.com](http://www.zaldibarkofutbitotxapelketa.com) helbidean duzuela informazio guztia.

## Arantzazura denboraldiari agur esatera

Erretratuko lagunak Debagoiena Zikloturista taldekoak dira, eta ibarreko gainontzeko zikloturistekin batera, dagoeneko agur esan diote denboraldiari. Hala, Arantzazura egin zuten denboraldiko azken irteera. Aurrerantzean eguraldiak ez du horrenbeste lagunduko eta gaitzagoa izango da ibarreko errepideak ziklistekin beteta ikustea. Datozen hilabetetan komeni da apur bat zaintzea, denboraldi hasiera gogorregia izan ez dadin.



DEBAGOIENA ZIKLOTURISTA TALDEA



# URONDO

Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

nire bidaia hura

**Mikel Etxebarria**  
Kalkutara > 2006ko udan

# "Kalkutan lasai asko ibil zaitezke gauean kalean bakarrik; ea non egin daitekeen hori"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

**Mikel Etxebarria (Arrasate, 1980)** Madrilen egin ditu azken bi urteak, banketxe ezagun batean lanean. Eta banketxeak berak bultzatzen duen gizarte-ekintzetako bati esker egin ahal izan du Kalkutara bidaia. Onena, Mikelek berak bidaia kontatzea.

"Egia esateko, Kalkutara joateko erabakia hartzea ez zen batera gaitza izan. Apirila inguruan iritsi zitzaigun langileoi enpresaren proposamena. Kalkutara borondatezko lankide moduan joateko aukera eman ziguten, hainbat erraztasunekin: bidaia-aren zati bat ordainduta, bisak eta bestelako agiriak tramitatzeko erraztasunak... Hala, berehala esan nuen baietz".

Abuztuaren 3an abiatu zen Mikel Kalkutara, Madrilgo Lucas Rojas izena duen gobernuz kanpoko erakundearendako lan egitera: "Proiektuaren helburua kalean dauden haurrak batzeko zentro bat handitzeko lanak egitea zen. Gauzak horrela, bertan egindako lana nahiko neketsua izan zen; garbiketa lanak egiten igaro genuen hilabetea, eta baita eraikina barrutik margotzen ere. Horrekin batera, baina, bertako gaztetxoei ingelesezko, gaztelaniako eta informatikako eskolak ematen genizkien".

Eta hori bakarrik ez, jolaserako tartea ere izaten zuten-eta: "Aste bukaeratan zoorra, zientzia museora... hainbat eta hainbat lekutara joaten ginen haurrekin".

**EROSOTASUN GUTXI**

Lehenengo bi asteak jo eta ke lanean igaro eta gero, boluntario taldeak Darjeelingera egin zuen bidaia: "Atsedean hartzera joan ginen hara. Izan ere, Kalkutan bi aste jarraian lanean egotea gogorra izan daiteke. Kontuan izan han ez dituztela hemengo erraztasunak; higiene gutxi dago, tar-teka usai oso txarra, zikinkeria



Mikel Etxebarria, Kalkutako mutil batekin.

handia, pobrezia... eta, jatekoa ere nahiko mugatua".

**JAKIN-MIN HANDIKOAK**

Hori da Mikelek Indiako bizilagunengatik dioena, jakinmin handikoak direla: "Edozein kanpotarreatatik interesa erakusten zuten, eta edozer gauzak pizten zuten euren kuriositatea. Batzuk diru gosegatik gerturatzen ziren kanpotarreatan, baina gehienak kuriositategatik etortzen ziren". Gainera, Kalkutan pobrezia handia badago ere, leku oso lasaia dela dio Mikelek: "Indiarrek ez dira batera agresiboak, oso lasaiak dira. Hala, lasai asko ibil zitezke goizeko lauretan kalean; ea munduko beste zein lurralde pobretan egin daitekeen hori".

Mikelek onartu digu hizkuntza benetakoa dela: "Nik ez ditut bengali eta hindi hizkuntzak ezagutzen, eta hango bizilagunek nekez egiten zuten ingelesa.

Hala, gaitza izaten zen hangoekin komunikatzea".

Zailtasunak zailtasun, Arrasatekoarendako demaseko esperientzia izan da: "Kalkuta moduko benetako hiri bat ezagutzea, hango kultura mistiko eta ezberdina gertutik bizitzea, haurrekin izan genuen hartu-eman eta hemengo lankideekin izandako tratu onak esperientzia ahaztezina egin du".

**ETA ANEKDOTAK?**

Ezin horrelako bidaia baten kontakizuna anekdoten gainean galdetu barik amaitu: "Autoricksaw izeneko ibilgailuetan egindako bidaia bakoitza anekdota bilakatu zen, anekdota eta abentura ere bai. Hiru gurgildun motari deitzen diote horrela, eta sei lagun joaten ginen bertan. Gainera, hango zirkulazioa zoratzekoa da. Behin baino gehiagotan egin genuen topo hango autobus eta taxien kontra".

**"Kalkutan bi aste lanean igarotzea nekeza izan daiteke; han ez dago erosotasunik"**

**"Autoricksaw izeneko motoan egindako bidaia bakoitza anekdota bilakatu zen"**



Kalkuta hiriko kaleetako bat, gauean euria egin eta gero.

bere ustez



Aitor Zabalo

## Ordu aldaketaren teman

**O**raingo asteburuan ordua aldatzea tokatzen da. Beraz, lehenago argituko du eta baita lehenago ilundu ere. Esaten digutenez Europa osoan energia aurreratzeko egiten den aldaketa da. Hortaz, teoriarik onuragarria izan beharko litzateke denontzako.

Ez dakit Arrasaten inork aldaketa horrekin dirua aurreratzeko lortzen duen ala ez. Badakit ordu aldaketak jendearengan baduela eraginik, lo egiteko orduan oso metodikoa denak, berri-

**"Esaten digutenez Europa osoan energia aurreratzeko egiten duten aldaketa da"**

ro ohitzeko lanak izango ditu eta.

Bestalde, horren goiz iluntzeak tristura puntu bat badakar-eta. Arratsalde erdian kale-irten eta iluntasunean egoteak murriztu egiten ditu egin ahal izaten diren gauzen zerrenda, kirol mota batzuk kasu (bizi-kletan ibili, korrika joatea...).

Egongo da, baita ere, gaez ibiltzea gustuko duena eta disfrutatu egingo duena. Egia da oraingo honetan behintzat asteburuak ordu bat gehiago duela, eta gaua ordu batez luza daitekeela (edo ordu bat gehiago lo egin daitekeela).

Hala ere hurrengo egunean behar den lekura garaiz iristeko ezin zaigu ahaztu etxeko erloju denak aldatzea. Gure etxeetan erloju gero eta gehiago ditugula konturatzeko balio digun ariketa da, behintzat.

**BITTORI**  
**ERRETEGIA**

Eguneko menua - Kartako menua  
Especialitateak:  
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

Monte  
taberna

Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56

**KONTRATAK**  
**IRYROK S.L.**  
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa  
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14  
ARRASATE

LOKALAK &gt; PREMIAK ETA GABEZIAK AZTERTUKO DITUZTE

# Zenbat udal lokal eta zein egoeratan dauden jakiteko txostena egiten dabilta

Udal aparejadorea eta ingeniari bat dabilta lokalak ikusten eta zein egoeratan dauden aztertzen; konpontze lanen aurrekontua aterako du gero ingeniariak



IKUSKETA Eguazten eguerdian izan ziren Udal aparejadorea eta ingeniaria Irizar jauregiko lokalak ikusten.

O.E.

OIHANA ELORTZA &gt; BERGARA

Udal lokalak zenbatu eta zein egoeratan dauden aztertuko du udalak. Asmoa da lokalek dituzten gabeziak zeintzuk diren ikustea eta egungo legeak eskatzen dituen baldintzak betetzen dituzten edo ez ikustea.

ESKAERA HANDIA

Udal lokalak erabiltzeko eskaera handia delako hartu du erabaki hori udalak, alkateak esan duen bezala: "Momentu honetan udalarenak diren baxu guztiak daude okupatuta. Eskaera dezente daude lokal horiek erabiltze-

ko, baina lehenengo jakin behar dugu zehatz zein egoeratan dauden eta horregatik egingo dugu txosten hori. Orain ere zenbatu-

ta ditugu zenbat diren udal lokalak eta txostenak informazio hori gaurkotuko du batetik, eta lokalen egoera zein den jasoko du bes-

tetik". Lokalek legeak jasotzen dituen irizpideak betetzen dituzten edo ez ere jasoko du txostenak, adibidez: larrialdi irteerak,

egoitzaren egoera, sua itzaltzekoak edo larrialdietarako argiak dituzten. "Txostenak jasotakoa aztertuko dugu bukaeran eta egin beharreko lanen aurrekontua egingo dugu gero", esan du Victoriano Gallastegi alkateak.

APAREJADOREA ETA INGENIARIA

Jose Maria Etxeberria udal aparejadorea dabil lokalak ikusten, ingeniari batekin batera. "1999an ere egin genuen horrelako txosten bat eta harrezkero aldatu dena ikusi nahi dugu orain. Inge-niariak konpondu beharreko lanen aurrekontua aurkeztuko du gero", azaldu du Etxeberriak.

Herriko udal lokalak banan-banan ikusten dabilta bi lagunak. Irizar jauregian, adibidez, GOIENKARIA dagoen tokia, KZgunea eta Epa dauden lokalak ikusten egon dira. Inge-niariak argazkiak ere atera ditu, pitzatutako paretei, adibidez. Zabalotegin hainbat taldek erabiltzen dituzten lokalak eta goiko estazioa ere ikusiko dituzte. Txostena egiteko eperik ez dute jarri, baina lehenbailehen egin nahi dute.

ENPRESA &gt; ENPRESA ONENAREN SARIA

## Lazpiur saritu dute lan prebentzioagatik

Kalitatea, ingurumena eta segurtasuna lotuta, arrisku faktore baxuagoa izatea lortu du

O.E. &gt; BERGARA

Lan arriskurako prebentzioan lana egin duen enpresa onenaren saria jaso du Lazpiur enpresak. Gasteizko San Prudentzio lan fundazioak eman dio saria.

Kalitatea, ingurumena eta segurtasuna lotzea eta enpresa-

ren kudeaketa egokiak istripuen faktorea sektorekoa baino baxuagoa izatea lortu du Lazpiurrek eta hango arduradunek uste dute hori izan dela saria jasotzeko arrazoiak. Lan eta gizarte segurtza ministerioak horregatik eman zion otsailean Amat agiria.



SARIA Hilaren 18an jaso zuen Lazpiur enpresak saria Gasteizko Europa jauregian.

GOIENKARIA



IRURAK MARGOAK  
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak  
Moketa eta sintasola  
Iztuku esponjatua

Paper pintatuak  
Harea zorrotada  
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
Faxa: 943 76 09 32

OGIZUN  
koop. elk.  
okindegia



Ibargarai 44-46  
BERGARA  
943 76 45 53

Zubillaga 10  
OÑATI  
943 78 24 13

Aldoka  
Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi  
BERGARA



LAPURRETAK > AUTOETAN SARTZEN DIRA

## Lapurrak dabilta Agorrosingo aparkalekuan

Aparkatuta zeuden bi autotan, behintzat, sartu dira lapurrak, bietara egunez

dute lapurreta horien berri, baina salaketarik oraindik inork ez duela jarri esan dute. Ezta Ertzaintzan ere.

### KONTUZ IBILTZEKO DEIA

Agorrosingo langileek eraikinaren sarreran jarri dute oharra lapurrak dabilzala ohartarazteko. Esan dute barruko instalazioetan oraindik ez dela lapurretarik izan, edo inork ez diela, behintzat, ezer esan baina hala ere, poltsak, arropak edo dena delakoa takila barruan sartzeko aholkua eman dute langileek.

O.E. > BERGARA

Agorrosingo aparkalekuan lapurrak dabilzala ohartarazi dute Agorrosingo langileek.

Orain arte bi autotan, behintzat, sartu dira lapurrak eurek jakin ahal izan dutenez, eta bi kasuetan egunez egin dute lapurreta. Udaltzaingoa ere jaso

> UDAL EGUTEGIA

### Datorren urteko udal egutegia egiten hasi dira eta iragarkia jarri nahi duena garaiz dabil

Udala hasi da datorren urteko egutegia prestatzen eta bertan iragarkia jarri nahi duen herriko enpresa, ikastetxe, talde, denda edo bestelakoak garaiz dabilta iragarkia jartzeko. Interesa duenak Udaleko Euskara Zerbitzura joan edo telefono zenbaki honetara deitu behar du azaroaren 10a baino lehen: 943 77 91 71.

Egutegia koloretan izango da eta 6.500 ale banatuko ditu udalak etxetxe. Ale batzuk udaletxean utziko dituzte nahi duenak hartzeko. Egutegiko argazkiak eskatuta dituzte dagoeneko.

> HEZKUNTZA

### Txabarri eta Ekuadorko kontsula datoz iluntzean UNEDera, ikasturte berria zabaltzera

Joxe Joan Gonzalez Txabarri Gipuzkoako Ahalduen Nagusia eta Juan Jose Alvarez UNEDeko zuzendariarekin batera, Pablo Buitron Ekuadorko kontsulak emango dio hasiera UNEDeko ikasturte berriari. Inmigratioaz mintzatuko da kontsula. 19:00etan da ekitaldia. 30 urteko ibilbidea du UNEDek. Iaz, 1.572 ikasle izan zituen.

KILOMETROAK 07 > 'ARGI DAUKAGU'

## Herritarren partehartzearekin antolatu nahi du Aranzadi Ikastolak Kilometroak 2007

Abenduaren 1ean Kilometroak 07 jaiaren irudia aurkeztuko dute udazken neguko arroparen moda desfilearekin, Jamen

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Datorren urteko Kilometroak festa herritarrek antolatutako festa izatea nahi du Aranzadi Ikastolak. Horregatik, herritar guztiei egun nahi die dei antolaketa lanetan parte hartzeko.

LANTALDEAK BADABILTA

Lau lantalde nagusi eratu dituzte eta antolatzen lagundu gura duenak berak aukera dezake zein lantaldetan jardun nahi duen. Hauetxek dira lantaldeak: ekonomia arloa, hemen sartzen dira: arropa salmenta, autoaren zozketa, tonbola eta otarrak; ikuskizun arloa: urteko ekitaldiak antolatzeko eta egunean bertan egingo dituzten arduratzeko; komunikazio arloa: giza antolaketa eta protokoloa; eguna bera antolatzeko taldea: zirkuitua, aparkalekuak, muntaketa, txosnak, osasuna eta segurtasuna eta ingurugiroa eta garbitasuna.

Lantaldeak lanean dabilta dagoeneko eta horietako batean sartu nahi duenak, Aranzadiko haurren hezkuntzako solairura joan edo Unai Azkarate koordinatzaileari deitu baino ez dio egin behar: 695 78 93 77.



LANTALDEAK Komunikazio lantaldea hasi da lanean.

ARANZADI

SAREA ERAIKITZEKO KANPAINA

Datorren urtean Bergaran egingo duten Kilometroak festak ez ditu bakarrik urteroko helburuak lortu nahi. "Ikastolaren alde dirua batu nahi dugu, baina gure asmoa da ikastolaren filosofia, elkarlana, herrian aplikatzea eta sare handi bat osatzea herritarrekin, guztiek elkarrekin antolatzeko Kilometroak 2007", azpimarratu nahi izan du Unai Azkarate koordinatzaileak.

DESFILEA ETA KONTZERTUAK

Herritarrek eta Aranzadi Ikastolako irakasle eta gurasoak hasi

dira dagoeneko lanean eta ekitaldi batzuk lotuta ere badituzte. Datorren abenduaren 1ean, adibidez, Kilometroak 07 festako mezua, *Argi daukagu*, eta irudia erakutsiko dizkiote Euskal Herri osoari. Udazken eta neguko arropa erakutsiaz antolatu duten moda desfilean egingo dute hori, Jamen. Gainerakoan, zirkuitua antolatzeko lantaldea ere hasi da lanean: arropak saltzen jarriko duten erdiguneko lokal aproposaren bila ere hasi dira, Kilometroaren aldeko Danbaka bira ere egin nahi dute. Abestia oraindik egiteke dute.

**FRONTOI**

**TABERNA**

Fraiskozuri z/g.  
**BERGARA**  
943 76 05 09

**SANTOS**

**TIEN 21**

Etxetresna elektrikoak  
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA  
Tel.: 943 76 26 10

**BERGARA MARMOLERIA**

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA  
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47  
Faxa: 943 76 04 77

**ZABALA**

JATETXEA • OSTATUA

Labegaraieta, Ibarra 14  
BERGARA.  
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

**AZPEITXI**

**Jatetxea**

Aranerrek 13 behea. Bergara  
943 76 55 00

**Jose M. Martin**

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotilea  
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 62 02 /  
666 517 295

**REMENTERIA**

Altzariak

Egongelak  
Logelak  
Aukera guztiak  
Enkarguan

Artekalea, 6  
BERGARA  
943 76 13 29

**JAUJA KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA  
943 76 14 95

MUSIKA &gt; UDAL MUSIKA BANDAREN URTEURRENA

# Bandaren historia batuko du Juan Luis Bikuñak liburu baten

Liburua 2007ko irailean argitaratuko du Udalak, Udal Musika Bandaren 175. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien barruan

EDU MENDIBIL &gt; BERGARA

Udal Musika Banda sortu zenetik 175 urte beteko dira 2007an, eta hori ospatzeko Bandaren gaineko liburua argitaratuko du Udalak. Juan Luis Bikuña kazetaria badabil dagoeneko informazioa batzen: "Bandari buruzko lehen agiri ofiziala 1832koa da, baina baliteke urte batzuk lehenago sortu izana, 1.500 errealetako dirulaguntza eskatzerako orduan *Como en años anteriores...* espresioa azal-

tzen delako. Dena dela, hortik abiatuko naiz historia batzeko: udal artxibora eta ahozko iturrietara joko dut datuak jasotzeko", diosku Bikuñak.

Liburua 2007ko irailean argitaratuko du Udalak, euskaraz eta gazteleraz. Bandaren historiarekin batera, argazkiak eta hainbat elkarrizketa izango ditu, tartean Carmen eta Miguel Gonzalez Bastida anai-arrebei eginikoak. Hala, argazki zaharrak dituztenek Ban-



URTEURRENA Udal Musika Bandak 175 urte beteko ditu 2007an.

GOIENKARIA

dak Musika Eskolan duen egoitzara jo dezakete.

Udal Musika Banda 72 lagunek osatzen dute orain. Alfredo

Gonzalez Chirlaque dugu taldeko zuzendaria 1987az geroztik, bere aita Miguelen lekukoa jaso zuenetik.



GOIENKARIA

## San Joxepe eta Aloña abesbatzak, Santa Marinaran

Erretiratuen Kultur Hamabostaldiaren barruan, Aloña abesbatzak eta San Joxepe abesbatzak emanaldia egingo dute gaur, egubakoitza, Santa Marinako parrokian, 20:00etan. Loli Ordokiren zuzendaritzapean, oñatiarrek zortzi kantu eskainiko dituzte, tartean *Maiti nun zira*, Aita Madinaren *Huanito*, *Hegoak* herrikoia edo Luis Elizalderen *Maritxu*. Bergarako San

Joxepekoek, aldiz, honako pieza hauek abestuko dituzte: *Goizian argi hastian* (Etxahun Iruri), *El tilo* (Schubert), *Illunabarra* (Mocoroa), *El abanico* (Trayter), *Sancta Maria* (Schweitzer) eta *Euzkal Herriko* (Zapirain). Jose Patxi Azkarate antzuolarra da taldeko zuzendaria. Kultur Hamabostaldia amaitzeko, bihar, zapatua, herri bazkaria egingo dute erretiratuek.

&gt; ARGAZKILARITZA

## Ormazabalaren erakusketa, domekara arte Aroztegin

Pedro Luis Ormazabalaren *Atzera begirakoa* erakusketa zabalik dago Aroztegin domekara arte. Azken 30 urteotan argazkilarik beragararrak egindako lanaren gainbegiratu da erakusketa. Guztira, 50 argazki eta zenbait koadro jarri ditu ikusgai Ormazabalek.

Gaur, egubakoitza, 18:00etatik 20:30era izango da zabalik Aroztegi aretoa; bihar, zapatua, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era eta etzi, domekan, goizez bakarrik izango da zabalik, 12:00etatik 14:00etara.

&gt; MUSIKA

## 'Seussen mundua' musikalerako sarrerak salgai

Bergarako Orfeoak *Seussen mundua* musikala eskainiko du azaroaren 11n Udal Pilotalekuan. Bi emanaldi egingo dituzte, bata 19:00etan eta bestea 22:30ean.

Bi emanaldietarako sarrerak zenbakidunak dira eta 15 eta 12 eurotan salgai daude. Interesatuak Bergarako Deba Garaia inmobiliariara (Telesforo Aranzadi, 2) jo dezakete erreserba egiteko. Pilotalekuko leihatilan, berriz, emanaldiaren aurreko astean izango dira salgai.

&gt; PINTURA

## Edurne Erañaren eta Juanjo Altunaren erakusketak

Edurne Erañaren pintura erakusketa Eibarko Arrate Kultur Elkartearen (Zuloagatarren kaleko 3. zenbakian) zabalik dago, domekara arte.

Bestalde, Juanjo Altunaren *Espacios en construcción* erakusketa ikusgai dago Miñan, Arabako Parke Teknologikoan. Paper gainean egindako lan akrilikoak dira, 47 guztira. Erakusketa abenduaren 31ra arte dago zabalik, astelehenetik larunbateara, 09:00etatik 20:00etara.



**Silvestre Muñoz, s.l.**  
pinturak

610 25 99 82  
610 25 40 37  
943 76 24 11  
Amillaga 1, 10 pabilioia.  
20570 BERGARA

Pintura-lanak  
orokorrean  
•  
Pintura industrial  
•  
Zoru arinak:  
sintasolak, moketak...

**JOXAN**  
ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

**Kabutzia**

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62



Amaia eta Iñigo Zabala

# ZABALA OPTIKA

Iñigo Zabala *Optiko Optometrista*

Barrenkale 25, Bergara • Tel.: 943 76 16 97

Montura eta lente progresiboak\*

**169 €**



JL-5658



22737



22638



26-10 FLEX



25-66



22916

\* Kristal zuri margulak, Vision's progresiboak edo baliokideak, +/- 6 esf. eta +/- 2 zil.-ko graduazioarekin.  
2006ko abenduaren 31 arte balio duen promozioa.



**Polaroid**  
Original Polarized Sunglasses

PRS:170/04

**Eguzkiko distirak traba egiten dizu?**

Proba ezazu **betaurreko polarizatuen** bilduma berria: ur-kiroletarako, ehiza eta arrantzarako, eskirako eta gidatzeko oso egokiak.

Zatoz Hallo<sup>↑↑</sup>ween  
**jaira!**  
**Urriaren 31n**



IRISH PUB GALWAYS



**Itzali ezazu infernua  
Halloween-en eta  
deabruen moduan  
dibertitzeko behar  
duzun guztia  
lortuko duzu.**

San Martin plaza z/g BERGARA Tel.: 943 76 30 86

PILOTA &gt; GABONETAKO SARIA

## Gaur eta bihar jokatuko dituzte Gabonetako sariko eta Gipuzkoako Txapelketako partiduak

Domekan, berriz, Patxi Ruiz eta Barriola izango dira Lau t'erdiko Txapelketaren barruan lehian; atzo aukeratu zuten materiala

XABIER URTZELAI &gt; BERGARA

Asteburuko kirol ikuskizunen artean pilota izango da hitzordu nagusienetako bat, Gabonetako sariko eta Gipuzkoako Txapelketako norgehiagokak jokatu dituzte eta bai gaur arratsaldean eta baita bihar arratsaldean ere.

Hala, gaur, 19:00etatik 20:00ak bitartean (Udal pilotalekuan) Bergarako gaztetxoek Gabonetako sariko norgehiagokak jokatu dituzte: alebin mailan Mikel Castrok Alba Lozano hartuko du, Daniel Curik eta Mikel Zuluetak jokatu dute gero, eta Unai Egañaren eta Pello Etxanizen zein-gehiagoka izango da azkena.

Jarrian, 20:00etan, Bergarako senior mailako pilotariak Anaitasunako, Urnietako eta Zazpi Iturriko pilotarien kontra neurtu beharko dituzte indarrak. Hiru norgehiagoka horiek, baina,



LAU T'ERDIAN Patxi Ruiz eta Barriola aurrez aurre domekan Bergaran.

XU

Gipuzkoako Txapelketakoak izango dira.

### ZAPATUAN, INFANTILAK

Eta Gipuzkoako Txapelketaren jarraituta, infantilen txanda etorriko da bihar, zapatua. Udal pilotalekuan baita ere, 16:00etan hasiko dituzte pilota partiduak. Oraingoan Debagoieneko hainbat herrietako ordezkari izango dira Bergaran. Hala, Bergarakoekin batera Aloña Mendi, Arrasate, Goierri, Illunpe, Beloki eta

Anaitasuna taldeetako pilotariak jardungo dute.

### DOMEKAN, PROFESIONALAK

Domekan, Lau t'erdiko Txapelketaren barruan, pilota jaialdia izango da Bergaran. Joan den domekan Irujorekin gozatu eta gero, oraingo domekan Barriolaren eta Patxi Ruizen arteko norgehiagoka jarraitu ahal izango dute pilota zaleek. Arratsaldeko 17:00etan hasiko dute pilota jaialdi hori.

&gt; FUTBOLA

### Amaiak Bat taldearen kontra jokatu du Bergarak

Joan den asteburuan Beti Ona 1-0 mendean hartu eta gero Bergarak aurreko postuetara egin du berriro ere jauzi. Hala, talde mahoneroa hirugarren postuan dago eta zazpigarren lekuan dagoen taldea izango dute bihar Deban zain (16:30ean). Hala ere, hiru puntu alde baina ez dute.

Bigarren erregionalean, BTLS sailkapenaren erdian geratu da joan den asteburuan Elgetaren kontrako derbia galdu eta gero. Porrot hori lehenbailehen ahaztu eta garaipen bila joango dira BTLSeoak Eibarrera (zapatua, 17:30). Urki izango dute kontrario.

&gt; ESKUBALOIA

### Lider dagoen Bergarak Hegialde Auto hartuko du

Lehenengo territorial mailan indartsu hasi da Bergarako talde nagusia: bi partidu jokatu eta biak irabazi. Azkena Tolosaren kantxan (32-44).

Hala, bergararrek sailkapenaren erdi-erdian dagoen Hegialde Auto taldearen bisita izango dute domekan Labegaraietan (12:15).

&gt; SASKIBALOIA

### Candy BKE taldeak etxean jokatu du, Allerruren kontra

Sailkapenaren hirugarren lekuan dago Candy, baina gaintzeko taldeek baino partidu bat gutxiago jokatu, bergararrek aukera dute lehenengo postura jauzi egiteko. Horretarako, atzerago dagoen Allerru mendean hartu beharko dute bihar arratsaldean (16:00, Labegaraieta).

## labegaraieta

### EMAITZAK

Altospornos-Azkenak	14-2
Belengua-Errotagain	2-6
Irish Pub-Irubide	6-2
Komando Piperrak-Niu Tim	3-1
Teatekh-Tiki Taka	4-3
Tornilleria Deba	Deskantsua

### PARTIDUAK

Urriak 28, zapatua, barruan	Epaileak
18:00 Teatekh-Niu Tim	Belengua
19:00 Belengua-Azkenak	Komando Pip.
20:00 Komando Pip.-Irubide	Azkenak

Urriak 29, domeka, barruan	Epaileak
09:30 Irish Pub-Errotagain	Altospornos
10:30 Altospornos-Tornilleria Deba	Irish P.
Deskantsua: Tiki Takak	

Azaroak 1, eguaztena, barruan	Epaileak
09:30 Teatekh-Irubide	Komando Pip.
10:30 Komando Pip.-Errotagain	Teatekh
17:00 Irish Pub-Azkenak	Tornilleria Deba
18:00 Belengua-Tornilleria Deba	Tiki Taka
19:00 Altospornos-Tiki Taka	Belengua
Deskantsua: Niu Tim.	

### SAILKAPENA

	P	J
1. Altospornos	3	1
2. Niu Tim	3	1
3. Errotagain	3	1
4. Irish Pub	3	1
5. Teatekh	3	1
6. Tiki Taka	0	1
7. Belengua	0	1
8. Irubide	0	1
9. Komando Piperrak	0	1
10. Azkenak	0	1
11. Tornilleria Deba	0	0

### Lehenengo jardunaldia, arazo barik

Joan den asteburuan hasi zuten Labegaraieta Txapelketako lehenengo jardunaldia, eta antolatzailerak gustura geratu dira, txapelketak hasiera ona izan du-eta. Horrek ez du esan nahi, baina, ez dela zigorrik egon. Hala, jokalariek batek 4 partidutako zigorra bete beharko du epailea iraintzeagatik. Taldearen ordezkariari emango diote zigorraren berri. Horrekin batera, kontuan izan datorren eguaztengan ere jardunaldia izango dela.

## Klase ostean euskara ikastera joaten gara



### ETORKINENTZAKO EUSKARA SAIOAK.

Dagoeneko badira 15 bat urte Udala ikastetxeekin batera euskara maila apaleko umeei eskola orduz kanpo errefortzu-saioak eskaintzen hasi zela. Orain dela 3 urtetik hona, aurrekoek gain, etorkinentzako saioak eskaintzen dira. Oraingo ikasturtean 39 ume eta gazte etorkin dabilta saio horietan. Kasu guztietan ere helburua honakoa da: eskola garaia bukatzean ume guztiek euskaraz ondo jakitea

**EBPN**

euskara biziberritzeko plan nagusia. Bergara

Informazio gehiago:

www.bergara.net

Euskara Zerbitzua: 943 77 91 66



BERGARAKO UDALA

# Herran

BERGARA

Sukaldeko altzariak: Matxiategi 4 • 943 76 37 53



12 urteko garantia

vegasa

## bergararrak kanpoan

Unai Osés > Ingeniaritza ikaslea  
Txinan bizi izan da

## "Txinatar bakoitza enpresaburua izan daiteke; edozer saltzen dute"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Abuztuan joan zen Unai Osés bergarra Txinara eta bertan jardun du lanean. Gaur bertan zen Bergarara itzultzeko eta etxera etorri aurretik han bizitakoak kontatu dizkigu.

Makina Erremintaren Institutuan ingeniari ikasketak egiten ari da eta titulua eskuratzeko derrigorrez eman behar dituzte gutxienez hamar aste atzerrian. "Txinan gure nagusia izan dena eskolakoekin jarri zen harremanetan eta niri eta zumaia bati lanerako aukera eman ziguten", dio Unai.

Tianjin hirian egon da, Beijingetik ordu eta erdira. "Hamar milioi biztanleko hiria da, nahiko industrialia eta bisitan etortzeko ez oso polita. Baina herri lasaia da eta oso gustura bizi izan naiz".

### JATORRAK BAINA MOTELAK

Jendearen jatorrasuna azpimarratu du Unai. "Nonbaitera nola joan galdetu eta azalpena eman ordez bertaraino laguntzen dute".

Lanean jardun du Txinan. "Trebakuntzan eta ekoizpenean aritzen da enpresa. Ekoizpena indartu nahi dute eta ni mantentzeko eta biltegiko kudeaketa hobetzen saiatu naiz. Zaila da txinatarrekin lan egitea, ez langile txarrek direlako, motelak baizik".

Lanetik irtenda kirola egiteko aprobetxatu du aisialdia Unai: "Zorte ona izan dugu lantokia unibertsitate campusean dagoelako eta futboleko eta saskibaloian ibili gara".

Dena ez da lana eta kirola, ordea, asteburuak parrandarako aprobetxatu dituzte. "Tianjinen koadrila jatorra izan dugu; kataluniarrak, nafarrak, alemanak...". Hala ere, askotan Beijingera joan da. "Bergarako Vanessa Olañeta dago han. Berak eman zizkigun hasierako argibideak eta eskertzea da. Beijingen ere jende jatorra aurkitu dut, gehienak bekadunak, eta parrandak egin ditugu". Leku berriak ezagutzeko ere aprobetxatu ditu asteburuak eta astero masajea hartzen zuela ere esan digu. "Masaje onak ematen dituzte eta batzuetan afaria barne izaten da hamar euroren truke".

### ZIKINKERIA ETA KUTSADURA

Alderik harrigarrienak ere aipatu dizkigu. "Bakoitzak ahal duena egiten du. Autoak nahi duten leku-

tik joaten dira, semaforoak eta zebrabideak ez dituzte errespetatzen... eskerrak poliki gidatzen duten". Kutsadurak ere asko harritu du Unai. "Zerua behe laino antzerako batekin estalita egoten da eta normalean ez da eguzkia ikusten".


Bestalde, txinatar bakoitza enpresaburua izan daitekeela esan digu: "Edozer gauza saltzen dute. Negozioak egiteko era berezia da. Lehenengo lagunak izatea gustatzen zaie eta gero etortzen da negoziazioa". Gauza bakarra egiteko pertsona askok lan egiten omen du. "Esaterako, jatetxe batera joan eta atean bi txinatar daude *kaixo* eta *agur* esateko. Era berean, tokatu izan zaigu komunera joan eta han bi txinatar egotea, bat atea irekitzeko eta bestea txorrota zabalatzeko eta papera emateko".

Lan bai, baina lo ere edozein lekutan egiteak ere harritu du Unai. "Lanean pieza bat tornuan sartu eta tornua lanean dagoen bitartean beraiek lo egiten dute".

Txinan egin dituen lagunak aipatu dizkigu gustukoan zer izan

**"Bertako bizimodua nahiko merkea da; arropetan ikus daiteke hori. Janaria ere oso ona da"**

**"Txinara joan aurretik tratua egiten ikasi behar da; izerdi asko bota behar da gauzak prezio onean eskuratzeko"**



Unai Osés (ezkerrean) Big Wild Goose pagodan Unai Gartzia zumaiairekin.

duen galdetuta. Janaria ere oso ona dela esan digu eta arropa eta bizimodua nahiko merkea. "Baina Txina nahiko zikina da, eta txinatarrek, burugorriak", dio.

Horrez gainera, handik itzultita, Txinara joateko gomendioak eman dizkigu: "Ingelesa beharrezkoa da arazorik gabe ibiltzeko eta jendea ezagutzeko; hala ere, helbideak txinatarrez edukitzea gomendatuko nuke: taxi gidari gutxik daki ingelesez eta herri gehienetan ibiltzeko beharrezkoa da taxia distantziak oso han-

diak direlako. Betiere taxi ofizialak hartzea da egokiena, bestela ziria sartzeko arriskua baitago".

Zera ere kontatu digu: Txinara joan aurretik "tratua egiten ikasi behar da. Izerdi asko bota behar da nahi den hura prezio onean erosteko. Bi hitz hauek ikastea ere ona litzateke: *Bu yao* (ez dut nahi). Askotan erabiltzen dira-eta".

Egonaldiak bizimodua beste ikuspuntu batetik begiratzen erakutsi dio eta jendea animatu nahi luke beste herrialde batean denboraldi bat igarotzera.



## ETXEBIZITZAK ELGETAN

### Elgetan (Torrealdea)

**B blokea:** 16 etxebizitza eta apartamentu.

Bukaera: 2007ko apirila.

- 2 logeladun apartamentuak, garajearekin (bi leku): 215.000 €

- 3 logeladun etxebizitzak, garajearekin (bi leku): 239.000 €

**C blokea:** 24 etxebizitza eta apartamentu.

Bukaera: 2008 urtea.

Elgetako etxegintza SL Tel. / Faxe: 943 79 83 08 Aldai kalea 7, behea ARRASATE

## Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

**AKEITA**  
**Taberna**

Pintxoak eta ogitartekoak

Santa Ana 23  
Tel.: 943 71 50 94  
ESKORIATZAhemen bada  
**giro!**


**Ezkutu**  
TABERNA

Zatoz gure musikoz gozatzera

Mitarte 9 ARETXABALETA Tel: 943 79 92 01



TABERNA  
**ARLUTZ**

*Gustuko musika*

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

**IOSU**taberna  
harategiaUrdaitegia-gozotegia  
Kroasantegia  
Gertatutako janariakMitarte 1  
Tel.. 943 77 03 08


**EXPRESS TABERNA**

Santa kurtz 16 Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 23 43



TABERNA-BERRI  
JATETXEA

Durana 26 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 67

**OTZETA JATETXEA**

Aranburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67

**BASABE**  
Menuak eta afariak

Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 77 07 94



**Dorleta**

Loteria primitiboak  
eta kizielak

DORLETA TABERNA  
Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABALETA

**HIRUSTA JATETXEA**

Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57



Herriko plaza Aretxabaleta Tel.: 943 79 09 33

**Gurea**  
TABERNA

Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

**ZARAIA**  
taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 88 95*Matikua jatetscea*

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68



Mitarten eta Duranan argibide seinaleak jarriko dituzte

Errekabarren eta Duranara doazenek izan ezik gainerakoek Basabetik gora egin beharko dute

Bedarretatik Lausittara eta handik Errekabarrenera joan beharko dute autoek

**MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAKO**

Orain dela astebete hasitako lanak aurrera doaz, eta gero eta apurketa gehiago eta handiagoak egingo dituzte Otolora kalean. Horrek aldaketak ekarriko ditu herriko zirkulazioan, hortaz, argi ibili beharko gara seinaleek diotenean.

**BEDARRETATIK LAUSITTARA**

Kalea bost ataletan banatu dute udaltzainek, zirkulazio aldaketak egiteko. Lehenengoa, Larrin plazan hasi eta Untzillara doan bidegurutzerainokoa izango da. Mitarte kalean argibide seinaleak jarriko dute Arrasatera eta Untzillara joateko beste bide batzuen berri emanaz. Durana kalean beste seinale bat egongo da, eta zera adieraziko du: Durana eta Errekabarren kaleetara doazenek izan ezik, gainerakoek Basabe bidetik gora joan beharko dutela. Santa Kurtz kalean ere egongo dira bide-seinaleak, eta Otolora kalea moztuta dagoela adieraziko dute.

Automobilekin batera autobusek ere izango dituzte aldaketak ibilbidean. Arrasatetik datorrena Bedarretako San Migel auzunean sartuko da, eta handik Lausitta kalera egingo du. Errekabarren kaleko geltokia ez dute lekuz aldatuko. Hori horrela, Lausitta kaleak norabide bakarra izango du, eta Bedarretako San Migelen aldaketak egingo dituzte: auzoko lehenengo kalea barrura sartzeko jarriko dute orain ateratzeko da, eta azken kaletik atera beharko dira automobilak.

**LANAK > OTALORA KALEA**

## Zirkulazio aldaketa handiak egongo dira lanek iraun artean



LARRIN PLAZA Eguaztenean zuloa egin zuten Errekabarren eta Otolora kaleen artean eta ordu batzuetan itxita egon zen Lausittarako sarrera.

M.A.

### Behar bezalako bide-seinaleak

Eguaztenean egin zuten lehenengo zulo handia Larrin plazan eta Lausitta kalerako sarrera moztu zuten. Ez zuten jarri bide-seinalerik, ezta argibideak ematen zituen inor ere, eta gidari batzuk haserre agertu ziren langileen aurrean.

Kontuak kontu, Udalak bide-seinale bidez adieraziko ditu automobilen zirkulazioak jasango dituen aldaketa guztiak. Mitarte, Durana eta Santa Kurtz kaleetan argibide seinaleak jarriko dituzte nondik jo jakiteko, eta Bedarreta eta Lausittan ere bide-seinaleak adieraziko dute kalera sar daitekeen edo ez. Udalak, baina, ez ditu edonolako seinaleak jarri gura; behar bezalakoak eta iraungo dutenak, baizik. Eta dirutza erabiliko du horretarako, sei mila eurotik gora.

Datorren astean egingo dituzte zirkulazioan lehenengo aldaketak, eta seinaleak dagoeneko gertu daude ordurako.

### APARKALEKUAK BERE HORRETAN

Bigarren zatia Untzillako bidegurutzeko lanek osatuko dute, eta hirugarrena bidegurutzetik musika eskola pareko biribilgunerainokoei. Bi zati horietako lanak egiteko ez dute aldaketa gehiago egingo zirkulazioan, lehenengoan egingoak bere horretan utziko dituzte.

Laugarren zatia, berriz, biribilguneak osatzen du, eta bosgarrena biribilguneetik Santutxu ermitarainoko lanek. Horiek egiteko aldaketa garrantzitsuak egin beharko dituzte zirkulazioan, baina udaltzainek gurago dute aurre-

rako ematea azalpenak. "Aparcalekuak daudenetan uzten saiatuko gara", adierazi digu Martin Garai udaltzain buruak, "Akasobaten bat kenduko dugu zirkulazioa errazteko baina Lausittan zein plazako kultur etxe ostean bere horretan utziko ditugu".

Amaral enpresak zortzi hila bete iraungo dutela lanek adierazi zuen, baina udazkena eta negua tartean, ikusi egin behar noiz bukatuko dituzten. Bien bitartean pazientzia handia beharko dute gidariek, Otolora kaleko merkatariek eta herritarrek orokorrean.

**61 EZKONTZA, 512 ESTUDIOKO ARGAZKI, 36 BATAIO, 92 JAUNARTZE, 29 MODAZKO BOOCK, 27 INDUSTRIARAKO ARGAZKI-LAN...**

**ESKERRIK ASKO ZUEN IRIBARREAGATIK, POSATZEAGATIK ETA GUGAN JARRI DUZUEN KONFIANTZARENGATIK SARIA ZUENA DA**

**www.mjargazki.com**

**Argazkilari tituludunak eta kalitatea eska itzazu ( Hasselblad kamerak, Carl Zeiss optikak, estudiorako 5 flash...)**

**MARIA JESUS ARGAZKILARIA** **DIGITAL FX**

**RANF saria 2006**  
(Ezkontzako eta estudioko argazkietan)  
Herriko plaza 10, Aretxabaleta

PRESOAK &gt; TOPAGUNEA AURKEZTUTA

# Giza eskubide eta politikoak aldarrikatzeko gunea eratu dute

Gogorazi zuten Kepa Urria eta Zuhaitz Errasti milaka kilometrora daudela, 18 ordura

Kale-agerraldirako deia egin dute: gaur, urriko azken egubakoitza, Durana kalean, 19:00etan

MIRARI ALTUBE &gt; ARETXABALETA

Astelehenean aurkeztu zuten herrian euskal presoan aldeko Topagunea. Giza eskubide eta politikoak aldarrikatuko dituen gunea zabala izan gura du deialdia egindakoen esanetan. Laguntalde batek hasi duen ekimenarentzat elkarte, eragile zein herritarren babesa eskatu dute.

EGOERA TAMALGARRIA

Beste herri batzuetan bezalaxe gurean ere kezkatuta daude euskal presoan egoerarekin. Aipatu zuten bi iritzi artikulu idazteagatik 96 urteko eskaera fiskala daukala De Juanak, Jon Agirre aramaioarrak 26 urte daroala espetxean larriki gaixorik gogorazi zuten, eta "Parot doktrina"

dela eta 2011ra arte egongo dela. Kepa Urria eta Zuhaitz Errasti aretxabaletarrak, oster, milaka kilometrora daude, bata Coruñan eta bestea Frantzian. Senide eta lagunek 18 ordu egin behar dituzte autoan hiru ordu laurden egoteko. Eta 3 hilabete bisitatzeko 10 laguneko zerrenda mugatuak dituzte.

Horren guztiaren aurrean, Topagunetik ondoko eskaera egin zuten: derrigorrezkoa dela larriki gaixo daudenak, eta zigorra beteta dutenak kaleratzea, eta derrigorrezkoa dela euskal preso politiko guztiak Euskal Herriratzera eskubide guztien jabe izanik. Bide batez, elkartasuna helarazi zieten Arrasaten gose greba egiten dabilzan lagunei.



TOPAGUNEA Behin aurkeztuta talde eta herritarren parte-hartzea gura dute. M.A.

GAUR KALE-AGERRALDIA

Herriko hainbat talderen babesa jaso dute dagoeneko: Loramendi EE, Aretxarte, Murruxio ME, Zاراia MT, Aretxa eta bes-

te batzuen. Momentuz ez dute ekitaldirik antolatuta, baina gogorazi zuten hileko azken egubakoitzetan -gaur- elkartzen direla Durana kalean, 19:00etan.

## Elesgarain bizi den Margarita Lasagabasterrek oparia jaso zuen

"Oparirik txikiena ere, opari", esan zien Margaritak opariekin joan zitzaizkien Udaleko ordezkari. "Herriko emakume zaharrena naizela?", galdetu zuen behin eta berriz, eta halaxe da, otsailean 96 urte beteko ditu. Seme bi alboan dituela bizi da kanposantu gainean dagoen Elesgarai base-rrian, eta entzuteko arazoak baditu ere, gainerakoan neskatoa bezalaxe dago. Tomas semea eta lobak alboan jaso zituen opariok.



M.A.

&gt; KZGUNEA

## Azaroan, 11 egunetan egingo dute IT txartelaren azterketa

Datorren hilean goizez zabalduko dute Aretxabaletako KZgunea, 09:00etatik 13:00etara. Eta IT txartela eskuratzeko azterketa egunak dagoeneko izendatuta dituzte. Azaroaren 3an izango da lehenengoa, 09:00etan, eta hona hurrengoak: 6an, 8an, 14an, 16an, eta 17an, 11:00etan izango dira; eta 20an, 22an, 23an, 27an eta 29an, 09:00etan.

Ikastaroak, oster, azaroaren 2an hasiko dituzte: *Etxetik eros ezazu eta Asteburu bat Euskal Herrian*; eta 3an, *Zure egunkaria irakurri eta Sarean lagundu*.

# GARBITU S. KOOP

## Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea ARETXABALETA  
Tel: 943 79 01 28 / Mugikorra: 606 665 448

# Mobiliario ARENZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

# ((112)) SOS DEIAK





MISIOLARIA 55 urte daramatza Inazio Galdosek Indian, Gujerat eskualdean, eta 600 ikasle dituen ikastetxearen ardura du. M.A.

ELKARTASUNA > MUNDUKO LANDAGUNEAREN III. BILTZARRA

# Landa-guneen biltzarrean izan da Indian 55 urte darioan Inazio Galdos

Gujerat eskualdeko Bardipada herriko ikastetxean egiten du lan, eta 75 urte izan arren ez dauka erretiratzeko asmorik, ezta itzultzeko ere

MIRARI ALTUBE > ARETXABAETA

Indian bizi den Inazio Galdos jesuitaren bisita izan dugu astean. Hiru urtean behin etortzen da etxera, Aretxabaletara, eta datorren urtean tokatzen zaio. Oraingoan, baina, Eusko Jaurlaritzak gonbidatuta etorri da Donostian egin duten Munduko Landagunearen III. Biltzarrera.

POBREAK ETA ABERATSAK

"Herrialde askotako ordezkariak elkartu ginen, Hirugarren Mun-

duko eta Lehenengokoak batera, 250 lagun baino gehiago. Herrialde pobreetakook geure arazoak azaldu genizkien, eta gainerakook errespetu handiz entzun zizkiguten", adierazi zigun Inaziok astelehenean. Eguenetik zapatu- bitartean egindako biltzarrean landa garapen iraunkorra eta gizarte eta ekonomia agenteen eta erakundeen zeregina izan zituzten berba- gai. Hizlarien artean NBEko Milurtekoko Helburuen Munduko koordinatzailea, FAO-

ko Landa Garapeneko Italiako ordezkaria, eta Filipinak, Kenya, Peru, Brasil eta beste hainbat herri- tako ordezkariak elkartu ziren Jaurlaritzakookin batera.

55 URTE INDIAN

Domekatik eguenera bitartean etxean izan da Inazio eta senide, lagun eta Indiara laguntza bidaltzen duten kolaboratzaileei egin die bisita. "20 urterekin joan nintzen Indiara, eta dagoeneko 55 egin ditut. 75 urte izanda erretiratzeko tokatzen zait, baina ez didate onartu dimisioa", argitu zigun. 600 ikasle dituen ikastetxe-ko arduraduna da Inazio, Gujerat eskualdeko Bardipada herrian.

JAIA > X. GASTRONOMI ETA FOLKLORE JAIALDIA

## Hainbat herritako dantzak eta jakiak

Patxaran Lehiaketa egingo dute egunean bertan, eta patxaran botilak 11:00etatik 14:00etara aurkeztu behar dituzte egileek

M.A. > ARETXABAETA

Hainbat herrialdetako folkloreak eta gastronomiak egingo dute bat domekan, Udalaren eskutik. Donostiatik Galiziako etxeko kideak hurreratuko dira, baita Errioxako etxekoak ere; Errioxako jotak, ostera, Voces de la Rioja taldearen eskutik entzungo dituzte plazan elkartutakoek. Laudiotik urtero etortzen den San Fernando taldeak Gaztela Leongo jaki

goxoena ekarriko ditu, eta Arrasateko Corazon de Encinak Extremadurako urdaiazpikoa, txitxi-burruntziak eta erroskilak eskainiko dizkie herritarrei. Euskal Herria, ostera, Aretxabaletako Aratz taldeak ordezkatu du.

Taldeek kalejira egingo dute lehenengo, eta 12:00etan plazan elkartuko dira; 18:00etan bigarren ekitaldia egingo dute. Bien bitartean jateko eta edateko ugari egongo da arkupeetan.

PATXARAN ONENA

XII. Patxaran Lehiaketa ere egingo dute domekan. 11:00etatik 14:00etara aurkeztu behar dituzte interesatuek patxaran botilak plazan. 17:00etan patxaran dastatzea egingo du epaimahaiak, eta ostean, irabazleak hautatuko ditu.



M.A.

## Hasi dute Joteko prest! txapelketa

Astean hasi dute Loramendi EEK antolatutako Joteko prest! pala txapelketa. Zazpi bikotek eman dute izena, eta martitzen eta eguenera jokatuko dituzte partidua Iturrigorri frontoian. Hona martitzeneko emaitzak: Arnaiz anaiek 5-Joseba Urkia eta Juan Antonio Priegok 24; Iñigo Louvelli eta Ibon Anterok 19-Zigor Lasagabaster eta Unai Iturriztek 24

**BENGOA**  
**URDAITEGIA**

Bertako okelak eta odolosteak

Durana 9. Aretxabaeta - Tel.: 943 79 19 79

**Lie**

**LURRINDEGIA**  
**OPARI DENDA**

Mitarte 18 • 943 79 38 59  
ARETXABAETA



AISIALDIA &gt; BUELTRAN DATOR 'Ezkurtxorekin JOLASEAN' EKIMENA

# Bihar, zapatua, 'Ezkurtxorekin jolasean' joango dira herriko umeak

Herrigunea eta elizateak hobeto ezagutzeaz gain, antzinako jolasak ere berreskuratuko dituzte

Arizmendik antolatzen du ekimena, baina Luis Ezeizako umeak ere gonbidatuta daude

Zapatuan, 16:00etan, hiru taldetan banatuko dituzte 2 eta 10 urte bitarteko umeak

IKER BARANDIARAN &gt; ESKORIATZA

Orain dela 11 urte Jose Arana ikastolak sortutako *Ezkurtxorekin jolasean* ekimena bueltan dator berriro. Azken urteotan, Arizmendi arduratu da horretaz eta 2 urteko etenaldiaren ostean, berreskuratu egin dute. Hain zuzen ere, bihar, zapatua, egingo dute, 16:00etan.

Helburua da umeei Eskoriatzako ingurunea ezagutzera ematea. Horregatik, zazpi urtetan udalerriko elizateak bisitatu dituzte. Zazpi elizateak bisitatu ostean, antolatzaileek hausnarketa egitea erabaki zuten.

GURASOEN INPLIKAZIOA

Ekimenari aldaketa txiki batzuk egitea erabaki dute. Hain zuzen ere, gurasoak inplikatzeari eta ekimenaren bitartez aspaldiko jolasak berreskuratzea. "Guraso askok esan digute egun hori oso

polita dela eta gustura esku hartzen dutela. Hortaz, euren protagonismo handia ematea erabaki dugu", azaldu ziguten Arizmendiko ordezkariak.

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA

Ekimena Arizmendiko 2 eta 10 urte bitarteko umei zuzenduta dago. Horrez gain, Arizmendik gonbitea egin die Luis Ezeiza eskolako umei ekimenean esku hartzen.

Aurten ez dira elizateetara joango. Horren ordez, herrigunean ibiliko dira hiru taldetan banatuta: batzuk tren geltokian; beste batzuk Gorosarri plazan; eta besteak Olaeta plazan. Arizmendiko 180 bat ume esku hartuko dute gurasoekin, eta Luis Ezeizatik ere joango da talde bat.

Herriaren gaineko kontuak azalduko dizkiete eta hainbat jolas egingo dituzte, besteak beste.



EKIMENA BERRESKURATU Arizmendik aisialdiko ekimen hori berreskuratuko du hainbat berrikuntzekin.

ARIZMENDI

OSOKO BILKURA &gt; DATORREN ASTEAN EGINGO DUTE

## Osoko bilkura, azaroaren 2an

Bi gai garrantzitsu hobeto lantzeko asmoz, aste bat atzeratuko dute udaleko osoko bilkura

Santa Marinako etxebizitza tasatuak eta 2007ko udal zergak eta tasak dira landu beharreko gaiak

I.B. &gt; ESKORIATZA

Eguenean egin beharreko Udaleko osoko bilkura datorren hilabetera atzeratu dute, azaroaren 2ra hain zuzen ere.

Atzeratze horren arrazoia da udal gobernua gaitako bi hobeto landu gura dituela osoko bilkurara eraman aurretik. Honako hauek dira landu beharreko gaiak: ordenantza fiskalak, hau da, 2007ko udal zergak eta tasak; eta Santa Marinako etxebizitza

tasatuak arautzeko ordenantza berria finkatzea.

Bi gai horien gainean hausnarketa handiagoa egin gura dute, eta horregatik azaroaren 2rako utziko dute gai horien gaineko eztabaida.

ETXEBIZITZA TASATUAK

Bestelako gaiak ere izango dira berbagai eta eztabaidagai osoko bilkura horretan, baina udal zergen gaineko eta Santa Marinaren



ETXEBIZITZA TASATUAK Promozio horren zehaztasunak lantzen dabilta. AMAIA ZABALA

gaineko gaiak izango dira garrantzitsuenetarikoak.

Santa Marina ingurunean egingo dituzten etxebizitza gutzietatik ia 30 tasatuak izango dira. Hau da, etxe horiek Udalak berak bultzatuko ditu, eta merkatu librekoek baino prezio merkeagoa izango dute.

Udala aztertzen dabil etxebizitza horien gaineko araudiaren zehaztasunak. Etxebizitzak zer erregimenetan eskainiko dituzten, zozketa egiterakoan zer baldintza finkatuko dituzten eta abar. Osoko bilkura ostean jakitera emango dituzte zehaztasun guztiak.

&gt; ZERAMIKA

### Bi zeramika erakusketa ikusgai Ibarraundin

Egunotan bi erakusketa daude ikusgai Ibarraundi museoan Buztin Erti jardunaldien barruan. Bata, Hiesaren kontrako Euskal Herriko taldeak egin du; eta bestea, Andaluziako Marta de Pablos Bugarinnek *Our Fear* izenpean. Bi erakusketok azaroaren 5era arte egingo dira ikusgai.

&gt; AISIALDIA

### Azaroko egitaraua prest dute Inkernu tabernan

Inkernu taberna eta Aitzorrotz kultura elkarteak burubelardi dabilta aspaldian. Azaroan, besteak beste, gargarado festa, mahai-futbol txapelketa, autobidearen lanen gaineko erakusketa eta ardo dastatzea egingo dituzte. Azken hori herriko plazan egingo dute.

MENDIZALETASUNA > ARGAZKI ERAKUSKETA

# Elbruce mendia argazkitan jaso dute

Karmelo Oñate eskoriatzarrak eta beste bi lagunek egindako ibilaldien argazkiak Inkernun

Europako mendi altuena da Elbruce, Kaukason dago eta 5.646 metroko garaiera dauka

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Azaroaren 13ra arte Elbruce mendiaren gaineko erakusketa dago ikusgai Inkernu tabernan. Ohiko duten moduan, Inkernuk eta Aitzorrotz kultura elkarteak antolatu dute erakusketa hori, eta 40 argazkiz osatuta dago.

Elbruce mendia Kaukason kokatuta dago eta Europako mendi garaiena da -5.646 metro altuera dauka. Karmelo Oñate eskoriatzarra eta Nafarroako eta Bizkaiko bi lagun mendi horretara igo ziren 2005eko ekainean.

"Kaukasora horretara joan ginen, mendi hori igotzera. Lehe-

nengo Adysu bailaran ibili ginen hango girora moldatzeko. Horren ostean lau mila metrotako mendietan ibili ginen", azaldu digu Oñatek.

**ONENA, JAITSIERA**

Halako baten eguraldia zeharo okertu egin zen eta astebete aterpe barruan egin behar izan zuten. "Eguraldia hobetu zuen egun bakarrean gora egin genuen eta bederatzi ordutan goian ginen. Han 30 gradu zeuden zero azpitik. Poztasuna sumatu genuen jaisten hasi ginenean; goian ez zegoen bromarik".



ELBRUCE PUNTAN Hiru lagunak zero azpitik 30 gradutan.

KARMELO OÑATE

AZPIEGITURAK

## Telebista eta Internet seinalerako antena

Mazmelan, Zarimutzen eta Marinen ez dute seinalerik jasotzen

I.B. > ESKORIATZA

Dagoeneko jarri dute telebista eta Interneterako antena. Antena horren bidez Mazmela, Zarimutz eta Marinen duten arazoa konpondu gura dute; alegia, auzo horietan ez dutela telebista ezta Internet seinale egokirik jasotzen.

Antena Leintz Gatzagako Artabilla baseritik gora jarri dute, Eskoriatzako lurretan, hain zuzen ere; eta Udalak eta Aldundiko Mendi Nekazaritza Sailak ordaindu dute.

Elizateetako zinegotzi Javier Villarrek azaldutakoaren arabera, emisorea eta errezeptorea jarri artean itxaron beharko dute telebista eta Internet seinale egokiak jasotzeko.

Lanok Ferreira, Urondo eta Telecom egiten dabilza.

## Saskibaloiko kadete taldeak Ilunben jokatu zuen domekan

Eskoriatzako saskibaloiko emakumezkoen kadete taldeak Ilunben jokatu zuen joan den domekan, Gipuzkoa Basket taldeak eta DVK gonbidatuta.

Jokatzeaz gain, Gipuzkoa Basket taldeko jokalariekin egoteko aukera izan zuten, eta baita entrenamendua eta Caja San Fernando taldearen kontrako norgehiagoka ikusteko ere. Neskatalak pozarren etorri ziren Donostiatik.



IKER BARANDIARAN

> IPUIN KONTAKETA

## Gaur, egubakoitza, Carlos Alba ipuin kontalaria

Gaur, egubakoitza, Asturiasko Carlos Albak ipuin kontaketa egingo du HUHEZIKO aretoan, 22:30ean.

Carlos Albak *Cellero el monologuista* ikuskizuna egingo du. Albak curriculum oso zabala dauka. Hain zuzen ere, 1994tik 2002ra bitartean Chachara-Cuentacuentos taldeko kide izan zen. Horren ostean, bakarka aritu da eta hainbat ikuskizun egin ditu. Albak juglareen tradizioa, umorea eta ipuin-kontalarien hainbat teknika batzen ditu. Are gehiago, Asturiasko hizkuntzaren alde ere egiten du.

**LENIZ**  
ESKORIATZA



- Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
- Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxe: 943 71 31 45

ANELKAR &gt; AFRIKAREKIKO ELKARTASUN FESTA, ZAPATUAN

# Senegal, Kongo eta Sahararako dirua batuko du Anelkarrek

Senegaldarrez osatutako musika talde bat izango dugu. Zurrategin izango da festa, zapatuan, 19:00etatik aurrera

**AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA**  
Afrikarekiko elkartasun festa antolatuko du Anelkar Antzuolako Elkartasun Taldeak biharko, zapatua. Zurrategin izango da festa hori, 19:00etan hasita.

*Haima* bat jarriko dute eta hantxe egongo dira hainbat saharar; tea hartzeko eta *henaz* pintatzeko aukera izango dute herriarrek *haima* horretan. Horrela, sahararren hainbat ohitura bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dute herriarrek.

Batutako dirua Senegal, Kongo eta Sahararako izango da. Zati handiena, baina, Senegalerako izango da, ospitale baterako eta eskola baterako.

**HERRITARREN PARTE-HARTZEA**  
Txokolatea, kafea eta gozo guztiak dastatzeko aukera egongo

da. Anelkarreko kideek txokolatea eta kafea egingo dituzte, eta herriarrei eskatu diete tartak, pastelak edo pastak eginda parte hartzeko festan. Elkartasuna adierazteko beste era bat ere badugu, hortaz, aukeran.

**DANTZARAKO AUKERA**  
Senegaldarrez osatutako Bilboko talde baten emanaldia ere izango dugu zapatuan. Perkusioa jotzen dute eta dantza ere egiten dute.

Anelkarren festetan ohi bezala, Bidezko Merkataritzako postua ere jarriko dute.

Kristina Bakaikoa > Senegalera joan izan den Anelkarreko kidea

## "Hezkuntzan eta osasunean dituzte gabezia handienak"

**A.I. > ANTZUOLA**  
Azaroan egingo du Kristinak bosgarren bidaia Senegalera. Zapatuan batutako dirua eramango du eta hila-bete pasatuko du hantxe.

Zelatan joan zinen Senegalera lehen-dabiziko aldiz?

Turismo bidaia bat izan zen; bidaia hartan, hainbat herrixka bisitatu genituen eta, horietako baten, bi mutil ezagutu genituen. Eurek jakinarazi ziguten generadore baten eta eskolarako materialaren beharra zutela. Antzuolara itzuli nintzenez, Anelkarrekin harremanetan jarri eta kanpaina bat egin genuen dirua eta materiala batzeko. Gero, bigarren aldiz joan nintzenez, moja kataluniar batzuk ezagutu genituen eta harrezkero, euren bitartez bideratzen ditugu dirua eta materiala.

Zein da senegaldarrek duten arazo larriena?

Alde batetik, oinarritzko gauza eta zerbitzu asko falta zaizkie: hezkuntzaren eta osasunaren alorrean, esaterako, gabezia handiak dituzte. Dena dela, beharbada, arazo larriena da Europara etortzeko duten amets faltu hori. Askok eta askok hona etorri nahi dute kostatuta, eta *amets amerikar* ezagun haren antzerakoa dute, *amets europarra*, kasu honetan.



A.I.

Hori lortzeko, diru mardoa gas-tatzen dute; familia osoak jartzen du dirua eta ezer gabe geratzen dira.

Aipatzekoa da, baina, gu Senegalgo hegoaldera joaten garela, eta hantxe dituztela arazo handienak. Iparraldean zerbitzu gehiago eta hobek dituzte.

**Senegalera joaten hasi zinenetik, ze proiektu eraman dituzue aurrera?**

Esan bezala, gure lehen-dabiziko lana izan zen generadore bat eta eskolarako materiala bidaltzea. Batetik, dirua batu genuen generadorea erosteko, eta bestetik, Herri Ikaste-

txearen eta Aiherrako eskolaren laguntza izan genuen eskolarako materiala lortzeko.

Senegalen dituzten gabezia nabarmenak dira hezkuntza eta osasuna. Horrela, alor horietarako izan da herriar batu izan dugun dirua. Batetik, herrietatik kanpo ikasketak egin ahal izateko bideratu dugu dirua, baita eskolan hainbat lan egiteko ere. Bestetik, amatasun ospitalean hainbat berrikuntza lan egiteko ere bai. Aurtun, esaterako, 5.000 euro batu ditugu herriar, amatasun ospitalean dutxa eta komun berriak egiteko.

**Zapatuan batutako zertarako erabiliko duzue?**

Oraingoan, gure helburua da eskolan hainbat konponketa lan egitea. Gu joaten garen herriko eskolan, teilatua oso egoera txarrean dago eta hura konpontzeko dirua batu nahi dugu.

**Proiektu txikiak baina garrantzitsuak bultzatzen dituzue, hortaz.**

Hala da, bai; horrekin lotuta esan nahiko nuke Senegalgo gure lagun mojek geroago eta gehiago kritikatzeko dituztela Gobernu Kanpoko Erakunde handiak. Izan ere, proiektu handi eta entzutetsuak bultzatzen dituzte, baina, gero, ez diete batere jarraipenik egiten proiektu horiei. Gu, gauza txikiak ibiltzen gara.

> ETXEBIZITZAK  
**Behin betiko zerrendak argitara eman dituzte**

Oraingo astean argitaratu dute Udalak bultzatutako etxebizitzaren jabe izango direnen behin betiko zerrenda. Irail erdialdean jakinarazi zuten behin-behineko zerrenda, eta erreklamazioak egiteko hamabost eguneko epea izan zuten orduan izena emandakoek. Oraingo zerrendan, gainera, 13 ordezkoren izenak ere argitaratu dituzte. Aipatzekoa da ez dela aldaketarik egon.

Udaletxeko arkupetako taulan dago zerrenda, interesatuenentzako.

> ERRETIRATUAK  
**Donostiara irteera egingo dute hilaren 9an, arratsaldean**

Azaroaren 9rako, eguna, irteera antolatu du Antzuolako Erretiratu Elkarteak. Donostiara joango dira, San Telmo museoa ikustera. Ondoren, Donostian paseotxo bat egiteko aukera izango dute, eta Loiolako hotel batera joango dira askaltzera gero.

Irteerara joan nahi dutenek azaroaren 3an eta 4an dute izena emateko aukera, 18:00etatik 19:00etara, erretiratuaren egoitzan. 10 euro ordaindu beharko da.

> LEHIAKETA  
**Argazki lehiaketako sari banaketa, datorren astean**

Gaur, egubakoitza, amaitu da Antzuolako Udalak antolatutako argazki lehiaketarako lanak aurkezteko epea.

Gauzak horrela, datorren astean erabaki beharko du epaimahaiak ze lanek jasoko dituzten sariak; izan ere, datorren asteko domekan, azaroak 12, banatuko dituzte sariak. Asteburuan, azaroaren 11n eta 12an, ikusgai egongo dira argazki guztiak, Olatan etxean.

**bere ustez**



Jone Lete

Nora begira gaude?

**U**rriak 17, asteartea. Asteko egun normal bat. Egundak normala izango litzateke Nazio Batuek pobrezia kontrako eguna izendatu ez balute. Baina egun berezia da. Lau pertsonatik bat egunean dolar batekin bizi da; 100 milioi haur kalean bizi da; 1.000 milioi pertsonak ez du etxebizitzarik... Hau guztia oso urrutitua da. Horrelako egoerak herrialde txiroetan ematen dira, urrutitua da. Baina Sarasuak eta Egañak bertan esaten zuten bezala:

**"Hurbilekotik urrun aurkitzea gure akatsa da; arazoak dituen gero eta jende gehiago dago"**

la: "Urrutikoa hurbil sentitzen ez bada, hurbilekotik urrun aurkituko gara".

Urrutikoa hurbil sentitzen dugunean konturatu behar gara hurbilean arazoak dituen gero eta jende gehiago daukagula. Afrikara joan gabe, Afrika etorri zaigu.

Hurbilekotik urrun aurkitzea gure akatsa da. Arazoari irtenbidea garai jarri ez diogunez gainera etorri zaigu uholdea. Zenbat pertsona bizi da gure inguruan hilaren bukaerara iristeko lanak dituen, egunean jateko kontatu behar duena...

Hurbilekoari begiratu behar diogu eta ahal dugun heinean irtenbidea eman. Guztiok zerbait egiten badugu gertuko arazoak samurtzeko aukera izango dugu.

MUJIK A  
HARATEGIA



**Berezitasunak:**  
**Etxean hazitako zekorak eta oilaskoak**

Kalebarren, 1.  
ANTZUOLA  
Tf. 943 76 64 34



Jose  
Gomez  
Abad

Errekalde 6, 4-B.  
Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43  
Faxa:  
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

**EGAÑA**

Era guztietako arotz lanak

**Tarima eta parketa jartzea**  
**Zoruen kutxilatua eta barnizatuak**

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

ERRETIRATUAK > OZKARBI ELKARTEA

# Ozkarbik erabaki du erretiratuei dirua eskatzea euren elkartearen erabiltzeagatik

Udalari 9.000 euroko laguntza eskatu arren ez dute traturik lortu, beraz, erretiratuen elkarteari zuzenean eskatu diote dagokion zatia ordaintzea urtearen amaieran

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA

Ozkarbi elkarteak batzarra egin berri du erabakitzeke zein izango den erretiratuen etorkizuna elkartearen baitan.

Izan ere, Ozkarbik 288 bazkide ditu eta horretaz gain, erretiratuen elkarteko 178 bazkidek ere Ozkarbin dute lekua.

Urtebetez Udalarekin gai horren gainean tratuan jardun ostean, Ozkarbik hartu du erabakia: "Udalarekin nahi genuen tratua lortu ez dugunez, batzarrean gehiengo erabaki da erretiratuen elkarteari eskatzea euren dagokien zatia urte bukaerako gastuak kontuan hartuta", esan digu Gaizka Bolinaga Ozkarbiko presidentek.

Orain dela pare bat urte galera zeudela ikusita, Ozkarbiko zuzendaritzak erabaki zuen hitzarmena egitea Udalarekin. Horrela, Udalak hurrengo urtean laguntza emango zien erre-



BAZKIDEAK Erretiratuen elkarteko 178 bazkideek Ozkarbi elkartean dute egoitza.

aztertu dute baina kontuan hartu gabe beste herrietan erretiratuen elkarteak Udalaren lokalean daudela. Elgetan, elkartearen baserriaren lokalean dago eta 15 urteko kontratua daukagu, beraz, errenta gastuak ordaindu behar dira, besteak beste", esan digu presidentek.

Udaletik alkateak eta Gizarte Ongizate Saileko zinegotziak esan digute Ozkarbiko elkarteko zuzendaritzaren erabakiaren berri izan ostean emango dutela honen gaineko euren iritzia.

## ERRETIRATUAK OZKARBIN NAHI

Erretiratuen elkarteko ordezkariak ere hartu dute parte Udalak eta Ozkarbik gaiaren gainean egindako batzarretan. Hain justu ere, erretiratuen elkarteko presidente Zezilio Totorikague-nak esan digu euren bitartekari lana baino ez dutela egin: "Erretiratuok gustura gaude Ozkarbi elkartean eta gure nahia bertan jarraitzea litzateke. Baina horretarako Ozkarbik eta Udalak elkarren arteko akordioa lortu behar dute. Izan ere, erretiratuon kutxan ez dago gastu horiei aurre egiteko adina diru".

Erretiratuen elkartearen kontuarekin zer gertatzen den ikusteko dagoen bitartean, Ozkarbiko zuzendaritzak beste kezka batzuk ere baditu; besteak beste azaroan sukaldea berri-izekoak dira.

tiratuei elkartearen erabiltzeko. Izan ere, ordura arte, urtean 1.500 euro ordaintzen zituzten erretiratuek. Era berean bazkideen kuotak ere bikoiztu egin zituzten.

## GASTUEN HERENA ESKATU

Udalari eskatu beharreko zenbatekoa gastuen herena, 9.000 euro izatea adostu zuten. Udalak, ordea, beste herri batzuetako

kasuak aztertuta, irailean jakinarazi zion Ozkarbi elkarteari 6.000 euroko laguntza emango duela. "Beste herri batzuetan mantentzen zenbat gastatzen den

## PILOTA

# Gaur hasiko da helduen lau terdiko txapelketa

I.A. > ELGETA

Zortzi bikotek jardungo dute helduen lau terdiko pilota txapelketan, gaurtik hasita. Partiduak barikuetan eta domeketan jokatu dituzte bikote guztiak elkarren kontra.

Txapelketako lehen partiduak gaur izango dira. 20:30ean Eduardo eta J.M. Zubiaurrek Satur eta Txapelen aurka jokatuko dute. Ondoren, Jabier Bolinaga eta Iñaki Izagirrek Mikel eta Pelloren kontra. Domekan 11:00etan Alex Arantzabal eta Alberto Telleria eta Koldo Goenaga eta Roberto Basauriren arteko partidua izango da. Gero, Iñaki eta Jon Ugarteburuk Asier Morales eta Fernando Zenitagoiaren kontra jokatuko dute.

## ETXEBIZITZA > BIZIGUNE PROGRAMA

# Bizigune programaren gaineko hitzaldia astelehenean

Etxebizitza hutsak errentan emateko Eusko Jaurlaritzaren programa da

I.A. > ELGETA

Elgetako Udalak, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailarekin, Bizigune programa herrian garatzeko hitzarmena sinatu zuen. Programaren helburua da hutsik dauden etxebizitzak merkaturatzea. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak, Visesa enpresa publikoaren bidez hutsik dauden etxebizitzak alokatu egiten ditu hilero errentaren truke.

Programa horren berri emateko astelehenean, urriaren 30ean, hitzaldia egingo dute udaletxeko osoko bilkuren aretoan 18:30ean. Eusko Jaurlaritzako

ordezkari bat izango da bertan. Asmoa da herrian etxebizitza hutsak dituzten jabeek programaren gaineko informazioa ematea. Baina edozein herritar joan daiteke hitzaldira.

Udaletik esan digute Elgetan gutxi gorabehera 60 etxebizitza daudela hutsik (baserriak kontatu barik). Baina oraingoz jabe bakarrak erakutsi du programan parte hartzeko interesa.

## INFORMAZIOA UDALETXEAN

Bestalde, herritarrei gogorarazi nahi zaie, astelehenean 09:00etatik 10:00etara bitartean udaletxean Suradesako ordezkari bat izaten dela Bizigune programaren gaineko azalpenak ematen. Bestalde, Arrasateko bulegora ere jo daiteke, astelehenean barikura, (eguztinetan izan ezik), 07:30etik 14:30era bitartean; edo Suradesako telefono hauetako batera deitu: 943 79 33 99 edo 943 79 06 45.

## > EUSKARA

### Euskararen erabilera bultzatzeko hainbat ekitaldi izango dira asteburuan barrena

Udaleko Euskara batzordeak antolatuta herrian euskararen erabilera bultzatzeko ekintzak izango dira asteburuan. Gaur, barikua, 20:30ean triki-poteoa egingo dute. Zapatuan umeendako jolasak izango dira 18:00etan. Domekan 09:00etan mendi irteera egingo dute; 12:30ean luntxa plazan eta bertan liburuak eta kartelak egongo dira.

## > INGURUMENA

### Zaborren kudeaketaren gaineko hitzaldia izango da eguen arratsaldean Espaloian

Maya taldeak antolatuta hitzaldia izango da azaroaren 2an 19:30ean Espaloian. Zaborren kudeaketarako plan alternatiboa da gaia eta Gipuzkoako Hondakinak Kudeatzeko Plan Gidatzailea azalduko dute. Hizlariak Mikel Izagirre, Pello Lozano eta Imanol Azpiroz dira errausketaren aurkako plataformen koordinadorakoak, alegia

## > MENDIA

### Egoki kirol taldeak antolatuta Pirinioetara irteera izango da datorren aste bukaeran

Irteerarako izena emateko azken eguna urriaren 30a da eta prezioa, berriz, 50 euro. Azaroaren 3an 18:30ean irten eta Hoz de Jacara joango dira auto partikularretan. Zapatuan Midi d'Ossau mendia igoko dute eta domekan Panticosa inguruko beste mendi bat. Gomendagarria da Mendi Federazioan segurua eginda izatea.

&gt; ZUIAKO KOADRILA

**Informatika ikastaroa izango da azaroan**

Azaroan eta abenduan, lau asteko informatika ikastaroa egingo dute Aramaion. Hiru ikasgai landuko dituzte: *Orde-nagailu pertsonala erabiltze mailan*, (azaroaren 13tik 24ra); *Internet*, (azaroaren 27tik abenduaren 5era) eta *Word 2000* (abenduarien 11tik 22ra).

Eskolak izango dira aste-lehenetik barikura, egunero bi ordu. Hori bai, ordutegia interesdunek nahiago dutenaren arabera ipiniko dute.

Ikastaroa dago zuzenduta 18 urtetik gorako aramaioarrei. Matrikula doan da. Hala, interesa duenak azaroaren 4a baino lehen eman behar du izena, Murgian. Edo honako telefonora deituta: 945 43 01 67 (Oihana).

&gt; ZUIAKO KOADRILA

**Frutagintza eta baratzeazaintzaren gaineko ikastaroa**

Frutagintza eta baratzeazaintzaren ekoizpen ekologikoa aztertze ikastaroa antolatuta dute, Aramaion egiteko. Zuiako Koadrilaren ekimena da, baina Mendikoiren bitartez egingo dute ikastaroa. Asmoa da zapatuetan izatea eskolak (20 ordu, guztira), azaroaren 6an hasi eta hurrengo lau zapatuetan. Goizez izango dira: 09:00etatik 14:00ak arte, Aramaio Udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Interesa dutenek adi ibili behar dute, asko jota 20 lagunek parte hartu ahal izango dute-eta ikastaroan. Matrikula 40 euro ordaindu behar da. Izena, berriz, urriaren 31 baino lehen eman behar da, udaletxean edo 945 44 50 16 telefonoan.

&gt; KZGUNEA

**Azaroaren 13an eta 27an etorriko da tutorea KZgunera**

Azaroaren 13an eta 27an, 16:00etatik 20:00etara bitartean izango da KZguneko tutorea Aramaion.

Hala, KZgunea bera zabalik izateaz gainera, honako mintegi hauek egingo ditu: *Adobe Acrobat Reader* (PDF motako dokumentuak irakurtzeko). Eskola euskaraz izango da, 18:00etan hasi eta 20:00ak arte.

Bestalde, azaroaren 27an, *Etxetik eros ezazu* mintegia egingo du. Hori ere euskaraz izango da, 17:00etatik 19:00etara bitartean.

Bi ikastaroetan parte hartzeko KZgunera joatea besterik ez dago. Oraindik bada lekua ikastaro bietan.

GIZARTEA &gt; ERRETIRATUEN EGUNA, BIHAR, ZAPATUA

# Baserriko produktuak azokan eta erretiratuak gogoan, bihar

Aramaiotik 15 lagunek ipiniko dituzte saltokiak; bestalde, eguraldi ona iragarri dutela-eta, pozik daude antolatzaileak

UBANE MADERA &gt; ARAMAIO

Erretiratuen Eguneko azokan, 25 bat saltoki ipiniko dituztela jakinarazi du Udalak. Horietatik 15 izango dira herrikoak (iazko berak) eta gainerakoak, berriz, kanpotik etorritakoak.

Hala, azokan izango dira Aramaio honako produktuak: Kerixarako eta Undako gaztak; Iker Ezpeletak eta Rakel Arriolabengoak egindako ogiak (baserrikoak eta ekologikoak); eztiak, Gardoki eta Aldeko baserrietan egindakoak; Salazan eta Likiñau baserrietako barazkiak eta Lonbideren barazki ekologikoak.

HERRIKO ELKARTEAK ETA BESTE

Bestalde, horiekin batera, saltokia ipiniko dute, baita ere, Itur Zuri emakumeen elkarteak (artisautzakoa), Papargorri abesbatzak sendabelarren erakusketa ipiniko du eta Mendixolakoek, berriz, gazteen zentroan egindako eskulanak ipiniko dituzte. Horrez gainera, Aramaio Tropikaleko Gazte Asanbladakoek

taloak egingo dituzte. Eta era berean, AEK eta Araba Euskaraz elkarrekin ordezkariek ere izango dira Aramaion, euren produktuak saltzen.

Horri guztiari laguntzen, berriz, kanpotik etorritako beste bederatz saltzaile izango dira. Haiek ekarriko dituzte, besteak beste, kontserbak, euskal pastelak eta *boj* motako egurrekin landutako tresnak.

Azoka 10:00ak ingururako izango da gertu, 14:30ak arte. Azoka giroten, gainera, ibiliko dira trikitalariak.

ERRETIRATUEN EGUNA

Bestalde, jaiaren egunak esaten duen moduan, herriko Erretiratuen Eguna da biharkoa. Hala, goizean, eta herriko elkarte gastronomikoen eskutik,

hamarretakoa izango dute erretiratuek. Horren ostean, 12:00etan, hitzordua dute, mezetara joateko. Meza eta gero, urtero moduan, Lagun Artean dantza taldeak dantza saioa eskainiko die, eta gero, 14:30ean, bazkarirako hitzordua dute, Udalaren kontura.

145 LAGUNEK EMAN DUTE IZENA

Pilotalekuan egingo dute bazkaria. Menua, honako hau izango da: atarikoak, bakailaoa, bildotsa eta postrea. Dantzaldia ere izango dute, Iñigo musikariarekin. Eta Euskadiko Kutzak eta Vital Kutzak emandako opariak ere zozketatuko dituzte, tartean, Benidormera bidaiak. Udaletik jakinarazitakoaren arabera, 145 lagunek eman du bazkarirako izena.

OMENALDIA

## Ramona Untzueta eta Nikasio Etxabe herrikideak omenduko dituzte bihar

Erretiratuen Egunean, herriko nagusienak omentzen dituzte. Aurten, Ramona Untzueta eta Nikasio Etxabe omenduko ditu Udalak. Ramona Untzueta Bizili baserrikoa da eta 97 urte ditu. Nikasio Etxabe, berriz, Zubialde baserrikoa da, eta 94 urte beteko ditu aurten. Bazkarira joango ez direnez, Udalak lore-sorta bidaliko die etxera.

Bi bizilagun horiek dira herriko nagusienak; baina deigarria da Aramaion 90 urtetik gorako zenbat bizilagun dagoen: Udaletik emandako datuaren arabera, 16 lagun. Horietatik bost dira gizonak (bi auzoetan bizi dira, besteak kalean) eta gainerakoak emakumeak (bost auzoetan bizi dira eta beste seiak kalean).



ATGA

## 'Aramaio ezauketan' ibili ziren gazteak

Mendi irteera egin zuten joan zen astean gazteek. Aramaio Tropikaleko Gazte Asanbladak (ATGAK) eta Orixol Mendi Elkarteak antolatuta zuten, *Aramaio ezauketan II* izenburupean. Ibilbidea kalean 09:00etan hasi zuten, Ipiztigarrira igo ziren, hortik Anbotoko zelaira joan ziren eta Gantzagako haitzen atzetik pasatu eta Leziatik zehar Orixolea igo ziren. Gero, Kurtzeta ingurutik jaitsi ziren, Arriolara, eta handik kalera. 15 pertsonak parte hartu zuten. Argazkian, Orixol puntan dago taldea.

bere ustez



Blanka Mendialdua

## Aramaioko eskolaren gainekoa

**A**ramaion eskolak hainbat aldi izan ditu eta horietako batzuk aipatuko ditugu segidan.

Lehenengo, esan beharra dago eskola noiz sortu zen garbi ez dakigula, baina XVI. menderako bazen. Geroago, 1880 inguruan, Untzillan eta Olaetan egin zituzten eta Ibarren ere beste bat sortu zuten, neskendako. Gainerako auzoetako haurrek eskola horietara joateko aukera bazuten, baina gehienei apaizek erakusten zieten irakurtzen, idazten eta lau eragiketarako egiten.

## "Aramaion hainbat eskola izan ziren, zehazki, bost auzoetan eta beste hiru kalean"

Geroago, 1928-1947 bitartean, Azkoagan, Urribarrin eta Etxaguenean ere eraiki zituzten eskolak; gainera, Ibarren Haur Hezkuntzarako beste bat zabaldu zuten. Beraz, garai batean, Aramaion hainbat eskola izan ziren, zehazki, bost auzoetan eta hiru kalean. Bakoitzak bere irakaslea zuen, gehiengotan, emakumezkoa.

Gero, 1969an herriko haur guztiak batera ipini zituzten (Olaetakoak ez). Orduan jarri zuten garraioa eta jangela, batez ere, auzo-koendako.

Harrezkero ere egon dira beste gertakizun batzuk eskolekin lotutakoak; esaterako, Ikastola sortzea eta abar; baina horiek beste baterako utzi-ko ditugu.

**((112))**  
SOS DEIAK

MUSEOA > GATZ EKOIZPENA

## Gatz museoko dorla egokituko dute San Milixanetarako gatza ekoiztu ahal izateko

Sua erabilita gatz ekoizpenaren erakustaldiak egiten hastea gura dute museoan bertan

koa, horregatik ezin da gatzik ekoiztu. Jarriko dutena ez da izango pieza bakarra, hainbat zatitan banatuta egongo da, eta gatza egitea du helburu.

### SUAREKIN GATZA

"San Milixan eguneko artisau feriarekin beste zerbaitekin gura genuen, eta gatzarekin zer egin zitekeen pentsatzen hasi ginen", azaldu digu Aitziber Gorosabel Gatz museoko arduradunak. "Gainera, beti gura izan dugu museoan bertan suarekin gatza

egin, baina daukagun dorlarekin ezin da. Horregatik, dorla egokituko dugu; ea azaroaren 12rako gertu dagoen", gaineratu du. Bi galdara egingo dituzte, bata gatza egiteko eta bestea lehertzeko, eta kanpaia jarriko diote dorlari azpian sua egingo dutelako. "Asmoa ez da gatz ekoizpena bultzatzea, erakustaldiak egitea baizik, Legazpiko Mirandaolan antzera", azaldu digu.

Bestalde, astean bertan ibili dira museoaren aurrealdean dagoen egurrezko hesia konponetzen arotzak.

### GATZA EKOIZTEN ETXEETAN

San Milixan eguneko erakustaldia egingo dute, baina eguneko bertan gatza izateko herritarren laguntza eskatu du Udalak. Hala, gatz-ura datorren iturritik jasotako ura banatu dute etxeetara gatza lortzeko. "Harrituta geratu dira zenbat gatz daukan urak ikusita; izan ere, oso ur gazia dator. Eta eskerrak eman behar dizkiegu herritarrei eskatutako laguntzari emandako erantzunagatik", bukatu zuen Aitziberrek. Gatzarekin zer egingo duten jakin gura izanez gero, azaroaren 12an Gatzagara hurreratu behar.



DORLA Orain dagoen dorla handiegia da suarekin gatza ekoizteko.

M.A.



## Bota dituzte hiru zuhaitzak

M.A.

Udaletxe alboan dagoen parkean (argazkian) zeuden hiru zuhaitzak bota zituzten zapatuan. Zortzi lagun elkartu ziren, eta zuhaitzak handiak baziren ere, ez zen ezustekorik gertatu. Udalak orain hilabete batzuk hartu zuen botatzeko erabakia, alboko etxean arazoak sortzen zebiltzako zuhaitz sustraiak. Orain lurra jasoko dute, ura nondik sartzen den ikusteko, eta etxeko hormari asfaltozko geruza jarriko diote. Ondoren egurrezko hesia kendu eta harrizko horma eraikiko dute parkean.

  
**Euskalduna**

### Hileta Zerbitzuak

- Etengabeko zerbitzua
- Tramite guztien bideratzea
- Lore koroak · eskelak

Amilaga, 39 • 20570 BERGARA  
Tel.: 943 761 299 • Faxa: 943 761 299  
e-mail.: euskalduna@harrespil.net

  
**Harrespil**

### Hilerri eta Hileta Zerbitzuak

- Hilerrien gestio osoa eta mantenimendua
- Aldikako lanak hilerrietan

Peñaflorida, 1 B -1 • 20004 DONOSTIA  
Tel.: 943 894 940 • Faxa: 943 894 941  
e-mail.: harrespil@harrespil.net



KOSTATA Aretxabaletak dagoeneko irabazi du denboraldiko lehen partidua. Bolada ona hartzea falta da. JOSETXO ARANTZABAL

FUTBOLA > PREFERENTEA ETA ERREGIONAL MAILA

# Arnas apur bat hartu eta gero, etxeko berotasunetik urrun

Mondrak, Aloña Mendik eta Aretxabaletak kanpoan jokatuko dute; erregionalean, berriz, derbia jokatuko dute Mondrak eta Antzuolak

XABIER URTZELAI > BERGARA

Denboraldi hasiera txarra egin da ere, badirudi Aloña Mendi eta Aretxabaleta hasi direla poliki-poliki bidea zuzentzen. Zazpi jardunaldi jokatu, Oñatikoek dagoeneko hiru norgehiagoka irabazi dituzte. Aretxabaletak, berriz, domekan erdietsi zuen biziki behar zuen garaipena. Irabaztea ahaztu egin zaigu, ala? Horixe lehenengo partiduetan bi

taldeetako entrenatzaileen burutik pasatuko; joan den urtean erraz egiten zutena, aurten nekez.

**GUZTIAK KANPOAN**

Asteburuan etxeko berotasunetik urrun jokatuko dute ibarreko hiru ordezkariak. Eta, ez nolana hiko kontrarioen kontra, gainera. Aitor Oruetaren mutilak, adibidez, bigarren postuan dagoen Hernaniren zelaira jango dira

etekin bila (zapatua, 16:30). Eta Felix Recioreen mutilek ez dute erronka makalagoa, laugarren lekuan dagoen Anaitasuna izango dute-eta zain, Azkoitian (zapatua, 16:30). Sailkapenari begirata, behintzat, Mondrak ez du horren kontrario gogorra izango. Arrasatekoek Urolaren zelaian jokatuko dute, Zumarragan (zapatua, 16:00).

**ERREGIONALEAN DERBIA**

Talde nagusien faltan, bigarren erregionalean jokatuko duten derbia azpimarratuko dugu: Mondra B eta Antzuola aurrez aurre (domeka, 15:30, Atxabalpe).

> ARETO FUTBOLA

## Eskoriatzak Galdakaon jokatu du bihar arratsaldean, Ortziri Domosti taldearen kontra

Bihar, zapatua, 19:45ean neurtuko dituzte indarrak seigarren lekuan dagoen Ortziri Domostik eta zazpigarren postuan dagoen Eskoriatzak. Eskoriatzarrendako etxetik kanpora jarraian jokatu dute bigarren norgehiagoka izango da. Hala, joan den astean Kanikas Infracoman taldearen kontra 3-3 egin eta gero, oraingo jardunaldian Eskoriatzak etekin hobea eskuratu gura du.

> SASKIBALOIA

## Lehenengo postuan dagoen Aloña Mendik Ointxe Arrasate hartuko du bihar arratsaldean

Senior mailako derbia jokatu dute bihar arratsaldean (19:15, Zubikoa) Aloña Mendik eta Ointxe Arrasatek. Oñatiarrek sendo hasi dute denboraldia: jokatu hiru norgehiagokak irabazi egin dituzte. Hala, sei punturekin eurak dira kategoria horretan lider. Arrasateko taldeak, berriz, joan den astean irabazi zuen lehenengo, Erroibide taldea 68-58 mendean hartuta.



GOIENKARIA

## Azaroa iritsi artean, Paduraren kantxara

Mugarri Alkesa saskibaloia taldeak etxean jokatuko ditu azaroko lau norgehiagokak. Lehenago, baina, Arrasateko taldeak malda bat gaintu beharko du, domekan Padura egongo da-eta Zurututzaren mutilen zain, Arrigorriagan (12:20). Gero etorriko dira Ventanas Leon, Urdaneta, Promociones Legarcia eta Mapy TV taldeen bisitak.



**BIARK STUDIO SL**

Arkitektura proiektuak

Usaetxe plaza 1 behea Esk (Kopyprest parean)

ARRASATE

Tel.: 943 798033 Mug.: Asier (652755446) Aritz (679736329)

E-posta.: biark@arquired.es



**Berriztapenak**



**Obra berriak**



**Hirigintza**



**Erreformatik**



**asteburuko hitzorduak**

**FUTBOLA**

**Preferente maila**

Hernani-Aloña Mendi  
Zapatua. 16:30. Zubipe.  
Urola-Mondra  
Zapatua. 16:00. Zumarraga.  
Anaitasuna-Aretxabaleta  
Zapatua. 16:30. Azkoitia.

**Lehen erregionala**

Amaikak Bat-Bergara  
Zapatua. 16:30. Deba.

**Bigarren erregionala**

Aretxabaleta-Soraluze  
Zapatua. 15:30. Ibarra.  
Eibartarrak-BTLS  
Zapatua. 17:30. Unbe.  
Elgeta-Urki  
Zapatua. 15:30. Unbe.  
Mondra B-Antzuola  
Domeka. 15:30. Atxabalpe.

**Ohorezko mailako gazteak**

Aloña Mendi-Herrerako Sp.  
Zapatua. 16:30. Azkoitia.  
Mondra-Amaikak Bat  
Zapatua. 16:30. Atxabalpe.  
Aretxabaleta-Beti Gazte  
Zapatua. 17:30. Ibarra.  
Bergara-Kostkas  
Zapatua. 18:30. Ipintza.

**Lehen mailako gazteak**

Antzuola-Ilintxa  
Zapatua. 16:00. Estala.  
Urki-Arizmendi Aretxabaleta  
Zapatua. 15:30. Unbe.  
Arrasate-Eibartarrak  
Zapatua. 12:00. Atxabalpe.  
Bergara-Soraluze  
Zapatua. 16:30. Ipintza.

**Ohorezko mailako kadeteak**

Tolosa-Arizmendi Aretxab.  
Zapatua. 10:30. Usabal.  
Bergara-Sanse  
Domeka. 12:00. Ipintza.  
Aloña Mendi-Arrasate  
Domeka. 11:45. Ibarra.

**Lehen mailako kadeteak**

Soraluze-Bergara  
Zapatua. 11:00. Ezozia.  
Arizmendi Aretx.-Ilintxa  
Domeka. 11:30. Ibarra.

**Ohorezko mailako infantilak**

Arizmendi Aretxab.-Eibar

Zapatua. 11:30. Ibarra.  
Arrasate-Kostkas  
Zapatua. 10:00. Atxabalpe.  
Añorga-Aloña Mendi  
Zapatua. 12:00. Rezola.

**Lehen mailako infantilak**

Bergara-Zumaikoa  
Domeka. 10:30. Ipintza.

**Infantil txikiak**

Tolosa-Arizmendi Aretxab.  
Domeka. 10:00. Ibarra.

**Emakumezkoen Liga**

Agurain-BTLS  
Zapatua. 18:00. Agurain.  
Gasteizko Aurrera-Mondra.  
Domeka. 11:00. Olanabe.  
Arizmendi Aretx.-Gasteiz C.  
Zapatua. 15:30. Almen.

**Emakumezkoen F-11**

Aloña Mendi-Lazkao  
Domeka. 10:00. Ibarra.  
Arizmendi Aretx.-Lagun Onak  
Zapatua. 09:30. Almen.

**ARETO FUTBOLA**

**Euskadiko Liga**  
Ortiziri Domosti-Eskoriatza  
Zapatua. 19:45. Unkina.

**Gipuzkoako Liga**  
Intxaurren-Aloña Mendi  
Gaur. 22:15. Donostia.

**Gazte maila**  
Elgoibar-Aloña Mendi  
Zapatua. 13:15. Elgoibar.

**SASKIBALOIA**

**Lehen maila**  
Padura-Mugarri Alkesa  
Domeka. 12:20. Arrigorriaga.

**Gipuzkoako ligako senior maila**  
Aloña Mendi-Ointxe Arrasate  
Zapatua. 19:15. Zubikoa.  
Candy BKE-Allerru  
Zapatua. 16:00. Labegariet.

**Gipuzkoako ligako senior maila (emakumezkoak)**  
Aloña Mendi-Eskoriatza  
Zapatua. 11:00. Zubikoa.

**Gipuzkoako ligako gazte maila (gizonezkoak)**  
Mugarri Alkesa-Easo A  
Zapatua. 10:00. Musakola.

Cafes Aitona-Aloña Mendi  
Zapatua. 18:00. Donostia.

**Gipuzkoako ligako gazte maila (emakumezkoak)**  
Txirrita-Eskoriatza  
Domeka. 12:00. Bergara.

**Gipuzkoako ligako kadete maila (gizonezkoak)**  
Aloña Mendi-Bergara  
Zapatua. 11:00. Oñati.

**Infantil maila (mutilak)**

Andraitz-Leintz Eskola Kir.  
Zapatua. 11:00. Legazpia.  
Arizmendi B-Arizmendi A  
Zapatua. 12:00. Musakola.  
Leintz Eskola Kir.-Bergara  
Zapatua. 10:30. Musakola.  
Bergara-Aloña Mendi  
Zapatua. 12:00. Bergara.

**Infantil maila (neskak)**

Andraitz-Leintz Eskola Kir.  
Zapatua. 11:00. Legazpia.  
Leintz Eskola E-Leintz Esk. D  
Zapatua. 12:00. Musakola.  
BKL-Aloña Mendi  
Zapatua. 09:30. Beasain.

**ESKUBALOIA**

**Euskadiko Senior Maila**  
Barakaldo-Ford Mugarri A.  
Domeka. 12:30. Barakaldo.

**Lehen territorial maila**  
Arrasate-Urola  
Domeka. 12:00. Iturripe.  
Bergara-Hegialde Auto  
Domeka. 12:15. Labegariet.

**Gazte maila (gizonezk.)**  
Ereintza-Aloña Mendi  
Zapatua. 15:45. Errenteria.  
Donibane-Bergara  
Domeka. 12:00. Pasai Don.

**Gazte maila (emakum.)**  
Verkol Aloña-Jauja Andone.  
Zapatua. 17:30. Zubikoa.

**Kadete maila (gizonezk.)**  
Aloña Mendi-Leizaran  
Zapatua. 16:00. Zubikoa.  
Gatz Museoa Jak.-Urola Azt.  
Zapatua. 16:00. Iturripe.

**Kadete maila (neskak)**  
Elgoibar-Verkol Aloña  
Zapatua. 16:00. Elgoibar.

**ATLETISMOA > BEHOBIA-DONOSTIAKO DORTSALAK AGORTUTA**

# Mila eta seirehun lagun daude korrika egiteko dortsalaren zain

Behobia-Donostiak marka guztiak gainditu ditu; inoiz baino lagun gehiago izango dira proban, eta inoiz baino azkarrago banatu dituzte dortsalak

**XABIER URTZELAI > BERGARA**  
Bistan da Behobia-Donostia lasterketan bizkortasuna ez dela lasterketan bertan behar, lehena-go, baizik. Izan ere, lasai dabilenak nekez hartuko du proban parte. Fortuna elkarteko antolatzaileek irailaren hasieran jarri zituzten dortsalak salgai. Bost egun behar izan zituzten Interneten jarritako 2.200 dortsalak saltzeko. Eta, gainontzeko dortsal guztiek ere (9.800) hegan egin zuten.

Hala, aurten 12.000 lagun izango dira Behobiako irteera tokian, eta antolatzaileek ez dituzte gehiago gura. Izan ere, 1.600 lagun geratu dira korrika egiteko dortsal barik, eta antolatzaileek eskera egin dute: jende horrek ez dezala dortsal barik lasterketan esku hartu, bestela, ezinezkoa izango da eta korrikalari guztiendako segurtasuna bermatzea.



ERREKORRA Aurten 500 korrikalari gehiago izango dira proban.

GOIENKARIA

**ERREKORRA GAINDITU GURAN**  
Asmo horrekin etorriko da Robert Kipchumba. Nike etxea arduratzen da izen handiko korrikalariak probara ekartzear, eta keniarra da Alberto Juzdadoren errekorra (59:19) gainditu dezakeen korrikalarietako bat. 22 urteko gazteak garaipen-zerren-

da ikusgarria du. Azken lorpena, Hungarian egindako 20 kilometroko Munduko Txapelketan zilarrezko domina janztea (56:41). Gipuzkoar azkarrenendako ere sariak izango dira. Ritxar Fernandez eta Iratxe Aranburu izan ziren iaz azkarrenak, eta aurten ere lasterketan izango dira.

## Bisita ezazu Gipuzkoako sukalde eta bainuontzien erakusketa handiena



600 m2 baino gehiagoko erakusketa  
Ikusteko 31 sukalde baino gehiago  
Merkatuko prezio hoberenak  
Europar marka hoberenak

**Armeko**  
Sukaldeak Integralak

Bisita ezazu Gipuzkoako sukalde eta bainuontzien erakusketa handiena



**YOSU THERMIK**  
LEIHOAK ISOLATZAILEAK


Bisita ezazu leihoen erakusketa berria  
Kalitate handiena  
Gehienezko berma  
Prezio hobeak

ERAKUSKETA BERRIA

Kataide Poligonoa, 4 pabiloia **ARRASATE**

**943 770157**

# Debagoieneko GREMIOAK



## AROSZTEGIAK

### AZKARATE AROSZTEGIA

Bergara  
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak  
• K-21  
Telleria 19 B02-B03  
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20  
www.goiena.net/blogak/azkarate

### BIDABURU AROSZTEGIA

Oñati  
• Era guztietako berrikuntza lanak, leihoak, neurri guztietako atariak, zoruak, eta abar.  
Zubillaga 20  
T: 943 78 35 00 / 627 48 58 13  
bidaburu.h@euskalnet.net

## ELEKTRIZITATEA

### AITZORROTZ ELEKTRONIKA

Aretxabaleta  
• Telebista, audio eta bideoa  
Salmenta eta konponketa  
• Instalazio elektrikoak  
• Atezain automatikoak  
• Antena kolektiboak  
Otalora 14  
T: 943 79 16 10  
F: 943 79 16 10

### ARANZABAL KOOP. E.

Arrasate  
• Instalazio elektrikoak  
• Antena kolektiboak  
Zerkaosteta 15  
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83  
F: 943 79 68 21

### ARETXARGI

Aretxabaleta  
• Instalazio elektrikoak  
Belorrieta 15 behe  
T: 943 532 628 / 645 734 032  
F: 943 532 629  
aretxargi@euskalnet.net

### BELLIDO ELEKTRIZITATEA

Oñati  
• Erreformak orokorrean  
• Marka guztietako etxetresna elektronikoen konponketa  
Kale zaharra 60 - 3 erd.  
T: 943 78 23 10 / 615 74 94 94

### RELE

Eskoriatza  
• Instalazio elektrikoak  
Santa Ana 12 eta 17  
T: 943 71 41 65 / 943 71 41 12  
F: 943 71 41 65 / 943 71 41 12

## ERAIKUNTZAK

### ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate  
Meatzerreka auzoa  
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59  
e. arrasate@euskalnet.net

### FRIXI ERAIKUNTZAK

Eskoriatza  
• Hormigoizko estruktura eta urbanizazioak  
• Kontratak  
• Enpresen mantentze-lanak  
Intxartxueta 5  
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22  
F: 943 71 55 15

### ZUTARRI SL

Arrasate  
Zerkaosteta 17, behe  
T: 943 79 67 78 / Faxes: 943 77 10 09  
zutarri@infonegocio.com

## ESKAIOLISTAK

### EMILIO ESKAIOLAK

Aretxabaleta  
• Eskaiolazko eta pladurrezko sabaien dekorazioa, sabai desmuntagarriak  
Bedarretako San Migel auzunea 14, behe D  
T: 943 79 60 65 / 675 70 25 12

## IGELTSEROAK

### DE LA TORRE IGELTSEROTZA

Eskoriatza  
• Barruko lanetan espezialitatea  
• Berrikuntza-obra orokorrean, azulejo-estaldura, aldaketak, gremioen koordinazioa  
Intxartxueta 7, 2D  
T: 943 71 52 64 / 639 76 29 27  
Dela-torre@euskalnet.net

### G. IZCUE IRURZUN

Arrasate  
• Igeltserotza orokorra  
• Etxeen berrikuntza  
• Sukaldeak, komunak...  
Munar 6  
T: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

## ITURGINTZA

### ARETXABAleta ITURGINTZA

Aretxabaleta  
• Sukalderako eta bainugelarako altzariak  
Santa Kurtz 24, behe  
T: 943 79 17 53  
F: 943 79 17 53

### EGIA ITURGINTZA

Arrasate  
Gipuzkoa etorbidea 39, behe  
T: 943 77 01 85

## IMANOL ITURGINTZA

Arrasate  
- Iturgintza  
- Berogailua eta gasa  
- Bainugelak  
Kale Txiki 9 behe  
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

## J.J. IRURE ITURGINTZA

Aretxabaleta  
• Ura  
• Gas  
• Kalefakzioa  
Mitarte 15  
T: 943 793 187  
F: 943 793 187

## OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza  
• Iturgintza eta gasa  
• Berogailuak eta petrolio-produktuak  
• Klimatizazioa  
Aranburuzabala 15  
T: 943 71 47 14 / 606 007 369  
f.oyanguren@ctv.es

## TXORROTA

Arrasate  
• Berogailua eta gasa  
• Galdarak aldatzea  
• Obra integralak  
• Zaharberritzeak  
Bolibar dokorea 5, behe C  
Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17  
F: 943 77 17 13

## URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta  
• Instalazioen mantentze-lan guztiak  
• Berokuntza eta gasa  
• Aire girotua eta haizeztatzea  
Basabe industrialdea B-3  
T: 943 77 19 88  
F: 943 79 59 97

## VALES ITURGINTZA

Aretxabaleta  
• Hargintza lanak  
• Bainugelako altzariak  
• Berogailuak  
• Errethenak ipini eta garbitzea  
Santa Kurtz 7, 3. ezk.  
Tel.: 620 178 046

## LEIHOAK

### ARGI-PLASTIC

Arrasate  
• PVC leihoak  
• Aluminio termikoko leihoak  
• Poliuretanozko leihoak  
Zigarrola 1- 8 pab.  
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18  
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

### ION LEIHOAK

Arrasate  
• Metal arosztea, PVC eta arosztea  
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia  
T: 943 79 11 35  
F: 943 77 31 20

### LEIHATEK

Arrasate  
• Leiho eta ate isolatzaileak  
• Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak  
• Kontraleiho errustikoak eta mallorkinak  
• Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.  
Okendo 1 - behe  
T: 943 79 69 91  
ventanasleihatek@hotmail.com

## LOREZAINZTA

### MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta  
• Barruko zein kanpoko lorezaintza  
• Ureztatze sistemak  
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak  
Basabe poligonoa D-2-1  
T: 943 79 78 45 / 616 96 57 98  
F: 943 79 78 45

## MARGOAK

### APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate  
• Pintura orokorrean  
• Pareztatzeak  
• Errotulazioa  
Maitena 3-1.  
T: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

### L. GONZALEZ PINTURAK

Aretxabaleta  
• Pintura orokorra, pintura papereztatua  
Basabe poligonoa F-6  
T: 686 113 581

# G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> **WINGER**  
New Yorkeko talde  
beteranoa gaur  
gauean Jam  
aretoan > 45



> **KOMUNIKAZIOA**  
Iban Arantzabal  
GOITBko  
zuzendariari  
elkarrizketa > 45

> **OXEL  
EROSTARBE**  
Geografia ikasi  
zuen, baina  
kazetari eta  
euskara irakasle  
ibili da,  
Aralarren hasi  
zen arte. Orain,  
maiatzeko  
hauteskundeak  
prestatzen  
dabil > 50



OTALORA Aretxabaletako Azatza auzoan dago Otalora dorrea, 1351koa. Gaur egun MCCko heziketa zentroa dago bertan.

ARGAZKIA: IBAN ARANTZABAL

## Erdi Aroko altxorrak gurean

Euskal Herriko gaztelu  
eta dorre gotorren  
inventarioa egin du  
Jaurlaritzak

Debagoieneko 12 dorre  
azaltzen dira Armando  
Llanosen lanean

EDU MENDIBIL > BERGARA  
Jaurlaritzako Kultura Sailak  
*Defentsarako arkitektura. Eus-  
kal Herriko Gazteluak eta Dorre  
Gotorrak* izeneko liburuxka  
argitaratu berri du. Bertan,  
Debagoieneko 12 dorre azaltzen  
dira: Otalora, Arkarazo, eta  
Galartza dorreak Aretxabale-  
tan; Lamariano, eta Izagirre  
dorreak Bergaran; Goikobalu  
gotorlekua Arrasaten; Jalotza  
Elgetan eta beste lau dorre Oña-  
tin: Zumelzegi, Lazarraga,

Zubiaur, Olakua, eta Garibai  
dorreak hain zuzen ere.

Gaur egun ezagutzen diren  
eraikinak bildu ditu egileak,  
Armando Llanos arkeologoak.  
Llanosen arabera deigarria da  
Erdi Aroko eraikinen kopuru  
handia: "Nagusiki defentsarako  
prestatutako eraikinak ziren,  
kasu batzuetan gazteluak, beste-  
tan dorreak, familia-leinuen jato-  
rri". Altxor horietako zenbaitek  
zutik diraute oraindik eta gertuan  
dauzkagu.

## Erdi Aroko altxorrak gurean

(43. orrialdetik dator)

Aipatutako liburuxka CD batekin lagunduta dator. Micaela Portilloren eta J.M. Cembellini testuetan eta Euskal Kultura Ondarearen Zentroko artxiboretan oinarritu da Armando Llanos arkeologoa gotorlekuen gaineko lana egiterakoan. Egileak zehazten duenez, ikerketa lan honetan Gipuzkoan mantentzen diren 44 gotorlekuen informazioa batzen da, Bizkaian (123) eta Araban (86) direnak baino dezentegiago.

Llanosen hitzetan, "Gipuzkoan gotorlekuen eraikuntza ez da beste lurraldeetan bezain ugaria eta nagusiki Debagoienan eta Debabarrenan pilatzen dira gotorlekuok. Baita kostaldeko zenbait tokitan ere. Antzinako garaietan eraiki ziren dorreetako asko Nafarroako Erresumarekin eta Frantziarekiko muga naturalarekin lotutakoak izan ziren. Geroagoko dorreak beranduagokoak dira, Oinaztarren eta

Ganboatarren arteko bando-gerren garaikoak".

Erdi Aroan garatu ziren bereziki defentsarako eraikinok: "Feudalismoaren eraginez eta mugak eta bideak kontrolatzeko behararen eraginez. Mugen kontrolak hainbat garaitan garrantzia izan zuen, lurraldearen hego aldean musulmanen eta kristauen artean borrokatutako guneetan adibidez. Araba honela izendatu zuten kronika arabiarretan: Araba eta Al-Quilá (Araba eta Gazteluak)", dio Llanosek. Gotorlekuen lehen aipamen dokumentalak Erdi Aroko egiletan aurkitu ditu, mota honetako arkitektura militarra garatzen hasi zenean. "Egon diren gaztelu eta dorreen berri izan dugu, kontserbatzen direnena zein desagertutakoena".

### LAZARRAGA OÑATIN

Oñatiko dorreen artean, Lazarragako (Zumalakarregi kalean, udaletxe aurrean dagoena) da ederrena eta egoera onenean dagoena ziurrenik. Gebaratarrek Pedro Perez de Lazarragari saldu zioten 1443. urtean.

Jauregia bi zatitan banatuta

dago: zatirik zaharrena XV. mendean erosi zion Pedro Perez de Lazarragak Oñatiko kondeari; zati berria, enparantza begira dagoena, XVII-XVIII. mendeetan etxe zaharrari itsatsitakoa da. Angeluzuzen itxurako dorrea da Lazarraga, eta kalera ematen duen aldean ate gotiko txiki bat dago, txikia baino balio artistikoa handikoa.

Bergarako kasuan, Izagirre dorrea eta Lamariano Torre base-erria azaltzen dira Armando Llanosen lanean. Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzua herriko toponimia sarean, Interneten, jartzeko proiektua lantzen ari da eta, bertan emandako informazioaren arabera, Goiauzoan dagoen Lamariñotorrea baserriaren lehen aipamena 1544. urtekoa da. Osintxuko Izagirre baserriaren aipamena urtebete lehenagokoa da. Batean zein bestean jendea bizi da gaur egun.

Aretxabaletako Otalora dorrea da Debagoieneko ezagunenetakoa. Urkulura doan bidean kokatuta dago, Azatza auzoan. 1315eko eraikina, 1984tik Euskadiko Kutxarena da. MCCko heziketa zentroa dago han gaur.



GALARTZA Irudian Galartza dorrea, Aretxabaletan.

ARMANDO LLANOS



LAZARRAGA Gebaratarrek Lazarragari 1443an saldutako dorrea, Oñatin.

ARMANDO LLANOS



OLAKUA Oñatiko Olakua dorrea, Bidaurretako monastegitik gertu dagoena.

LEIRE KORTABARRIA

I A A R D C L Z M U S I K A B M O C P O I A A R D C L Z P L I  
L R S E C E T R E L I B H E V G O I N A L R S E C E T R E L I  
P A A I S O E L K A R Z R E A R O Ñ D E P A A I S O N C N B C  
A S R T V P T Q B Ñ T D H E H L M N Q Q A S R T V P T Q B Ñ T  
L N D L I B U R U A K E K V E O E T N O L N D T N A T R R Q H  
V S H T E L K A R F M S S B Ñ D V L A I S I A L D I A A R F M  
V S H Ñ I N L S N E A B A R A O B M I V V S H Ñ I N L S N E A  
Z H K U L T U R A A Ñ R I G S S A A R R A S A T E N E P E A Ñ  
T E H H Q L F P T A A Q E H L H Z F R C T E H H Q L F P T A A  
E T V D L E T E S C Z M Z L A Ñ D A A M E T V D L E T E S C Z  
I S Ñ V R F I H R T A N L U H L R Ñ K U I J O K O A K H R T A

## Kultura eta aisialdian gura duzun guztia

Erdikokale, 14 - ARRASATE  
Tel.: 943 797 829

**ekar**  
elkar ezagutzen dugulako

[www.elkar.com](http://www.elkar.com)

ARRASATE • BAIONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA • GASTEIZ • IRUN • IRUÑEA • TOLOSA

MUSIKA > ROCK KONTZERTUAK BERGARAN ETA ARRASATEN

# AEBtako hard-rock eta heavy emanaldia egingo dute Jamen

Gaur, egubakoitza, Winger eta Fatal Smile Bergarako Jamen; eta Uzzhuaia eta 5 Twisters 3.60 aretoan. Bihar, zapatua, berriz, Delorean arituko da Arrasateko Taupa tabernaren kanpoan

IKER BARANDIARAN > BERGARA

Gaur, egubakoitza, hard-rock eta heavy doinuak bueltatuko dira Bergarako Jam aretora. 22:00etan Fatal Smile taldea arituko da, eta horren ostean, New Yorkeko Winger. 1986an Alice Cooper musikariaren taldean aritutako Kip Winger baxu jotzaileak Winger taldea sortu zuen beste lagun batzuekin. Estraineko lanak (*Winger*) milioi bat kopia saldu zituen. *In the heart of the young* eta *Pull* diskoek ere arrakasta handia izan zuten.

Horren ostean, 13 urte isilik egon ondoren, bueltan dira *IV* diskoarekin. Lan hori AEBtako armadari eskaini diote.



BERPIZTEA New Yorkeko Winger heavy eta hard rock taldea bueltan dator 13 urteko atsedeneren ostean.

TXALUPA

## DELOREAN, TAUPA KANPOAN

Bihar, zapatua, berriz, Zarauzko Delorean taldeak kontzertua egingo du Arrasateko Taupa tabernaren kanpoan, 18:00etan. Zarauzko taldearen disko-punk eskaintzak oso harrera ona jaso

du aspaldian, eta amorruez, elektronikaz, gitarraz eta jarreraz jositako emanaldi egiten dituzte.

## UZZHUAIA, 3.60 ARETOAN

Gaur, egubakoitza, Valentziako Uzzhuaia taldeak eta Arra-

sateko 5 Twister-ek emanaldia egingo dute 3.60 aretoan, 23:00etan. Uzzhuaia stoner-rock eta rock gogorrez zipriztindutako hirugarren diskoa aurkeztuko du. Arrasatearrek garage-rocka egiten dute.

MUSIKA > UNE TALDEAREN DISKOA KALEAN

## Une, Aitor Uriarteren proiektu berria, abian

Latzen eta Sen taldeetan aritutako abeslariak talde berria sortu du

I.B. > OÑATI

Latzen eta Sen taldeetan abeslari lanetan aritutako Aitor Uriarte oñatiarrak proiektu berria abiarazi berri du. Talde

berriak Une izena dauka eta dagoeneko diskoa dauka kalean. Oihuka diskoetxeak kalera du *Une Nare Eza* izeneko lana.

Uriartekin batera, Xabi Oraa de Zumarraga, Rober Gartzia eta Karmelo *Melows* musikariak daude taldean.

Pop-rocka, metala, gitarra gogorak eta programazioak batu dituzte hamaika kantuz osatutako disko horretan.



UNE Aitor Uriarte oñatiarra da taldeko kantaria.

GOIENKARIA

## DANBAKA

### Publikoaren Saria

Hemen, orain arteko sailkapena. Bozkatzeko hiru aukera daude: *danbaka.com* webgunean; SMS bidez: danbaka [laga tartea] taldearen izena eta bidali 5767 zenbakira. SMSaren kostua 1,20 euro+BEZ. Eta Espalioan jarritako kutxetan.

- 1 **DRAKES**  
OÑATI  
Botoen %35,3
- 2 **KLAKSON**  
ANTZUOLA-ZUMARRAGA  
Botoen %30,2
- 3 **UNNĒA**  
OÑATI  
Botoen %12,6
- 4 **ABY-KEM**  
BERGARA  
Botoen %6,5
- 5 **SCAM**  
BERGARA  
Botoen %5,8
- 6 **THE 5 TWISTERS**  
ARRASATE  
Botoen %4,9
- 7 **OZEN**  
ARRASATE  
Botoen %2,6
- 8 **MALENKONIA**  
OÑATI  
Botoen %0,7
- 9 **ANAL BAG**  
ARRASATE  
Botoen %0,5
- 10 **AZKAITER PELOX**  
BERGARA  
Botoen %0,3
- 11 **LOS CRETINOS**  
ARRASATE  
Botoen %0,2
- 12 **RAUL LASA**  
ARRASATE  
Botoen %0,2
- 13 **LITTLE, LITTLE, MUCH**  
ARRASATE  
Botoen %0,1
- 14 **MAHASTER RIVER**  
BERGARA  
Botoen %0,1
- 15 **BELCEBLUES**  
BERGARA  
Botoen %0
- 16 **JIM TNT & AMAIA**  
ARRASATE  
Botoen %0
- 17 **YOTOX**  
BERGARA  
Botoen %0
- 18 **MATX**  
ELGETA  
Botoen %0
- 19 **IGOR**  
ARETXABAETA  
Botoen %0
- 20 **INAELECTRIK**  
ARETXABAETA  
Botoen %0

**DANBAKA))))))**



**KAMISETAK SALGAI!**

2. KONTZERTUA  
**Azaroak**  
**3**  
Egubakoitza | 22:30  
Elgetako Kafe Antzokia

**Matx.** Elgeta.  
**Malenkonia.** Oñati.  
**Belceblues.** Bergara.  
**Aby Kem.** Bergara.

**INFORMAZIO + [www.danbaka.com](http://www.danbaka.com)**















**GARAIA**  
INMOBILIARIA  
Telefona Aranzadi 2  
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**BERGARA:**

- Ibargarai 118 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Bolu 100 m<sup>2</sup>. Ondo.
- Duplex berria, 72 m<sup>2</sup> + 34 m<sup>2</sup>.
- Zubiaurre 60 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Artekale 70 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Masterreka duplexa 170 m<sup>2</sup>.
- Zabalotegi 80 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Masterreka 79 m<sup>2</sup>. Ondo.
- Artekale 74 m<sup>2</sup>. Ondo.
- Angojar bi solairuko etxea. Berrituko.
- Masterreka 87 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Ibargarai 80 m<sup>2</sup>. Ondo.
- Fraiskoziari 102. Oso ondo.
- Arizuri 97 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Zubiaurre 62 m<sup>2</sup>. Ondo.
- Simon Arrieta 73 m<sup>2</sup>. Berrituko.
- Martoko 83 m<sup>2</sup>. Berritua.
- San Lorentzon 18 etxebizitza berri. Garaiea eta trastelekuarekin.

**GARAIEA eta trastelekuarekin.**

**ANTZUOLA:**

- Duplex berria erdialdean.
- Sagasti 71 m<sup>2</sup>. Ondo.



**DEBA**  
INMOBILIARIA  
Telefona Aranzadi 2  
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**BERGARA:**

- Ibargarai 118 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Bolu 100 m<sup>2</sup>. Ondo.
- Duplex berria, 72 m<sup>2</sup> + 34 m<sup>2</sup>.
- Zubiaurre 60 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Artekale 70 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Masterreka duplexa 170 m<sup>2</sup>.
- Zabalotegi 80 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Masterreka 79 m<sup>2</sup>. Ondo.
- Artekale 74 m<sup>2</sup>. Ondo.
- Angojar bi solairuko etxea. Berrituko.
- Masterreka 87 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Ibargarai 80 m<sup>2</sup>. Ondo.
- Fraiskoziari 102. Oso ondo.
- Arizuri 97 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Zubiaurre 62 m<sup>2</sup>. Ondo.
- Simon Arrieta 73 m<sup>2</sup>. Berrituko.
- Martoko 83 m<sup>2</sup>. Berritua.
- San Lorentzon 18 etxebizitza berri. Garaiea eta trastelekuarekin.

**GARAIEA eta trastelekuarekin.**

**ANTZUOLA:**

- Duplex berria erdialdean.
- Sagasti 71 m<sup>2</sup>. Ondo.

# IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK	3. LOKALAK	5. IRAKASKUNTZA	7. ANIMALIAK	9. HARREMANAK
101. SALDU 102. EROSI 103. ERRENTAN EMAN 104. ERRENTAN HARTU 105. ETXEAK OSATU 106. BESTELAKOAK	301. SALDU 302. EROSI 303. ERRENTAN EMAN 304. ERRENTAN HARTU 305. BESTELAKOAK	501. JASO 502. EMAN 503. BESTELAKOAK	701. SALDU 702. EROSI 703. EMAN 704. BESTELAKOAK	901. AGURRAK 902. HARREMANAK 903. DEIAK 904. BESTELAKOAK
2. GARAJEAK	4. LANA	6. MOTORRA	8. DENETARIK	10. RELAX
201. SALDU 202. EROSI 203. ERRENTAN EMAN 204. ERRENTAN HARTU 205. BESTELAKOAK	401. ESKAINTZAK 402. ESKAERA 403. BESTELAKOAK	601. SALDU 602. EROSI 603. ALOKATU 604. BESTELAKOAK	801. SALDU 802. EROSI 803. EMAN 804. HARTU 805. TRUKATU 806. GALDU 807. AURKITU 808. BESTELAKOAK	



**Garbi S.L.**

**PIPIEN, TERMITEN,  
ETA ABARREN  
AURKAKO TRATAMENDU  
ANTIXILOFAGOAK EGURREAN,  
ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.**

**649 84 67 09 (BERGARA)  
943 33 18 37 (HERNANI)**

ETXEBIZITZAK SALGAI



**ARRASATE - Eguzki dorrea**  
- 80m<sup>2</sup>.  
- 3 logeta / 2 bainugela.  
- Gutziz bertututa / Eguzkitsua.

**ARETXABALETA - Erdigunean**  
- 101m<sup>2</sup>ko duplexa.  
- 4 logeta / 2 bainugela.  
- Oso egoera onean / Leku lasaiean  
- 321.000 euro

**Ilargi plaza 6. ARETXABALETA - Tel.: 943 53 40 00  
Iturriotz kalea 23. ARRASATE - Tel.: 943 71 17 81  
www.arrietasanmiguel.com**

Opel Astra 1.7 salgai. Diesela. 1995. urtekoa. 2000 euro. Telefonoa: 686 67 17 38.

Opel Astra autoa salgai dago. Turbodiesela. Ondo zaindua. 3.300 euro. Deitu telefonoa: 647 29 93 44.

VFR 800i motorra salgai. Gritsa. Colin tapa motorraren kolore berdinekoa. 35.000 km. 1998koa. Maletarekin. Transmisio kit berria. 7000 euro negoziagarriak. Deitu telefonoa: 615 76 38 43.

Volkswagen Transporter 92 furgoneta salgai. Ohea, eguzki-oihala eta bizikletak eramateko dauka. Deitu telefonoa: 665 73 27 49.

Yamaha YZF 600 motorra salgai dago. 38.000 kilometro. 4.000 euro. Deitu telefonoa: 636 65 25 70.

**802. EROSI**

**Basotarako** lur sailak erosiko nituzke Bergaran edo inguru herrietan. Pinudiak botatzeko edo eta bota berri dien sail-lark hartuko nituzke. Deitu telefonoa: 699 85 49 58.

**806. GALDU**

**Arextabaleta.** Urriaren 11an, kurtzebarri eskolaren inguruko patioan euskal selekzioko txandalarren txaketa ahastuta utzi nuen, aurkitu duenak deitu mesedez. Deitu telefonoa: 635 20 78 98.

**Arrasate.** Geografia eta historia-riako testu liburua galdu dut. DBH 2. mailakoa. Deitu telefonoa: 649 45 54 93.

**Oñati.** Herri gunean poltsikoko telefonoa galdu nuen. Aurkitu duenak deitu. 943 78 62 38.

**Txaketa.** Neurria ez den urdin iluneko txaketa bat hartu nuen Maritxu gauean Ekaitz tabernan. Bestalde, norbaitek EasyWear markako txaketa urdin bat hartu zuen. 639 96 30 98.

**807. AURKITU**

**Argazki kamera** aurkitu nuen Orizolaletan Kurtzeta artean. Deitu telefonoa: 943 77 16 00.

**Ezkontza-eraztuna** aurkitu dute Arextabaletako Gernika plazan. Udaltzera jo dezala galdu duenak. Deitu telefonoa: 943 71 18 62.

**808. BESTELAKOAK**

**Bergara.** Musika talde gazte batek batera-jolea behar du. Aritz. Deitu telefonoa: 675 70 81 93.

## 1/ ETXEBIZITZAK

**101. SALDU**

**Antzuola.** Duplexa salgai Sagasti Auzoan. Eraikuntza berria. Garaie handia. 666 72 47 12.

**Antzuola.** Etxebizitza salgai Sagasti auzoan. Hiru logela, bi komun, egongela, sukaldea, despentsa, balkoia eta terraza. Garaiea aukeran. 607 63 48 88.

**Aramailo.** Zaharberritutako etxebizitza salgai. 90 metro koadro. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna. 38 metro koadroko ganbarra eta 15 metro koadroko trasteleku dugu. Altzari berriak. 16:00etatik aurrera deitu. 658 74 72 20.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Ferrerías kalean. Teilatupea, 70 m<sup>2</sup> bi logela, komuna, sukaldea + egongela bat egin, bi trasteleku, gutziz jantzita. Deitu 20:00etatik aurrera. 656 78 40 96 edo 943 79 54 81.

**Arrasate.** Otolara 2, azken pixua, ikuspegi zoragarria, 3 logela, 2 komun, bizitzera sartzeko moduan. 675 71 37 27.

**Arrasate.** 3 logela, sukaldea, egongela, komuna balkoia eta trasteleku. Igoailua eta gutziz jantzita. 943 79 60 88.

**Arrasate.** 86 m<sup>2</sup>ko etxebizitza argitsua. Berritua, jantzia eta bista politak. 652 76 95 12 edo 626 36 65 38.

**Arrasate.** Etxebizitza eraberritua salgai San Andresen. 200.000 euro. 943 79 24 59.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Ferrerías kalean. Teilatupea, 70 metro koadro. Bi logela, egongela eta sukaldea bat egin, komuna eta bi trasteleku. Argitsua eta dena jantzita. 20:00etatik aurrera deitu. 943 79 54 81.

**Arrasate.** Zerrajera kalean. 97 m<sup>2</sup>. Hiru logela, bi bainugela eta egongela. Garaiearekin. 605 77 58 64.

**Arrasate.** Erdi aldean etxebizitza salgai. 82 m<sup>2</sup>. Hiru logela, bi bainugela, egongela, sukaldea eta ganbarra. 637 83 18 47.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai. 140 m<sup>2</sup>. Bi terraza, bost logela, sukaldea, bi bainugela eta egongela. 647 41 93 66.

**Bergara.** Etxebizitza salgai erdialdean. Hiru logela, egongela, bainugela ta sukaldea. Dena kanpoaldera, bista onekin. Pisu altua, igogailuarekin. 620 18 59 06.

**Bergara.** Etxebizitza salgai San Pedro kalean. 605 73 37 39.

**Bergara.** Bidekurutzetan, 50 m<sup>2</sup>. gutziz jantzita eta berritua. 258.500 euro. 699 65 48 34.

**Bergara.** Duplexa da eta berrituta dago. Sukia egiten dabilen horietako bat, ertzairetearen parean. 646 16 62 03.

**Bergara.** Etxea salgai Martokan. 619 92 94 74.

**Bergara.** Etxebizitza salgai erdigunean. Berrituta. Telefonoa: 667 80 92 89.

**Bergara.** Ortubar kalean. Eraikin berria. 100 m<sup>2</sup>. Lau logela, egongela, bi bainugela, bi balkoi. Berogailua du. Prezio ona. Negozigarria. 943 76 25 38.

**Bergara.** Ibargarai kalean eraikuntza berria. 87 m<sup>2</sup>. Oso eguzkitsua. 687 97 64 55.

**Bergara.** Martokan 82 m<sup>2</sup>. Bigela eta egongela-jangela. komun handia, balkoia, trasteleku eta igogailua ditu. Gutziz berritua eta jantzita. Prezio ona. 661 80 00 46 edo 619 28 37 93.

**Bergara.** Masterreka kalean pisua salgai. 627 01 64 79.

**Bergara.** Simon Arrieta. 80 m<sup>2</sup>. Berogailua, igogailua, berrituta. Garaiea aukeran. 664 73 49 60.

**Bergara.** Zubiaurre kalean. Gutziz berritua. Hiru logela, balkoia, ganbarra eta berogailua. 943 28 76 36.

**Mutriku.** Txaleta. Deitu telefonoa honetara: 943 79 22 79.

**Oñati.** 86 m<sup>2</sup>. Bidebarrietan, hiru logela, sukaldea, egongela, bi bainugela, ganbarra eta garaiea. 635 73 08 86.

**Oñati.** Etxea salgai. Bigarren solairuan. 4 logela, 2 bainu, egongela handia, sukaldea eta trasteleku. 943 78 06 72 edo 646 95 80 62.

**Oñati.** Arantzazuko Ama kalean. 70 m<sup>2</sup>. Bi logela, bi bainugela, egongela, ganbarra. Gauean deitu. 943 71 62 58.

**Oñati.** Etxebizitza salgai. 943 78 03 08 edo 656 74 80 47.

**Oñati.** Euskadi etorbidean etxea salgai. Oso eguzkitsua. 945 14 18 17 edo 645 72 42 42.

**Oñati.** San Lorentzon. Garaiearekin eta ganbareekin. 943 78 03 08 edo 656 74 80 47.

**103. ERRENTAN EMAN**

**Arrasate.** Gutziz jantzitako etxea alokatzen da Uribe auzoan. 667 50 41 03 edo 658 70 91 54.

**104. ERRENTAN HARTU**

**Arextabaleta.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Antonio. 679 14 51 45.

**Arrasate.** Gazte batek logela bateko pixu bat errentan hartuko luke. 639 96 30 98.

**Bergara.** Bikote gazte batek etxea hartuko luke errentan. Telefonoa: 679 31 62 80.

**Bergara.** Etxea hartuko nuke errentan. 665 75 52 11.

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 654 07 39 95 edo 943 53 22 11.

**Debagoiena.** Etxea errentan hartuko nuke. 630 31 84 34.

**Debagoiena.** Etxebizitza errentan hartzen ditut. Bi logeladuna eta garaiearekin. 627 43 92 70.

**Familia batek** etxebizitza errentan hartuko luke Bergaran edo Arrasaten. 665 75 52 11.

**Oñati.** Pisu txikia edo estudioa errentan hartuko nuke. Telefonoa: 652 70 85 26.

**105. ETXEAK OSATU**

**Arrasate.** Etxea osatzeko lagun bat behar dugu. Kepa. 676 18 60 82.

**Arrasate.** Logela bat errentan ematen ditut. Zentroan dago. Deitu 19:00etatik 20:00etara bitartean. 943 79 87 59.

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarki bakarrir iragarriko ditugu.

# 943 25 05 01

**sailkatuak@goiena.com**

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 16 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.  
GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarki ondorior sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ARETXABALETA**

**"Bodega Riojana" esku aldatzen da.**  
Prezioa: 42.000 €  
Kontratua: 2014 arte  
600 09 19 59  
(21:00etatik 23:00etara)

**2/ GARAJEAK**

**201. SALDU**

**Antzuola.** Garaie itxia salgai Kalegoian. Bi autoren dokoia du. 666 44 10 09.

**Arextabaleta.** Garaie itxia salzten edo alokatzen duterdi aldean (Sta Kruz). 685 72 16 52 edo 665 73 40 09.

**Arrasate.** Garaie itxia Erguian solairuan. Autoa erraz sartzeko moduan, manioabrak gabe. 669 49 49 96.

**Bergara.** Garaie itxia. San Lorentz auzoan (Zapalaitz auzian). 943 76 40 05.

**Bergara.** Garaie itxia salgai Ibargarain. 645 72 06 47.

**203. ERRENTAN EMAN**

**Antzuola.** Garaie emango nuke errentan Sagastin. Trasteleku dugu. 616 03 05 01.

**Aramailo.** Garaie itxi eta berria Iturri Zurri kalean. 15 m<sup>2</sup>. Gazez deitu. 945 44 51 97.

**Arextabaleta.** Garaie itxia ematen da errentan. Andramari auzunean. Deitu telefono honetara: 943 77 12 81.

**Arrasate.** Garaie itxia emango nuke errentan Zigarrolako auzoan. Deitu telefono honetara: 629 42 26 54.

**Bergara.** San Lorentzon garaie errentan ematen da. Telefonoa: 679 31 62 80.

**3/ LOKALAK**

**303. ERRENTAN EMAN**

**Arextabaleta.** Lokala alokagai Durana 36an. Gutziz berrituta. 943 79 10 60.

**Arrasate.** Bulegoak errentan ematen dira Otolara kalean 18an, Uarkapeko arkupetan. Deitu telefono honetara: 638 17 93 63.

**304. ERRENTAN HARTU**

**Bergara.** Gazte koadrila batek lokala hartuko luke errentan. 659 98 13 76.

**Lokal bat** nahi dugul 10 pertsona lagun taldeak lokal bat hartuko luke errentan Bergaran. Ekonomikoa eta zentroko kurreran (ahal bada). Deitu telefono honetara: 685758695 (Julen).

**ARETXABALETA**

**"Bodega Riojana" esku aldatzen da.**  
Prezioa: 42.000 €  
Kontratua: 2014 arte  
600 09 19 59  
(21:00etatik 23:00etara)

**4/ LANA**

**401. ESKAINTZAK**

**Arextabaleta.** Umeak zaintzeko pertsona behar da. Gurago euskaraz badaki. 943 71 20 57.

**Arrasate.** Neska edo mutil euskalduna behar da bi urteko umea zaintzeko. Goizez. 943 77 21 02 edo 618 55 46 64.

**Bergara.** Emakumea etxeko lan egiteko, egunean hiru orduz: 12:30-15:30. 656 74 29 28.

**Bergara.** Neska euskalduna behar da bi urteko eskola partikularrekin. DBHko 3. eta 6. mailakoak. 619 08 81 40.

**Bergara.** Pertsona bat behar dut, informatikako eskolak emateko. Pili. 675 70 10 63.

**Bergara.** Goizeko 07:00etatik 09:30era lan egiteko norbait behar da. Euskaraz hitz egitea baloratuko da. 943 03 89 23.

**402. ESKAERAK**

**Arrasate.** Emakume euskalduna umeak edo adineko pertsonak zaintzeko prest. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Esperientziadun emakumea gertu adinekoak zaintzeko. 943 03 12 80.

**Arrasate.** Jostun lan egiten ditut. 943 79 19 55.

**Arrasate.** Neska arduratsua batek umeak eta pertsona nagusiak zaindu edota garbiketalarik ere egiteko litzuke. Deitu telefono honetara: 662 08 22 03.

**Bergara.** Emakumea gertu etxeko edo tabernak garbitzeko. Claudia. 671 41 22 16.

**Bergara.** Emakumea gertu etxeko lan egiteko, pertsona nagusiak zaindu edota bestelako lan egiteko. 652 75 30 27.

**Bergara.** Emakumea gertu dago etxeko lan egiteko (orduka). 658 33 26 79.

**Bergara.** Emakumea gertu etxeko lan egiteko, eta nagusiak eta umeak zaintzeko. Telefonoa: 662 08 22 03.

**Bergara.** Emakumea gertu orduka lan egiteko, goizez. Sukaldeen laguntzako, garbiketalarik ere egiteko eta antzekoetarako. Telefonoa: 665 75 52 11.

**Bergara.** Etxeko lan egiteko, adinekoak edo umeak zaintzeko gertu nago. 654 07 39 95.

**DEBAGOIENA**

**Janari prestatuen denda batek sukaldaria behar du.**  
675 70 82 36

**5/ IRAKASKUNTZA**

**502. EMAN**

**Arextabaleta.** Ingeles eskolak emango nituzke. 943 79 03 83.

**Arrasate.** Eskola partikularrak ematen ditut. Deitu arratsalde. 646 54 54 44.

**Arrasate.** Goi Mailako Ingeniari Industrialak klase partikularrak ematen ditu. Matematika, fisika, marrazketak, ekologia, elektrizitatea... Maila guztiak. Esperientzia handia. 630 71 35 83.

**Bergara.** Neska lanerako gertu, edozein motako lanetan; orduka edo egun osoan. Telefonoa: 636 31 15 36.

**Bergara.** Umeak edo adinekoak zainduko litzuke izaera atsegineko neska batek. Telefonoa: 662 08 22 03.

**Debagoiena.** Haurrak edota pertsona nagusiak zainduko nituzke. Garbiketalarik ere egiteko prest. Deitu telefono honetara: 628 82 96 56.

**Debagoiena.** Edozein lan egiteko gertu dago mutil bat. Telefonoa: 666 77 16 33.

**Debagoiena.** Edozein lan egiteko gertu daude bi neska. Telefonoa: 676 75 32 30.

**Debagoiena.** Emakumea prest etxeko lan egiteko eta haurrak zaintzeko. Deitu telefonoa: 662 08 22 03.

**Debagoiena.** Erizain laguntzailer titulua duen neska gaztea, zaharrek eta gaixok zaintzeko gertu dago (aste bukaeratan). Euskarara. Deitu telefonoa: 679 94 07 11.

**Debagoiena.** Etxeko lan edo tabernak zaintzeko prest. Baita zerbizari lan egiteko ere. Deitu telefonoa: 605 71 28 96.

**Debagoiena.** Etxeko lan egiteko edota haurrak eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. Telefonoa: 646 46 48 58.

**Gazez** nagusiak edo gaixok zaintzen lan egiteko. Deitu 13:00etatik aurrera. Deitu telefonoa: 699 72 49 68.

**Neska** prest dago umeak edo pertsona nagusiak zaindu, ostalaritzan aritu edo garbiketalarik ere egiteko. Arrasaten edo Arextabaletan. Deitu telefonoa: 638 15 52 28.

**Oñati.** Emakume euskalduna goizez, 4 bat ordur, lan egiteko gertu. Deitu telefono honetara: 645 00 72 03.

**ANGIOZAR**


**Ortzi erretegia alokatu egiten da.**  
943 78 22 80  
665 72 24 46

**6/ MOTORRA**

**601. SALDU**



Bergarako **Argiñe Zurututza** eta Ordiziako **Joseba Juarez** zapatuan ezkonduko dira Zumarragako Antioko Andre Mariaren basilizan. Bazkaria Etxe Berri jatetxean egingo dute. Zorionak, familiakoen eta lagunen partetik!



**Eider Muruamendiaraz** arrasatearra eta **Josu Arenaza** aretxabaletarra zapatuan, urriaren 28an, ezkonduko dira Arrasateko udaletxean. Etxeko guztien partetik, zorionak eta ondo-ondo pasa eguna!



Arrasateko **Alberto Rueda** eta **Emi Cabanillas** urriaren 28an ezkonduko dira Arrasateko udaletxean. Arrazolan egingo dute bazkaria familia arteko eta lagunekin. Bidaian Argentinara eta Brasilerajoaingo dira. Zorionak eta urte askotarako, familiakoen partetik!

## hildakoak

- **Rosario Jacinta Letamendi Zelaia.** Oñatin, urriaren 16an. 82 urte.
- **Isabel Matilla Segovia.** Arrasaten, urriaren 17an. 74 urte.
- **Isabel Alcazar Marmol.** Arrasaten, urriaren 17an. 95 urte.
- **Jose Mari Arregi Aranburu.** Elgetan, urriaren 19an. 79 urte.
- **Maria Victoria Maiztegi Lizarraga.** Arrasaten, urriaren 19an. 48 urte.
- **Juanita Galarraga Labaka.** Oñatin, urriaren 19an. 88 urte.
- **Maria Arantzazu Elortza Azkoitia.** Oñatin, urriaren 19an.
- **Josu Andoni Ugalde Argatxa.** Bergaran, urriaren 20an. 84 urte.
- **Jose Maria Erostarbe Leibar.** Oñatin, urriaren 20an. 75 urte.
- **Ciriaco Fabian Mateo.** Aretxabaletan, urriaren 21ean. 51 urte.
- **Maria Pilar Murgoitio Gabilondo.** Bergaran, urriaren 22an. 101 urte.
- **Josefa de la Torre Garrido.** Arrasaten, urriaren 23an. 81 urte.
- **Maria Luz Gutierrez Gonzalez.** Aretxabaletan, urriaren 25ean. 79 urte.



**Angel Herran** eta **Irene Pinedo** arrasatearrak 1956ko urriaren 12an ezkondu ziren Gasteizen. Urriaren 12an Arantzazun ospatu zituzten urrezko ezteiak familiakoekin. Horren ostean, Txopetua jatetxean bazkaldu zuten. Familiaren partetik, zorionak!



Soraluzeko **Juan Alberdi** eta Bergarako **Itsaso Iribekanos** urriaren 28an ezkonduko dira Liernian eta bertan egingo dute bazkaria ere. Zorionak, bikote, eta piña asko jan ezkon bidaian Karibe aldean! Lagunen partetik.

### URTEURRENA

## Jesus Errarte Madinabeitia

Hirugarren urteurreneko meza domekan, urriaren 29an, 12:50ean, Eskoriatzako Santa Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

### ESKER ONA

## Josu Andoni de Ugalde Argatxa

Bergaran hil zen 2006ko urriaren 20an, 84 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2006ko urriaren 27an.

### ESKER ONA

## Maria Pilar Murgoitio Gabilondo

Damian Azkarateren alarguna

Bergaran hil zen 2006ko urriaren 22an, 101 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2006ko urriaren 27an.

## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:  
**943 25 05 01**

Edo zatoz ordezkari batera, eguazten eguerdia baino lehen:

### Arrasate

Goiena: Otolara lizentziaduna 31. 943 71 25 11. / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 79 21 00.

### Bergara

Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 01.

### Oñati

Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65. / Laixan euskara elkarte: Bidebarrieta 18. 943 71 63 11.

### Aretxabaleta

Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

### Aramaio

Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

### Elgeta

Mariasun janaridenda: Salbador 26. 943 76 81 90.

**Eskelaren prezioa: 85 euro.**

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAN, bietan, argitaratuz gero, **100 euro.**

**Goienkaria: astero, 19.500 etxetan.**



### ESKER ONA

## Jesusa Biain Markuleta

Oñatin hil zen 2006ko urriaren 15ean, 74 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Oñatin, 2006ko urriaren 27an.

### ESKER ONA

## Rosario Jazinta Letamendi Zelaia

Gasteizn hil zen 2006ko urriaren 16an, 82 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Oñatin, 2006ko urriaren 27an.


**bilabila 7**



**hitz gezidunak**

		Begiradak	Oinarrizko osagai	Kartetan, ez segitu
		Edari nahasketa	Argia	Letra izena
IRUDIKO MENDIA		Puskatu, tarratatu		
Ziba	Uko			
Harro	Eako biztanle			
		Letra grekoa	Tona	
		Atzizkia	Gibela	
Janaririk ez hartzea			Holmioa	
Goragale			Legez, bezala	
		Egoki		
Zati, puska			Zoro, ergel	
Garesti			Iodoa	
		Ukan		

GOIENKARIA



**umore giroan**

Kike Amonarriz

**Txanponak**

- Ba al dakizue zein den libarren, dolarraren eta errubloaren artean dagoen erlazioa?  
- (!!!)  
- Errublo libra batek dolar bat balio du.

**Guisking**


Txirrina etengabe jotzen ari da norbait. Atea zabaldu eta semea aurkitu du Irenek:  
- Ama, ama! Aita eskaileretan behera erori da bi litro whisky gainean dituela eta muturra puskatu du!  
- Eta ez zuen dena zerrikeria bat eginda utziko, ezta?  
- Ez! Ahoa itxita eduki du!

**sudokua**

	5						8
7			4			2	
1				7	3	4	6
		5		9			7 8
			6	4			
4	2			7		5	
5	8	6	1				3
		3		6			5
1							9

**hieroglifoa**

Zer erosi zenuen?



**hizki salda**

Debagoieneko 5 musika talderen izenak

A	Z	E	H	U	G	I	J	Z
N	U	D	R	A	K	E	S	L
D	S	D	I	K	A	I	R	U
A	C	U	A	L	R	O	I	G
R	A	D	H	A	K	N	N	O
T	M	E	T	K	A	E	D	I
O	N	G	A	S	I	Z	O	R
D	E	M	X	O	T	O	Y	A
D	I	Z	P	N	Z	T	E	Z

**soluzioak**



N	V	Z	I	U	R	V	K
O	R	E	O	A	T	A	
							B
O	H						B
T							F
N	E						Z
V	A						
L	E						K
P	A						S

**bono fotoa**



**Duela urtebete eraitsitako gaztetxea ez zegoen Washingtonen, ezta Marokon ere, izenak hala adieraz balezake ere. Oñatiko zein auzotan zegoen?**

Argazkia eta galdera > Iñigo Biain

**Super BM** IFA

Super BMk emandako  
**50 euroko erosketa-txartela**  
zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO  
Goienako edozein egoitzara

**Orlando tomate frijitua**  
410 g-ko lata

**0,53 €** 88 pta.  
Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**  
ANTONIO ELORTZArendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!  
Galderaren erantzun zuzena: Gureia.

6	9	5	3	8	7	1	2
4	9	6	3	8	7	1	2
5	1	8	9	2	7	3	4
3	2	3	4	9	7	2	3
1	6	1	4	9	7	2	3
2	3	2	3	4	9	7	2
8	7	1	6	5	4	9	3
6	3	5	2	9	1	4	7
4	6	3	4	7	3	4	6
9	5	2	3	2	5	9	7
7	1	8	7	1	8	7	1

Jeroglifkkoa: Bideo bat

Z	E	T	Z	N	P	Z	D	I	Z
V	O	T	O	X	M	O	D	E	M
R	Z	I	S	I	G	N	O	R	O
I	Z	K	A	V	E	T	M	T	
N	N	A	K	H	A	D	R	A	
I	G	U	A	L	R	O	A	C	
U	R	I	K	A	I	R	D	S	
L	S	L	R	A	K	E	N	U	
Z	E	H	U	G	I	J	A	Z	



# IKER

**SUKALDEAK:**

ARRASATE:  
Udala Plaza z/g  
943 79 00 43

OÑATI:  
San Lorentzo 1  
943 53 35 48

**BAINUAK:**

ARRASATE:  
Zarugalde 52  
943 79 99 42

FAGOR 



## ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, SHARP eta EDESA etxeresnetan sekulako eskaintzak!  
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.



**AURREKONTUAK KONPROMISO BARIK.**



**HOZKAILUA COMBI 4FAC495**

**435 €** 72.645 pta 



**ONTZI-GARBIGAILUA LJA - 0140**

**275 €** 45.925 pta 



**GARBIGAILUA LA-110**

**315 €** 52.605 pta 



**"EVA" MAHAIA**  
110x70 cm

**365 €** 60.731 pta



**TELEBISTA SHARP LC-26P55**  
LCD 26"

**899 €** 149.557 pta



**TELEBISTA SHARP LC-32P70**  
LCD 32" LTD BARNE


**1.250 €** 207.950 pta



**"MARIAM" MAHAIA**  
110x70 cm

**270 €** 44.924 pta

ETIKETA ENERGETIKOA



**Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.**

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.

Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Oxel Erostarbe &gt; Aralarko Gipuzkoako antolaketa arduraduna

# "Futboleko ostikoak moduan, politikan jasotakoak ere osatu egiten dira"

Geografia ikasi zuen Oxel Erostarbek (Elgeta, 1979), baina kazetari moduan hasi zen lane-

an. AEKn euskara eskolak ematen jarraitu zuen, Aralar alderdian lanean hasi zen arte. Orain,

maiatzeko hauteskundeak prestatzen dabil buru-belarri, baina Elgetako futbol taldean jokatzeko

ko tarte hartzen du, golak egiten, gainera. Hori geure begiekin ikusi arte...

XABIER URTZELAI > ELGETA

Elgetan harrapatu dugu Oxel. Arratsaldea batzar batetik bestera igaroko badu ere, goizean trankil dabil. Espaloian egin dugu elkarrizketa, Danbakako estreinaldirako dena gertatzen dabilzan bitartean.

**Zer izan gura zenuen heldutan, politikari ez, behintzat, ala?**

Ez, ez. Gaztetan irakasle izan gura nuen, eta irakasle izateko zerrendetan nago. Gainera, argi daukat etorkizunean irakasle izango naizela.

**Ez duzu politikan jarraitzeko asmorik?**

Ez, nahiz eta gustura nagoen. Gainera, argi daukat politikari batek ez lituzkeela zortzi urte baino gehiago kargu berean egin behar; legeak arautu egin behar luke hori. Bestela, pertsonen taldeek baino garrantzi handiagoa hartzen dute, eta erakunde guztietan taldeak izan behar du garrantzia, ez urte mordoa karguan daramatzen politikoak.

**Geografia ikasi zenuen, baina, zergatik?**

Batetik, Bergarako institutuan geografia irakasle ona izan nuelako. Eta, bestetik, geografiak lantzen dituen giza arloak interesgarriak iruditzen zaizkidalako. Geografia ez da mendien edo erreken izenak jakitea, bakarrik.

**Eta, Irati eta Larraun errekek Euskal Herrikoak direla ikasi zenuen?**

Bai, horrelako arazorik ez genuen izan, eta uste baino gehiagotan landu genuen Euskal Herria gaia, gainera. Gehiago arduratu ginen euskaraz ikasteko borroka egiten.

**Ze igartzen duzu unibertsitate sasoiatik faltan?**

Parral tabernan izaten genuen giroa. Ordu mordoa egiten genuen han, eta oraindik ere gutaz gogoratzen dira. Gainera, Espaloia bera han sortutako buru-jan baten ondorioa da. Horrekin batera, hiri batek ematen duen anonimotasunaren falta ere igartzen dut, Elgetan ez dago-eta horrelakorik.

**Urteak egin dituzu UDA futbol taldean jokatzeko.**

Bai, zortzi urte. Aretxabaletan lagun mordoa egitearekin batera, gauza batekin konturatu naiz: Realak eta Athleticek zer egin duten baino gehiago, UDak zer egin duen inporta zaion jendea



XABIER URTZELAI

## PERTSONALA

**Herria:** Elgeta. **Adina:** 27 urte. **Ikasketak:** Geografia lizentziaduna. **Zaletasunak:** Lagunekin eta bikotekidearekin egotea. **Bete duzun amets bat:** Elgetan kultura modu duin batean egiteko tokia izatea. **Betezko daukazun amets bat:** Etxean, bi barik, gehi-

go izatea. **Elgetan gustuen duzun lekua:** Asentzio. **Mania bat:** Goizean jaiki eta egunkaria erostea. **Liburu bat:** Joseba Zulaikaren *ETAren hautsa*. **Parranda egiteko leku bat:** Elgetan hasi eta Eibarren amaitu. **Gizadiaren asmakizun onena:** Preserbatiboa.

dagoela, alegia. Txikia baloratzea garrantzitsua da, eta eskertzekoa da jende horrekin topo egitea.

**Eta botak zintzilikatzeko ordua iritsitakoan, Elgetan sortu duzue taldea.**

Halaxe da, bai. Gainera, herritarron artean ere futbol taldeak interesa piztu du, eta harritu egin nau horrek. Baina, oso diferentea da. Aretxabaletan futboleant jokatzeko arduratzen ginen, eta hemen entrenatzailea bilatu, fitxak egin, jokatzeko lekua bilatu... dena egin behar izan dugu guk.

**Non jaso dituzu ostiko gehiago: futboleant egindako urte guztietan, ala politikan daramatzazu lau urteotan?**

Egia esateko, politikan jasotako ostikoak Elgetako udaletxean jasotakoak izan dira, EAJ-EA taldeak emandakoak. Herriaren alde lan egiteko borondate onarekin aurkeztu ginen gu, eta konturatu gara hori ez dela nahikoa. Herri txiki batean, lana elkarrekin egin behar da, baina borondatea behar da horretarako. Futboleko ostikoak moduan, baina, politikakoak ere osatu egiten dira.

**Bakea futbol partidua izanda, nor dago jokoan kanpo?**

PP alderdia partidua jokatzen ere ez da hasi. Eta, EAJ, EA eta Batasuna, euskal gizartearen interesen alde baino gehiago, euren interesen alde dabilta jokatzen. Uste dut alderdi bakoitzeko agintari nagusienak gela batean sartu beharko lituzketela, eta gutxienez akordio batzuk lortu arte gelatik ez atera.

**Follate a la derecha leloa erabili du Iniciativa per Catalunya taldeak. Euskal Herriaren larrutan gutxi egiten dugula eta, ez dakit lelo horrek hemen balioko zukeen.**

Ezkerrekook gehiagotan egin beharko genuke larrutan, eskuinekoek gehiagotan asmatzen dute-eta. Alde horretatik, ezkerrekook aurreiritzi gehiago izaten ditugu bikotekidea aurkitzerako orduan, eta eskuinekoek ez dute horrelako arazorik izaten.

**Nortzuek botatzen dituzte gezur handiagoak: politikoeak ala kazetariak?**

Kazetari larregi dabil euren alderdi politikoak aginduta egi erdiak esaten; hori gezurra esatea baino okerragoa da.

## berriak

&gt; GOITB

**On Jose Luis Iñarra-ri eskainitako 'Berbaire' saioa asteburuan**

Martitzenean *Berbaire* saio berezia izan genuen GOITBn. On Jose Luis Iñarra, hogeita hamabost urtetan Arrasateko parrokoa izan zenaren biografia liburua aurkeztu berri dela aitzakia aproposa izan zen. Aitziber Aranburuzabala kazetariak, Jose Mari Velez de Mendizabal liburuaren egilea eta Eusebio Iñarra parrokoaren iloba bildu zituen mahaiaren bueltan. Asteburuan ere *Berbaire* ikusgai.

&gt; PROGRAMAZIOA

**'Hasiberriak' telesaila estrenatuko dute datorren astean**

Astelehenean *Hasiberriak* telesaila ikusi ahal izango duzue. Donostiara lanera edo ikastera joandako gazteak dira protagonista. Amodioa, sexua, drogak, familia, gazteen ametsak, arazo ekonomikoak eta lan bat lortzeko desioa izango dira, besteak beste, seriean landuko diren egoerak. Telesail honek *Elkartasunaren bideak* eta *Sustraia* saioak ordezkatuko ditu.

&gt; ARRASATE IRRATIA

**Astean izan dugunaren laburpena asteburuan entzungai**

Astelehenetik egubakoitza bitartean bidaiatzen du 107.7ko autobusak uhinetan barrena. Asteburuetan berriz, 10:00etan hasita astearen laburpena eskaintzen dizuegu.

Horrela bada, oraingo honetan, beste kontu askoren artean, Sahararren kanpalekuetara joango diren ibarreko ikasleen asmoak kontatuko dizkizuegu. Abenduko zubian abiatuko dira.

&gt; ARRASATE IRRATIA

**Azkaiter Pelox bakarlaría eta Drakes taldea asteburuan**

Pasa den egubakoitzean hasi zen Danbaka musika lehiaketa, Elgetako Espaloia Antzokian. Asko izan ziren bertaratu ziren musikazaleak; hala ere, aurtan ere, Arrasate Irratiaren bitartez ere jarraitu ahal izango duzue lehiaketa.

Horrela bada, zapatuan Azkaiter Pelox Bergarako bakarlariaren kontzertua eskainiko dizuegu, eta domekan, berriz, Oñatiko Drakes taldearekin gozatzeko aukera izango duzue.

'ILUNPEAN' &gt; EGUBAKOITZA, 22:15

**'Ilunpean' saioaren denboraldi berriari hasiera**

Gerardo Markuleta idazle oñatiarrak emango dio hasiera *Ilunpean* saioaren denboraldi berriari

GOIENKARIA &gt; ARRASATE

Gazteizen bizi da Gerardo Markuleta idazle oñatiarra. Azkenaldian poesia lanak kaleratu ditu batez ere: *Batak ez du beste kentzen*, *Ezjakintasuna*... Laster aurkeztuko du bere azken poesia lana. Baina poesia ez ezik narrazioak ere idazten ditu, eta itzulpengintzan ere esperientzia zabala dauka. ASTELEHENEKO GOIENKARIAN ere kolaboratzen du. Hau da bere ofizio eta erretzea da bere bizioa. Oihana Elortza kazetariak aurrez aurre izango du Gerardo Markuleta gaur bertan, *Ilunpean* saioan gaueko 22:15ean.



BI OÑATIAR Markuleta Oihana Elortzarekin izango da solasean.

GOIENKARIA

'ERREPORTAJEA' &gt; ASTELEHENA, 21:45

**'Begirada galduen hiria: San Juan de Dios' erreportajea astelehenean**

GOIENKARIA &gt; ARRASATE

Arrasateetik irten eta bagoaz Santa Ageda auzorantz, baina ez da Arrasateko auzo arrunt bat; San Juan de Dios ospitalea aurkituko dugu bertan, 100 urtetik gora gaixo psikiatrikoak zaintzen dituen. Historian zein medi-

kuntza alorrean erreferentea da. Egun, San Juan de Dios ospitaleak hamaika eraikin ditu, eta 292 ohe daude. Garai baten, askotariko dementziak eta desorekak zituzten gaixoak zeuden ospitalean. Gaur egun, berriz, esku bateko atzamarrekin konta-

ditzakegu San Juan de Diosen ostatu hartzen dutenen gaixotasunak: eskizofrenia, era askotako psikosiak eta nortasun-nahasteak. Terapia ezberdinekin, horiek guztiak sendatzen saiatzen dira San Juan de Dios ospitalean.

Bertan izan da Amagoia Lasagabaster kazetaria mediku eta gaixoekin hitz egiten. Jasotako testigantzak izango dira astelehenean eskainiko dugun erreportajearen ardatza. Gaueko 21:45ean izango duzue ikusgai *Begirada galduen hiria: San Juan de Dios* erreportajea.

## telebegi

Edorta Arana &gt; www.goiena.net/blogak/hamaika

## Aukeran

**D**anbakaren edizio berri eta hobetuaren emanaldi bat ikusi nuen, martitzenean. Aurretik, *Berbaire* saioan, Joxe Luis Iñarra Arrasateko parrokoa zenaren inguruan aritu ziren. Bere familiako baten bizipenek eta Jose Mari Velez de Mendizabalen liburu berriak aitzakia eman zuten Iñarraren kontuak jakinarazteko. Haren ostean, kolpean aurkeztu zuen Amagoiak (zein irudi ona ematen duen pantailan!) Danbakaren kontzertua. Eta, *House* (Cuatron, martitzenero, mediku ero) zain nuen arren, amaitu arte ezin izan nituen begiak GOITBtik kendu. Harritu egin ninduen gainera, zelako faktura dotorea duen aurtengo Danbakak, soinuaren eta irudien ere. Aurrekoan ez bezalako argiztapena eta plano motak ageri ziren. Errealizazio landua du. Profesionala. Baina, nola ez, Azkaiter Peloxen kontzertuak berak ere engantxatu ninduen. Badu, Billy Bragg-engan aurkitu nuen kantatzeko modua, gitarra hutsarekin aritzeko soiltasuna eta soltura, gustatu zaizkidanak. Iñarratik Peloxerako jauzia begiak altxatu barik eman nuen. Burua behartu barik.

## arrasate irrata

FM 107.7

## Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua. Ibarreko ikastoletatik Sahararren kanpalekuetara; Musakolako muskulazio-gela berbagal...  
16:00 Danbaka: Azkaiter Pelox.  
23:00 Danbaka: Azkaiter Pelox.

## Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.  
16:00 Danbaka: Drakes.  
23:00 Danbaka: Drakes.

## Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo autobusera!  
Albistegia  
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)  
Ibili Munduan geltokia  
Elkarrizketak  
Lorategiaren geltokia  
Zozketak  
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 71 17 31)  
12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.  
12:20 Izarren ordua: abesti ezagunak  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Igo autobusera! (errep.)  
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.  
17:15 Zorion agurren tarte (errep.)

## GOITBko programazioa

## Egubakoitza, 27

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Bihurkorra. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Teknopolis. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Didjeridu. 15:45 Gaurkoak. 15:47 16mm. 16:15 Hitz bitan. 16:45 Albistek. 17:15 Bihurkorra. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albistek. 19:15 Eltze beroa. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Bihurkorra. 20:45 Berriak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Hitz bitan. 22:15 Ilunpean. 22:45 Berriak. 23:15 Berbaire. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Jazmina. 00:15 Emisio amaiera.

## Zapatua, 28

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Nonochan, Bihurkorra eta Snorkeldarrak. 11:00 Ikusmira. 11:30 Jazmina. 12:00 Astekoak. 12:15 Bizitegia. 12:30 Didjeridu. 13:00 Eltze beroa. 13:30 Berbaire. 14:00 Danbaka. 15:00 Teknopolis. 15:30 Hitz bitan. 16:00 Erreportajea. 16:30 Ilunpean. 17:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Elkartasunaren bideak. 19:30 Klip@. 20:00 16mm. 20:30 Didjeridu. 21:00 Berbaire. 21:30 Danbaka. 22:00 Astekoak. 22:15 Klip@. 22:30 Ilunpean. 23:00 Erreportajea. 00:00 Emisio amaiera.

## Domeka, 29

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Snorkeldarrak, Nonochan eta Bihurkorra. 11:00 Mandio. 11:30 Erreportajea. 12:00 Danbaka. 13:00 Gatza eta berakatzak. 13:30 Berbaire. 14:00 Astekoak. 14:15 Bizitegia. 14:30 Didjeridu. 15:00 Ikusmira. 15:30 Marrazki bizidunak. 18:00 Jazmina. 18:30 Hitz bitan. 19:00 Elkartasunaren bideak. 19:30 Eltze beroa. 20:00 Astekoak. 20:15 Bizitegia. 20:30 Ilunpean. 21:00 Berbaire. 21:30 Danbaka. 22:00 Erreportajea. 22:30 Didjeridu. 23:00 16mm. 23:30 Danbaka. 23:30 Emisio amaiera.

## Astelehena, 30

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Bihurkorra. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Behazulo. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Munduari bueltak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ilunpean. 16:15 Klip@. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Erreportajea. 17:30 Motzean. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Berbaire. 18:15 Klip@ eta MKT. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klip@. 19:15 16 mm. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Bihurkorra. 20:45 Berriak. 21:15 Harmailatik. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Gatza eta berakatzak. 22:00 MKT. 22:15 Hasiberriak. 22:45 Berriak. 23:15 Erreportajea. 23:45 Gaurkoak. 23:47 Izan ziren. 00:00 Eltze beroa. 00:30 Emisio amaiera.

## Martitzena, 31

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Harmailatik. 14:15 Erreportajea. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Didjeridu. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Hasiberriak. 16:15 Ikusmira. 16:45 Albistek. 17:15 Marrazki bizidunak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Gatza eta berakatzak. 18:30 MKT. 18:45 Albistek. 19:15 Harmailatik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Nonochan. 20:45 Berriak. 21:15 Berbaire. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Danbaka: klakson. 22:15 16mm. 22:45 Berriak. 23:15 Hitz bitan. 23:45 Gaurkoak. 23:47 Harmailatik. 00:15 Emisio amaiera.

## Eguaztena, 1

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Nonochan, Bihurkorra eta Snorkeldarrak. 11:00 Ikusmira. 11:30 Jazmina. 12:00 Klip@. 12:15 Gatza eta berakatzak. 12:30 Didjeridu. 13:00 Eltze beroa. 13:30 Berbaire. 14:00 Danbaka. 15:00 Teknopolis. 15:30 Hitz bitan. 16:00 Erreportajea. 16:30 Ilunpean. 17:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Harmailatik. 19:30 Klip@. 20:00 16mm. 20:30 Didjeridu. 21:00 Berbaire. 21:30 Danbaka. 22:00 Hasiberriak. 22:30 Ilunpean. 23:00 Erreportajea. 00:00 Emisio amaiera.

## Eguena, 2

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea: Begirada galduen hiria. 14:15 Hasiberriak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Teknopolis. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Jazmina. 16:15 Ikusmira. 16:45 Albistek. 17:15 Marrazki bizidunak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Eltze beroa. 18:15 16mm. 18:45 Albistek. 19:15 Gatza eta berakatzak. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Nonochan. 20:45 Berriak. 21:15 Berbaire. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Danbaka: Ozen. 22:15 Didjeridu. 22:45 Berriak. 23:15 Erreportajea. 23:45 Gaurkoak. 23:47 Ilunpean. 00:15 Emisio amaiera.

Iban Arantzabal &gt; Goiena Telebistako zuzendaria

# "Herritarrei protagonismo handiagoa emango diegu, gertutasunean irabaziz"

"Telebista sozialagoa egingo dugu", dio Goienako ikus-entzunezkoen zuzendari berriak

Telebista ez ezik, [www.goiena.net](http://www.goiena.net) ere berrituta etorriko da hemendik gutxira

ENEKO AZKARATE &gt; BERGARA

Ikasturte berrirako parrilla berria prestatzen dihardu GOITBk. Programazioa, baina ez da aldatuko den bakarra. Izan ere, zuzendari berria du: Iban Arantzabal izango da Goienako ikus-entzunezkoen adarreko zuzendaria.

**Zuzendaria eta albistegietako arduraduna aldatu ditu GOITBk. Aro berria hasten da?**

Egia esan, txukuna izan da orain arte egindako lana eta hortik abiatuko gara. Herritarrei protagonismo handiagoa eman gura diegu, gertutasunean inbertsioa egin, ahal den txoko guztietara heldu. Albistegietan ahots ezberdinak gura ditugu, ahalik eta elkarre, politikari, erakunde... gehien, baina batez ere herritarren ahotsak interesatzen zaizkigu.

**Zertan igarriko da aldaketa?**

Aurkezle berriak, prentsaurreko gutxiago eta elkarrizketa gehiago, erreportaje ezberdinak, gaiak sakonago landuta, kaleko jendea-ri galdera gehiagotan... Telebista sozialagoa egingo dugu. Familietan berba egiten diren gaiak ekarriko ditugu telebistara. Programazioan ere badatzo aldaketak.

**Goiena Telebistak gertu dauka egitarau berria?**

Bai. Albistegietan aldaketa, *Berbaire*-n kolaboratzaile berriak, *Ilunpean*-en Euskal Herri mailako ezagun gehiago,



Goienako ikus-entzunezkoen zuzendaria, Iban Arantzabal, GOITBko erreklamazio gelan.

MAIDER ARREGI

Danbakako erreportaje zainduak, kirol tartekak irudi gehiagorekin...

**Euskal Herriko euskarazko telebista lokalen federazioko (Tokiko) kide da GOITB. Zein da Tokiko-ren helburua?**

Telebisten sektorean euskararen presentzia bermatzeko eta indartzeko politika eraginkorrak

**"Tokikoa eta euskaraz izatea balore positiboak dira eskaintza zabalean"**

**"Hamaikak izenik ere ez zuenean bultzatzaile eta zubi-egile izan gara isilean lan eginez, eta partaide izan gura dugu"**

bultzatzeko sortu da Tokiko. Euskal Herrian euskara hutsezko telebista egiten dugunon lana optimizatuko dugu, eta ahal delarik, baita berriak sortzeko urratsak eman ere. Euskarazko telebistok urteetan ikasitakoa konpartitzeko gunea da Tokiko.

**Gustura jasotzen dituzte debagoiendarrek Baztan inguruan ekoiztutako saiok?**

Trukaketa antolatua dugu Tokikoren bidez. Eta dudarik ez, Baztaneko kontuak, esaterako, gureago dira orain. Euskarak batzen gaitu euskalki ezberdina izanagatik. Asmatu dugu Lesakako arotz bat *debagoiendarren*. Lokaltasun handia duten saiokak dira, eta kilometro batzuetara grabatutakoa izan arren, gertutasunari eusten diegu. Gainera, hori horrela dela baieztatzen dute audientziek.

## Aurki aurkeztuko dituzte parrilla eta aurpegi berriak

Goiena Telebistak aurki aurkeztuko ditu parrilla eta aurpegi berriak. Buru-belarri dabilta lanean eta itxura aldetik ere izango dira berrikuntzak.

Edozelan ere, aldaketak eman dira dagoeneko zuzendaritzan: orain arte zuzendari zena, Oihane Agirre, beste zeregin batzuek arduratuko da telebistan: alde teknikoak landuko du, batik bat, eta zuzendaria Iban Arantzabal izango da.

Bestalde, Goiatz Arana izango da albistegien arduradun eta hark aurkeztuko du eguerdiko albistegia; iluntzekoa, ostera, Larrait Zebierok aurkeztuko du.

**Tokiko telebista digitalen dekretua onartu berri du Jaur-laritzak. Zer ekarriko dio horrek GOITBri?**

Eskatu genuen euskarazko kopuru bat ziurtatzea... Hala ere, zelanbait, positiboki diskriminatzen da euskararen alde eta hori gustatu zaigu. Gehiago zorrotz zitekeela? Ba bai. Atea aldenik alden ez, baina zirrikitu eder bat zabaldu da, hala ere. Telebista egiten dugunon txanda da. Emisioa 32 ordukoa izan behar da eta Tokikorekin elkarlana handitu behar dugu %60 arte sindikatu daitekeela jakinda. Behintzat, araututa ez egotetik legal izatera pasatuko gara. Errealitate bat gara eta orain horren konstantzia geratuko da.

**Zelako etorkizuna dute GOITB bezalako euskarazko telebista lokalek?**

Inork baino handiagoa. Bereizitasunak hartuko du garrantzia eta gure telebista gertuko ondoen mimatzen duena da. Tokikoa eta euskaraz izatea balore positiboak dira eskaintza zabalean.

**Zelan hartu du GOITBk Hamai-ka enpresaren sorrera?**

Hamaikak izenik ere ez zuenean bultzatzaile eta zubi-egile izan gara isilean lan eginez; aurkezpenen ez ginen egon argazkian; eta gaur egun partaide izatea eskatuta dugu. Goiena-Hamaika elkarlanak fruituak ematea gura dugu. Telebista era hau egiten tokiko telebistak dakigu eta eskarmentu hori proiektu honetan jartzeko borondatea badugu.

**Goiena.net-eko eta Arrasate Irratiko zuzendaria ere bazara.**

Multimedia izatera bermatzeko moduetako bat da hiru hedabideetan jardutea. *Goiena.net*-ek gaintzeko medioak batuko ditu etorkizun hurbilean: irrati, GOIENKARIA eta telebista. Parte-hartzea bultzatuko dugu [www.goiena.net](http://www.goiena.net)-en. Arrasate irratiari dagokionez, udal irrati dela ezin dugu ahaztu, baina bagabiltza irrati eredu berri baten bila.

## Zure negozioaren erakusleioa Interneten

[www.goiena.net](http://www.goiena.net)-eko **blog komertzialak**

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskari merkea
- Emaizta onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

**Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:**  
[www.goiena.net/blogak](http://www.goiena.net/blogak)  
[azabarte@goiena.com](mailto:azabarte@goiena.com)  
943 76 92 70

Eta baita ere:

[www.aizue.com](http://www.aizue.com)  
[www.lilura.com](http://www.lilura.com)  
[www.baster-aldejetexea.com](http://www.baster-aldejetexea.com)  
[www.ehmff.com](http://www.ehmff.com)  
[www.haurtxoa.com](http://www.haurtxoa.com)  
[www.klorofila.com](http://www.klorofila.com)  
[www.landatuze.com](http://www.landatuze.com)  
[www.uxarte.net](http://www.uxarte.net)



**Goiena.net**  
Debagoieneko ataria Interneten

[www.goiena.net/blogak](http://www.goiena.net/blogak)

/4quattro4  
/aebpn  
/aretxargi  
/argi-plastik  
/arregi  
/atai  
/azkarate

/briz-asegurak  
/BZ-sistemas  
/dragon-oriental  
/dukiena  
/ego

/ekilore  
/elejalde  
/ezkutuorly  
/galgorri  
/gallastegi  
/ganesha  
/garaia

/gertu  
/gorkagarai  
/gorkataxi  
/gurea  
/gutzieder  
/hamaika  
/irudisport

/joseba  
/korozabaleta  
/markiegi  
/maulanda  
/mayte  
/merkeopari  
/multiopicas

/ohiak  
/ogizun  
/okipark  
/otzeta  
/pando  
/richimaier  
/tabernaerri

/udalatx  
/udalaitz  
/urdeki  
/urbietta  
/vitoria  
/ziripot



ELKARLAGUNTZAKO ELKARTEA

Gipuzkoa etorbidea 39, 1 C. ARRASATE  
Tel.: 943 79 16 82

**S**an Felipe Apostol  
Elkarlaguntzarako Elkartearen  
108. urteurrena dela eta,  
Zuzendaritza batzordeak bazkideei  
eta herritarrei oro har ondoan  
aipatzen diren aspektuen berri  
eman nahi die.

#### 1. ERAKUNDEA.

San Felipe Apostol erakundea IRABAZI ASMO GABEKO elkarte da, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzaren Departamentuan erregistratuta dago, **1898an sortu zen** eta **12.724 bazkide** ditu.

#### 2. ZERBITZUAK

- a) Estatu barruko lekualdatzea; heriotza gertatu den lekutik egoitza duen lekura.
- b) Hilketxa.
- c) Hildakoa jantzi.
- d) Hainbat gestio: eskelak, mediku-ziurtagiria, epaitegia, eta abar.
- e) 525 euroko laguntza ekonomikoa, hainbat gastu ordaintzeko.
- f) 560 euro jasotzeko eskubidea, gure zerbitzua erabiltzeari uko eginez gero.

#### 3. SARRERA KUOTAK.

40 urtera arte doan.  
Adin horretatik gora KONTSULTATU.  
Tel.: 943 79 16 82  
Alberto Ojanguren  
Kontxi Bedia

#### 4. URTEKO KUOTAK

Titularrak 20,5 €  
Ezkontidea 19,5 €  
Onuradunak 9,5 €

Zuzendaritza batzordea

## "MUNDUA LO DAGOEN BITARTEAN"

Patxi Zubizarreta,  
Iban Garate,  
Agurne Anasagasti,  
Mikel Losada,  
Maria Uriarte,...

**ELORRIO**  
Arriola Aretoa

**Azaroak 3**  
barikua  
**22:30ean**  
sarrera: **8€**

udagoieneko



**ostera**

antolatzailea



**Topagunea**  
Euskara Elkarleen Federazioa

babesleak



**bbk**

laguntzaileak



[www.topagunea.org](http://www.topagunea.org)

# Urriak 27-Azaroak 3

LEIRE KORTABARRIA  
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.  
Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com)  
Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

## Kontzertua



OÑATI

### > Erase Errata, neskek egindako rock esperimentalak San Frantziskotik

AEBtatik dator Erase Errata neska hirukotea *Nightlife* diskoa aurkeztera. Rock esperimentalak eta inprobisazio handikoa egiten dute. Etzi, domeka, joko dute gaztelekuan, 20:00etan; Malenkonia eta DJ Xakek ere joko dute.

## Erakusketak



ARRASATE, OÑATI, ESKORATZA

### > Buztin Erti topaketako zeramika erakusketak bisitatzeko aukera dago

Honako erakusketak daude: Oñatiko kultura etxean, zeramikagile katalanen lanak, 20 bat egilerenak; Eskoriatzan, Ibarraundin eta kultura etxean, hiesaren gaineko bi erakusketa; eta Arrasateko Harresi aretoan, egile poloniarren lanak.

## Kontzertua



ELGETA

### > Ortophonk eta Wagon Cookin' jazz taldeak bihar, zapatua, Espaloian

III. Debajazz musika jaialdiak emaldi bat ekarriko du bihar, zapatua, Debagoienara: Ortophonk (Gasteiz) eta Wagon Cookin' (Iruñea) taldeek joko dute. Emanaldia bihar, zapatua, izango da, 22:30ean.

ESKORATZA

### > Helduendako ipuinak kontatu-ko dituzte gaur, egubakoitza

Carlos Alva ipuin-kontalari asturiarrak *Cellero el monologuista* delako ipuin kontaketa ikuskizuna egingo du, helduei zuzenduta.

Gaur, egubakoitza, unibertsitatean, 22:30ean.

## Lehiaketak

ELORRIO

### > 24 Ordu Digitalean film laburren lehiaketa deitu dute

24 Ordu Digitalean delako film laburren lehiaketa antolatuta du Arriola kultur elkarteak. Azaroaren 3an, egubakoitza, Arriola aretoan, 18:00etan, antolatzaileek oinarriak azalduko dituzte, eta 24 ordu ostean filmak aurkeztu behar-ko dira leku berean. Hiru sari daude: 1.500, 900 eta 600 euro.

Argibide gehiago, webgune honetan: [www.arriola.com/24ordu](http://www.arriola.com/24ordu).

ARETXABALETA

### > Datorren urteko egutegirako argazki bila dabil Murruxio

Datorren urteko egutegirako argazkia lehiaketa bidez aukeratu du Murruxio Mendizale Elkarteak. Aukeratu-tako argazkia egutegian agertzeaz gain, 150 euroko saria izango du irabazleak. Argazkiak euren egoitzara, Durana kalera, eraman behar dira, martitzenetan, 19:00-20:00, edo Aretxabaletako 34. posta kutzara bidali.

Urriaren 31 da mugaeguna.

OÑATI

### > III. Mendia eta Natura argazki lehiaketa antolatu dute

III. Mendia eta Natura argazki lehiaketa antolatu du Aloña Mendi Kirol Elkarteak, bi kategoriatan: mendia eta natura, eta salaketa. Aloña Mendiren egoitzan (Atzeko kale 18-20, 20560 Oñati) aurkeztu behar dira lanak. Honako sariak daude: 250 eta 125 euro kategoria bakoitzerako, mendiko materiala eta 150 euro alpinismoko argazki onenari. Mugaeguna, abenduaren 1a.

## Musika

ELGETA

### > SKT Sekuentzia eta Sarkor taldeen kontzertua

SKT Sekuentzia eta Sarkor taldeek kontzertua egingo dute gaztelekuan, hango gazteek antolatuta.

Gaur, egubakoitza, 22:30ean.

BERGARA

### > Oñatiko eta Bergarako erretiratuaren abesbatzen emanaldia

Oñatiko Pake Leku eta Bergarako San Joxepe erretiratuaren elkarteetako abesbatzek kontzertua egingo dute gaur, egubakoitza, San Joxepekoen kultura hamabostaldiraren barruan.

Gaur, egubakoitza, Santa Marina elizan, 20:00etan.

ARRASATE

### > Delorean taldeak kontzertua egingo du bihar, zapatua

Zarauzko Delorean taldeak kontzertua egingo du bihar, zapatua. Punka, dantzarako musika eta musika elektronikoa dira euren eraginetako batzuk. *Into the plateau* da euren azkeneko diskoa.

Taupata tabernan, 18:00etan.

ELGETA

### > Danbakako bigarren kontzerturako sarrerak eta abonoak

Danbaka lehiaketako bigarren kontzertua izango da azaroaren 3an, egubakoitza, honako taldeekin: Matx (Elgeta), Malenkonia (Oñati), Belceblues (Bergara) eta Aby-Kem (Bergara). Sarrerak eta abonoak salgai daude Espaloian, Goienako egoitzetan eta 902 36 38 51 telefonoan. Danbakako kamisetak ere eros daitezke telefono horretara daiduta.

Espaloian izango da, 22:30ean.

BERGARA

### > Winger, Fatal Smile eta Fastback taldeen kontzertua

Winger talde estatubatuar-rrak kontzertua egingo du Jam aretoan. Hainbat urteko isilunearen ondoren, 80ko hamarkadan ezagun egin zen talde hori agertokietara itzuli da hamarkada honetan.

Gaur berean, Fatal Smile eta Fastback taldeek joko dute.

Gaur, egubakoitza, 21:00etan. Sarrera 25 euro da.

BERGARA

### > Disko-jartzaileen emanaldiak asteburuan Ziripot tabernan

House gaua egingo dute gaur, egubakoitza, Ziripot tabernan, D\_2 (Kogollo party krew) DJaren eskutik; zapatuan, berriz, elektropop gaua izango da KRC (Ziripot bergara) DJarekin.

Emanaldiak 23:00etan hasiko dira.

BERGARA

### > Techno jaialdia egingo dute bihar, zapatua, Jam aretoan

Techno jaialdia girotuko dute honakoek: Umek (Recycled loops Slo.) eta Misa Salacova. Sarrera 20 euro da. Bihar, zapatua, gauerdian.

ARRASATE

### > Uzzhuaia rock taldeak kontzertua egingo du

Uzzhuaia hard rock talde espainiarrak disko berria aurkeztuko du kontzertuan 3.60 aretoan.

Gaur, egubakoitza, 23:00etan.

EIBAR

### > Bi talde debagoiendarrek kontzertua egingo dute

Aby-Kem (Bergara) eta Denial (Arrasate) taldeek kontzertua egingo dute Tupiazpi tabernan.

Bihar, zapatua, gauerdian.

## PROPOSAMENA

ARETXABALETA

### > Gastronomía azoka eta patxaran lehiaketa izango dira

X. Gastronomía eta Folklore azoka egingo dute etzi, domeka, Aretxabaletako plazan. 10:30ean etorriko dira aurtengo folklore talde gonbidatuak plazara; han erakustaldi laburrak egin, eta harrera jasoko dute.

Patxaran lehiaketa ere plazan egingo dute, jaialdiaren barruan. Goizean, nahi duten ekoizleek euren patxarana aurkeztu behar-ko dute. Hiru diru-sari eta garaikurra banatuko dituzte.

Saritzen ez dituzten patxaranak jendeak probatzeko utziko dituzte.



## Bestelakoak

ESKORATZA

### > 'Ezkurtxorekin jolasean' egitaraua egingo dute

Herriko hainbat txokotan, ibilaldiak, jolasak, ipuin-kontaktak... eta, bukatzeko, denondako txokolate-jana izango dira. Honako lekuetan batuko dira: Haur Hezkuntza-koak, lehengo tren geltokian; LH 1. eta 2. mailakoak, Gorosarrin; eta 3. eta 4. mailakoak, Olaeta plazan, 16:00etan.

Arizmendi ikastolak antolatzen du.

## nire aukera



Joxerra Askasibar  
Gesalibarko auzo alkatea  
Arrasate

## "Zinemako estrenaldiak beti jarraitzen ditut"

Asteburuan denetarik pixka bat egiten dut. Hala, egubakoitz gauean afaria egiten dugu lagunok elkarte, Herri Gainen. Zapatu goizean, mendi edo baso inguruan paseoa ibiltzen naiz: Tellamendin, Udalatxen edo Atxorrotxen; gero, etxean lasai-lasai bazkaltzen dut, eta zinemara joaten naiz. Domeka goizean berriz ere mendian ibiltzen naiz; segidan, etxean bazkaltzen dut, eta arratsaldean lagunekin kalerik kale ibiltzen naiz, txikiteoan; ez naiz txikitero amorratua, baina gustatzen zait.

**Lagun arteko afarirako zein duzu plater gustukoena?**  
Lehenengo, mokadu batzuk, eta gero, bakailoa.

**Sukaldari ona zara?**  
Moldatzen naiz, bai.

**Eta mendi gustukoena?**  
Atxorrotz gustatzen zait bereziki, baina inguru guztian ibiltzen naiz: Arrasaten, Aretxabaletan ere bai...

**Nora joaten zara zinemara?**  
Gasteizera; oso zinemazalea naiz, beti irakurtzen dut estreinaldien gainean eta horiek jarraitzen ditut, batik bat udazkene-tik aurrera. Banago pare bat ikusteko gogoarekin... Edozelan ere, ikusi dudazkeneko *Crash* izan da eta, film ona iruditu zaidan arren, ez da nire gustukoa.

**Gesalibar auzoa delako liburua argitaratu berri da...**  
Bai. Liburua egiten parte hartu dut, eta uste dut oso emaitza txukunageratu dela, oso argazki onekin. Nahiko ondo islatzen du Gesalibarko jendea eta natura zelakoak diren. Auzotarrei ere asko gustatu zaie.

# Zinema

## ARAMAIO KULTURA ETXEA

Cinco chicos y esto  
Domeka: 17:00.

## ARRASATE AMAIA ANTZOKIA

La joven del agua  
Egubakoitz: 22:00.  
Zapatua: 19:30, 22:00.  
Domeka: 19:30.  
Astelehena: 20:30.

Vecinos invasores  
Domeka: 17:00.

## OÑATI KULTURA ETXEA

Alatriste  
Egubakoitz: 22:30.  
Zapatua: 19:30, 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 19:30.

Vecinos invasores  
Zapatua: 17:00.  
Domeka: 17:00.

No sos vos, soy yo  
Eguena: 20:00.

## EIBAR UNZAGA

El laberinto del fauno  
Egubakoitz: 19:30, 22:15.  
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehenetik eguaztena: 19:30, 22:15.

## RIALTO

Salvador  
Egubakoitz: 19:30, 22:15.  
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

Ant bully  
Zapatua: 17:00.  
Domeka: 17:00.  
Eguaztena: 17:00.

## GASTEIZ GURIDI

Infiltrados  
17:00, 19:45, 22:30.

Los Borgia  
17:00, 19:45, 22:30.

Betizu: Xangaduko misterioa  
17:00, 18:30.

Hijos de los hombres  
17:00, 19:45, 22:30.

Kutsidazu bidea, Ixabel  
20:15, 22:30.

Va a ser que nadie es perfecto  
17:30, 20:00, 22:30.

El diablo viste de Prada  
17:30, 20:00, 22:30.

La dalia negra  
17:30, 20:00, 22:30.

## FLORIDA-GURIDI

Scoop  
17:00, 19:45, 22:30.

Yo soy la Juani  
Egubakoitz: 17:00, 20:30, 22:30.  
Zapatua eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.

Copying Beethoven  
17:30, 20:00, 22:30.

Siempre Habana  
17:00, 19:45, 22:30.

El laberinto del fauno  
17:30, 20:00, 22:30.

Apuntes de Frank Gehry (J.B.A.)  
17:30, 20:00, 22:30.

Aukera-Gazteak  
18:45.

Pequeña Miss Sunshine  
17:00, 19:45, 22:30.

## ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

Va a ser que nadie es perfecto  
16:00, 18:00, 20:00, 22:15, 00:30.

Alatriste  
23:00.

El diablo viste de Prada  
16:30, 19:00, 22:15, 00:30.

Los Borgia  
16:00, 19:00, 23:00.

Ellos  
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

La prueba del crimen  
16:30, 22:00, 01:00.

Wicker man  
20:00, 22:15, 00:30.

El farsante  
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

Yo soy la Juani  
16:00, 18:00, 20:00, 22:15, 00:30.

El guardián  
16:00, 19:00.

Click  
16:30, 19:00, 22:00, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.  
Eguaztena, ikuslearen eguna.

## YELMO CINEPLEX-GORBEIA

Alatriste  
21:45, 00:30.

The wicker man  
19:30, 21:45, 00:15.

Infiltrados  
12:15, 15:30, 18:30, 21:30, 00:30.

Los Borgia  
18:30, 21:30, 00:25.

El diablo viste de Prada  
20:05, 22:10, 00:20.

Scoop  
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

Click  
12:15, 15:45, 18:00.

## El corral

12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

La dalia negra  
12:15, 16:00, 18:45, 21:15, 00:00.

Yo soy la Juani  
12:15, 16:35, 18:35, 20:35, 22:35, 00:35.

La prueba del crimen  
12:15, 15:50, 18:10.

World Trade Center  
12:15, 17:00.

Va a ser que nadie es perfecto  
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

La increíble pero cierta historia de Capercita Roja  
12:15, 16:10, 18:10, 20:10.

El laberinto del fauno  
12:15, 15:40, 18:00, 20:20, 22:40, 01:00.

El guardián  
19:15, 22:00, 00:35.

Crank  
20:40, 22:40, 00:40.

Monster house  
12:15, 16:25.

Tú, yo y ahora... Dupree  
12:15, 16:45.

Ellos  
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean, zapatuan eta martitzenean.  
Eguerdiko saioak, domekan.  
Astelehena, ikuslearen eguna (jaieguna izan ezik).

## ÁBACO BOULEVARD

El corral, una fiesta muy bestia  
12:15, 16:20, 18:15, 20:10, 22:05, 00:30.

Wicker man  
12:15, 16:00, 18:00, 20:10, 22:20, 00:30.

La dalia negra  
12:00, 17:00, 19:45, 22:15, 00:45.

Los Borgia  
12:00, 16:25, 19:15, 22:10, 01:00.

Pequeña Miss Sunshine  
12:10, 16:00, 18:05, 20:10, 22:15, 00:30.

Hijos de los hombres  
12:10, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

El diablo viste de Prada  
12:00, 16:00, 18:05, 20:15, 22:30, 01:00.

El laberinto del fauno  
12:00, 17:00, 19:30, 22:10, 00:45.

Infiltrados  
12:00, 16:05, 19:00, 22:00, 01:00.

El guardián  
19:40, 22:20, 01:00.

Scoop  
12:30, 16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:30.

Tú, yo y ahora... Dupree  
12:10, 16:00, 18:10, 20:20.

World Trade Center  
12:10, 17:00.

La distancia  
22:30, 00:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean, zapatuan eta martitzenean.  
Eguerdiko saioak, domekan.  
Eguaztena, ikuslearen eguna.



## Pequeña Miss Sunshine \*\*\*\*

**Zuz.:** Jonathan Dayton eta Valerie Faries.  
**Aktoreak:** Greg Kinnear, Toni Collette, Steve Carell.  
AEB, 2006.  
101 min. Komediala.

Pequeña Miss Sunshine filmak ikusleen saria eskuratu zuen Donostiako Zinemaldian, eta orain, gure gozamenerako, pantailetan da. Filmak gogoz barre egiteko aukera ugari ematen ditu, baina barre horren azpian Ameriketako Estatu Batuetako gizarteari oso begirada argia, sakona eta kritikoa ematen dio. Pertsonaiak, paisaiak eta egoerak oso amerikarrak izanez, filmean egiten den deskribapenak eta kritikak gure gizarterako ere balio dute.

Gaur egungo gizartean, pertsonak bi taldetan kokatzen ditugu: irabazleak, alde batetik, eta galtzaileak, beste aldetik. Ez dugu gehiago ikusten, eta horrela, bizitzako alderdi guztiak lehiaketa bihurtzen ditugu. Pentsatzeko modu horrek gizaki alienatuak sortzen ditu. Pequeña Miss Sunshine-k gai horiek ukitzen ditu, baina panfletoan erori gabe. Hauxe ondo lortzen da istorioa bi mailatan mugitzen delako: alde batetik familia bat daukagu AEBetako punta batetik bestera joan nahian alaba txikiak miss lehiaketa baten parte har dezan.

Bidaia horretan oso une bitxiak eta dibertigarriak izango dira. Eta beste aldetik, barruko bidaia daukagu, hau da, pertsonaia batzuk euren bizitzetara zentzua aurkitu nahian. Zuzendariak pertsonaiak ahuleziak erakusten dituzte, baina samurtasunez. Horrela, pertsonaia maitagarriak egiten zaizkigu: eurekin barre eta hunkitu egiten gara, eta zinema gelatik komedia ederrak ematen duten euforiarekin irteten gara.

Antonio Zabala

Eskasa: \* Balekoa: \*\* Ona: \*\*\* Oso ona: \*\*\*\* Bikaina: \*\*\*\*\*

### Pequeña miss Sunshine

AEB, 2006. Zuzendariak: Jonathan Dayton eta Valerie Faries. Aktoreak: Greg Kinnear, Toni Collette. 101 min. Komediala. Familia estatubatuar guztiz ezohiko baten abentura kontatzen du filmak. Alaba nerabeen edertasun lehiaketa batera aurkeztu nahi dute. Horrek esperientzia barregarriak eta dramatikoko ekarriko dizkie.

### Infiltrados

AEB, 2006. Zuzendariak: Martin Scorsese. Aktoreak: Leonardo DiCaprio, Matt Damon. 152 min. Thrillerra. Bostoneko talde kriminal handiena sentsitu nahian dabilza polizia. Horretarako, euren burua, Frank Costello, harrapatu nahi dute. Billy Costigan polizia hasiberriari taldean infiltratzea agintzen diote.

### Nómadak Tx

Espainia, 2006. Zuzendariak eta hari- idazlea: Raúl de la Fuente. 90 min. Dokumentala. Txalapartaren filosofia musikariek elkarrekin egoteko eta komunikatzeko

duten gogoan eta kulturen arteko komunikazioan datza. Dokumental horrek txalapartaren doinuak bi lagunek egiten dituzten bidaia kontatzen ditu: Laponia, Indiar, Saharara...

### Amigos con dinero

AEB, 2006. Zuzendariak: Nicole Holofcener. Aktoreak: Jennifer Aniston, Frances McDormand. 88 min. Drama. Luzzaroen lagun izan diren lau emakumeren arteko adiskidetasuna aztertzen du filmak. Une delikatu baten dago adiskidetasun hori: duten adinagatik, kultura eta diru ezberdintasunak agerian jartzen dira.

### Wicker man

AEB, 2006. Zuzendariak: Neil LaBute. Aktoreak: Nicolas Cage, Ellen Burstyn, Kate Beahan. 102 min. Thrillerra, misteriozkoa. Edward Malus polizia ikusten du, ezer egin ahal izan gabe, ama-alaba batzuek zelan hiltzen diren istripuan. Horrek traumatizatu egingo du, baina bigarren aukera bat izango du: emaztegai ohiak idatzi egiten dio, alabaxoa aurkitzeko laguntza eskatzen.

### Yo soy la Juani

Espainia, 2006. Zuzendariak: Bigas Luna. Aktoreak: Verónica Echegui, Dani Martín, Laya Martí. 90 min. Komediala. Juanik 15 urteko mutil-lagunarekin harremana apurtzen du, eta berarekin egon den bitartean egin ahal izan ez duen guztia egitea erabakitzen du: aktore izan gura du eta ziur dago lortu egingo duela.

### Scoop

Erresuma Batua, 2006. Zuzendariak: Woody Allen. Aktoreak: Scarlett Johansson, Woody Allen, Hugh Jackman, Ian McShane. 96 min. Komediala. Sondra Pransky kazetaritza ikasleari hildako kazetari baten mamua agertzen zaio eta urteko eskuliburu ematen dio: aristokrata baten semea hiltzailea da.

### Ellos

Frantzia, 2006. Zuzendariak: David Moreau eta Xavier Palud. Aktoreak: Olivia Bonamy, Michaël Cohen. 77 min. Thrillerra, beldurrezkoa. Clémentine Bucaresteko Lizeo

Frantsesean irakasle da, eta Lucas idazlela da. Basoan isolatutako etxe handi baten lasai bizi dira. Baina laster konturatu dira *eurak* leku guztietan daudela, baita euren etxean ere...

### El farsante

AEB, 2005. Zuzendariak: Barry W. Blaustein. Aktoreak: Johnny Knoxville, Brian Cox. 94 min. Komediala. Steve Barkerren bizitza goitik behera aldatzen da nagusiak enpresako atezaina kaleratzeko eskatzen dionean. Kompentsatzeko, atezaina berak kontratatzea erabakitzen du, baina orduan, istripu baten ondorioz, atezainak behatz batzuk galtzen ditu...

### Tú, yo y ahora... Dupree

AEB, 2006. Zuzendariak: Joe Russo eta Anthony Russo. Aktoreak: Owen Wilson, Kate Hudson, Matt Dillon. 108 min. Komediala. Carl eta Molly Peterson senar-emazteak berriak dira auzoan. Dena ondo doa, arazo txiki bat izan ezik: Dupree, Carl-en lagun bat, lanetik bota egiten dute, eta bikotearengana jotzen du ostatu eske...

## Duzun xarma handitzea amets egin al duzu inoiz?

France Dechberry irudi eta estilismoan espezialistaren eskuetan jartzen zaitugu. **Madrilgo denda** onenak aukeratuko ditu eta **2.000 euro** gastatu ahal izango dituzu **arropa eta osagarrietan**. Gainera, aste bukaera batez, Palace hotelean ostatu hartu ahal izango duzu.

COSMOPOLITAN TV

THE WESTIN PALACE  
MADRID

France Dechberry  
image consulting  
www.francedechberry.com

© 2006 TWENTIETH CENTURY FOX

Informa zait zinemetan edo [www.cinesabaco.com](http://www.cinesabaco.com) webgunean.

ÁBACO

EL  
DIABLO  
DE VISTE  
PRADA



# Sustar, marihuanaren alde

**ELKARTEA** Kalamuaren legalizazioaren aldeko Sustar izeneko elkarteak sortu berri dute bailaran

**TERAPEUTIKOA** Medikuntzan kalamuaren erabilera aldarrikatzen dute, kalamuaren onurak

**BAZKIDEAK** Elkarteak 50 bazkide inguru ditu dagoeneko; azaroan egingo dute lehen batzarra, Arrasaten

EDU MENDIBIL > BERGARA

Kalamuaren legalizazioaren aldeko elkarteak sortu berri dute bailaran. Sustar elkarteak 50 bazkide inguru ditu dagoeneko eta, besteak beste, medikuntzan kalamuaren erabilera aldarrikatzen dute. Kaiet Laskurain 31 urteko arrasatearra da Sustarreko presidentea: "Kalamuaren onurak eta erabilpenak zabaltea da gure asmoa: ehunka erabilpen osasungarri dauzka kalamuak. Gaixotasun larrien zein ohiko osasun arazoaren tratamenduan erabiltzen da aspalditik, emaitza bikainekin gainera. Izan ere, kimioterapia jasotzen ari diren zenbait lagunek guregana jo dute jadanik eta Bartzelonako mediku batekin elkarlanean arituko gara, gure bazkideei astean zehar aholkularitza eskainiz".

DEBAGOIENENKO LEHENA

Horrez gain, hitzaldiak, erakusketak eta bestelako ekitaldiak antolatuko asmoa daukate etorkizunean: "Katalunian lan handia egiten ari dira marihuana-

ren landaketa legezkota izateko eta Euskal Herrian ere badira gurearen moduko zenbait elkarte. Sustar da Debagoieneko lehen eta ateak edozeinendako daude irekita. Erantzun ona jaso dugu orain arte. Baldintza bakarra 18 urtetik gorakoa izatea da eta bazkide izatearren urteko kuota 10 eurokoa da, egitasmoei aurre egin ahal izateko", dio Laskurainek. Arrasaten zabaldu nahi dute Sustarren egoitza; lokala heldu bitartean, Bergarako Klorofila dendara jo dezakete interesatuek.

Sustar elkarteko kideek azaroan egingo dute lehen batzarra, Arrasateko gaztetxean. Hortik aurrera, poliki-poliki ekitaldien programa zehazten joango dira, elkarlana izango delarik taldearen oinarrietako bat. Laskurainen arabera, legedia edo landaketa profesionalak izango dituzte aztergai antolatutako hitzaldietan. Elkartearen gaineko argibide gehiago [goiena.net/blogak/klorofila](http://www.goiena.net/blogak/klorofila) blogean jaso dezakezue.



SUSTAR Kaiet Laskurain arrasatearra da Sustarreko presidentea. Bloga daukate [www.goiena.net](http://www.goiena.net)-en.

E.M.

## ahobero

"Garai distiratsuak etorriko dira eta bi aldiz joango gara aurtengo denboraldian Cibelesera, maiatzean lehenbizi eta ekainean berriz"

Ramon Calderon > Real Madrileko presidentea

Futboleko garaipen batek sekulako algara ekar dezake. Baina hurrengo asteko partidua galdu eta mundua amaituko dela ematen du.

## iturri onetik

Gatzezko bonboiak egingo dituzte Leintz Gatzagan azaroaren 12an

Leintz Gatzagako San Milixan jaietan gatzezko bonboiak egingo dituzte datorren azaroaren 12an. Herrian daukaten gatz-urezko iturrian ura jaso eta etxeetara banatuko dute egun horretarako gatza ekoizteko.

Antolatzaileak dagoeneko Oñatiko Klaxk txokolatela elkartearekin izan dira hartu-emanetan, aipatutako egunean gatzezko bonboiak egin ahal izateko.

## piperrautsa

Mikel Irizar > [www.goiena.net/blogak/piperrautsa](http://www.goiena.net/blogak/piperrautsa)

### Denboraren orratzak

Munduak betiko abiadan jarraituko du biraka, baina eguneroko bizitza ziztu bizian doa. Gero eta gauza gehiago egin nahi dugu, gero eta asti gutxiago daukagu haiek egiteko. Egungo jendarteak galdua du itxoiteko patxada.

Delako prozesu politikoarekin nabari da hori bereziki. Presa adierazten dute alde guztiek, eta haserre, urratsak etengabe atzeratzen direlako. Baina prozesuak ez du bakarrik akordio bat ekarri behar. Prozesua sendo eta erabakigarria izango bada, prozesuan zehar denok moldatu beharko dugu gure pentsamoldea. Eta horrek denbora eskatzen du. Horregatik, denboraren orratzak ahaztu eta aztertzen hasia naiz zertan bat etor naitekeen ezberdin pentsatzen dutenekin, norantz mugitu behar nukeen haiekin topo egiteko.

## ai, ene!



Tuningaren modak ez dauka mugarik

Tuningaren gehiegikeriekin batzuetan zaila da asmatzea zein auto ikusten ari garen. Ea asmatzen duzuen...

<http://tinyurl.com/trw53>



**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea • BERGARA  
Tel.: 943 03 46 30

**UGARTE**  
AROSZTEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean • Horma armairuak  
Altzariak • Leihoak • Ateak



**ERAKUSKETA ETA TAILERRA**  
San Juan 1A • BERGARA  
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04